Bariazioaren gaineko ikerketetan metagarriak erabiltzen dira, hau da, multzokatze urrats bakoitzean hurbilen daudenak multzo berean sartzen dira beste multzo bat osatzeko eta horrela harik eta multzo bakarra lortu arte.

Multzokatze-metodoa aukeratu ondoren, kasuen artean erkaketak egin ahal izateko, antzekotasunen eta desberdintasunen distantzia neurria aukeratu behar da. Hauetariko asko agertzen dira bibliografian (Pardo eta Ruiz, 2002, Pérez López, 2005), baita bariazioa aztertzeko erabili direnetan ere (Goebel, 1992, 2010; Aurrekoetxea, 1995, 2005; Clua, 2010).

Lexikoa konparatzean proposatu den distantzia neurrietako bat Leveinstein distantzia izan da (Nerbonne et al., 1999, 2010; Heeringa, 2004; Heeringa et al., 2006, Iglesias, 2014, Ensunza, 2015). Distantzia hau interesgarria izan daiteke neurtzeko berben aldakien arteko alde fonetikoa, baina lexema desberdina denean arazoak sorrarazten ditu; izan ere, batetik bestera dagoen distantzia % 100ekoa da beti horrelakoetan. Edozelan ere, teknika esploratzalea denez gero, distantziak probatu beharko lirateke erabili orduko: izan ere, bakoitzeko emaitzak desberdinak izaten dira.

SPSSk ematen dituen aukeretako batzuk erabiliz gero, ikus ditzakegu kalkuluak egindakoan dauden aldeak. Esate baterako, 3. irudian lehen belaunaldiko informatzaileen distantzia euklidearra erabilita agertzen diren emaitzak erakusten dira, distantzia honen eta Minkowskyren distantziaren emaitzak bat datoaz.

Caso	1:A11	2:A12	3:A13	4:A14	5:G11	6:G12	7:G13	8:G14
1:A11	,000	1,395	1,834	1,228	1,611	2,122	1,197	1,997
2:A12	1,395	,000	1,844	1,088	1,394	2,071	1,321	1,749
3:A13	1,834	1,844	,000	1,899	1,545	1,325	1,604	1,162
4:A14	1,228	1,088	1,899	,000	1,314	2,204	1,286	1,891
5:G11	1,611	1,394	1,545	1,314	,000	1,944	1,297	1,454
6:G12	2,122	2,071	1,325	2,204	1,944	,000	1,884	1,384
7:G13	1,197	1,321	1,604	1,286	1,297	1,884	,000	1,733
8:G14	1,997	1,749	1,162	1,891	1,454	1,384	1,733	,000

3. irudia: 1. belaunaldiko informatzaileen arteko distantzia-matrizea distantzia euklidearra erabilita.

Caso	1:A11	2:A12	3:A13	4:A14	5:G11	6:G12	7:G13	8:G14
1:A11	,000	1,946	3,363	1,507	2,595	4,502	1,432	3,989
2:A12	1,946	,000	3,399	1,185	1,943	4,288	1,745	3,059
3:A13	3,363	3,399	,000	3,606	2,387	1,756	2,573	1,351
4:A14	1,507	1,185	3,606	,000	1,726	4,859	1,654	3,575
5:G11	2,595	1,943	2,387	1,726	,000	3,778	1,683	2,115
6:G12	4,502	4,288	1,756	4,859	3,778	,000	3,548	1,915
7:G13	1,432	1,745	2,573	1,654	1,683	3,548	,000	3,004
8:G14	3,989	3,059	1,351	3,575	2,115	1,915	3,004	,000

4. irudia: 1. belaunaldiko informatzaileen arteko distantzia-matrizea distantzia euklidear karratua erabilita.

Badaude beste distantzia mota batzuk, hala nola Hiri Blokeena (5. irudian emaitzak ikus daitezke) edo Chebychevena (6. irudian emaitzak erakusten dira). Kasu hauetan guztietan ikusten den moduan, emaitzak bat ez etortzean, distantzia mota aukeratzean kontuan hartu behar da zertain oinarritzen den, hau da, berdintasunetan edo desberdintasunetan eta elementuen arteko hurbiltasunari edo urruntasunari garrantzia ematen zaion. Distantzia euklidearra aukeratzen denean, taldeen barruko elementuak antzekoak izango dira eta euren arteko distantzia txikiak.

Caso	1:A11	2:A12	3:A13	4:A14	5:G11	6:G12	7:G13	8:G14
1:A11	,000	5,957	8,166	4,416	6,873	10,209	4,208	9,832
2:A12	5,957	,000	8,955	4,457	6,164	9,832	4,831	8,123
3:A13	8,166	8,955	,000	9,248	6,291	4,209	7,206	4,250
4:A14	4,416	4,457	9,248	,000	4,957	11,541	4,792	9,498
5:G11	6,873	6,164	6,291	4,957	,000	8,750	4,999	5,623
6:G12	10,209	9,832	4,209	11,541	8,750	,000	8,499	4,209
7:G13	4,208	4,831	7,206	4,792	4,999	8,499	,000	8,040
8:G14	9,832	8,123	4,250	9,498	5,623	4,209	8,040	,000

5. irudia: 1. belaunaldiko informatzaileen arteko distantzia-matrizea Hiri Blokeen distantzia erabilita.


Caso	1:A11	2:A12	3:A13	4:A14	5:G11	6:G12	7:G13	8:G14
1:A11	,000	,667	,667	,667	,667	,917	,667	,667
2:A12	,667	,000	,583	,458	,583	,917	,583	,583
3:A13	,667	,583	,000	,583	,583	,917	,583	,542
4:A14	,667	,458	,583	,000	,583	,917	,583	,583
5:G11	,667	,583	,583	,583	,000	,917	,542	,583
6:G12	,917	,917	,917	,917	,917	,000	,917	,917
7:G13	,667	,583	,583	,583	,542	,917	,000	,583
8:G14	,667	,583	,542	,583	,583	,917	,583	,000

6. irudia: 1. belaunaldiko informatzaileen arteko distantzia-

matrizea Chebychev distantzia erabilita.


Azkenik, sailkatze algoritmo asko daude (Pardo eta Ruiz, 2002, Pérez López, 2005), baina bariaazioaren azterketetan gailendu dena Ward-en metodoa da (Goebl, 1992, 2010; Aurrekoetxea, 1995, 2005; Gaminde, 2007; Gaminde et al., 2016b), euskararen gainean egineko lanetan ere algoritmo hau izan da erabiliena.

Edozelan ere, matrizaera eraikitzean datu dikotomikoak erabiltzen badira, aldaki guztiak maila berean jartzen dira. Gure datuak horrelako matrize bat erabilita multzokatzen ditugunean, 7. irudian agertzen den dendograma lortzen da. Bertan agertzen diren multzo nagusien osaketa aztertzen badugu, ikusten dugu A multzoan hamabost informatzaile kokatzen direla eta B multzoan bederatz. Informatzaileen belaunaldien araberako banaketari begira A multzoan 1. belaunaldiko bost informatzaile kokatzen dira 2. belaunaldiko zazpi eta 3. belaunaldiko hiru. B multzoan 1. belaunaldiko hiru informatzaile kokatzen dira, 2. belaunaldiko bat eta 3. belaunaldiko bost. Generoaren arabera, A multzoan zortzi neska agertzen dira eta zazpi mutil eta B multzoan lau neska eta bost mutil. Beraz esan dezakegu ez belaunaldika ez eta generoka ez dagoela multzo homogeneorik.



7. irudia: Informatzaileen sailkapena matrize dikotomiko bat erabilita.

Aldakien probabilitatearen azterketa egiteko urrats batzuk egitea proposatzen da. Batetik, aurreko behar batean (Gaminde et al., 2016a) proposatzen genuen bezala, adizkien morfemen hurrenkeraren arabera sortzen diren txantiloia (Artiagoitia, 2000; Gaminde et al., 2012) oinarritzat hartu ditugu eta gero adizkiak eraikitzeo erabili behar diren eragiketak hierarkikoki antolatu ditugu. Eragiketa horiek ordenatuta egin behar dira; batzuek zuhaitzaren urkuluetan bide paraleloak sorrarazten dituzte eta beste batzuek aukera ematen dute ezaugarri bakoitzaren aldaki bat edo beste txertatzeko euron probabilitateen arabera. Zuhaitz diagramen bidez adizkirik adizki gertatzen diren ezaugarriak antolatzen dira eta lagin-espazioak zedarritzen dira. Zuhaitz-diagrametan urkulu bakoitzaren adarren probabilitateak adierazten dira. (8. irudian “zenion” adizkiaren urkulketa eta adarren probabilitateak erakusten dira).



8. irudia: Aldagai bakoitzaren aldakiak eta probabilitateak.

Informazio honekin, lan honetatik kango geratzen den arren (ikusi Etxebarri et al., 2016 eta Gaminde et al. 2016a), aldaki bakoitzaren probabilitateak kalkula daitezke. Esate baterako, “yotzesun” adizkiaren probabilitatea ondoko formularen arabera kalkulatuko litzateke:

P (“+sub al” ∩ “y”)

“+sub al” subjektuaren leku aldaketari dagokion ezaugarria da, “y” iragan aldiko hasierako morfemari dagokio. Kalkulua ondoko era honetara egiten da.

$$P(\text{"+sub al"}) * P(\text{"y"})$$

Termino bakoitzaren probabilitateak 8. irudian erakusten direnak dira; beraz, adizki honen agerpen probabilitatea 0,125koa da. Probabilitateak honela kalkula ditzakegu ezaugarri bakoitzarena zenbatekoa den jakin gura dugunean edo egin dezakegu adizki bakoitzarena kalkulatu zuzenean, bakoitzaren maiztasunean oinarrituta (kontuan hartu bedi azken emaitza, dezimalen biribiltzearen zehaztasun ezak eragiten dituen gorabeherengatik ere bertsua dela era bitara eginda). 9. irudian erakusten da zelan kalkulatu diren Nor-Nori saileko adizkien probabilitateak kalkulu orri arrunt batean.

Lek	yako	dako	daste	date	yat	yate	dakus	daskus	yakus	akosan	akosen	dakosen	yakosan	yakosen
A11	1	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	1
A12	1	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	1	0
A13	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0
A14	1	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	1	0
G11	1	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	1
G12	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	1	0
G13	1	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	1	0
G14	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	1	0
A21	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	1	0
A22	0	1	0	1	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0
A23	1	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	1	0
A24	0	1	1	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	1
G21	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	1	0
G22	0	1	0	1	0	0	0	0	1	0	0	0	0	1
G23	1	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	1	0
G24	1	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	1
A31	1	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	1	0
A32	1	0	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	1
A33	0	1	0	1	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0
A34	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	0	1	0	0
G31	0	1	0	1	0	0	0	0	1	0	0	0	1	0
G32	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	0	1	0	0
G33	0	1	1	0	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0
G34	0	1	1	0	0	0	0	1	0	0	0	1	0	0
	10	14	3	11	4	6	8	8	4	12	1	1	7	12
	0,416666667	0,583333333	0,125	0,458333333	0,106666667	0,25	0,333333333	0,166666667	0,5	0,041666667	0,041666667	0,291666667	0,5	0,125


9. irudia: Nor-Nori saileko probabilitateen kalkulua.

Adizki bakoitzaren probabilitatea erabiltzen badugu “1” ordezteko, 10. irudian agertzen den bezala, multzokatze azterketa egiteko behar den matrizea lortzen dugu.

Lek	yako	dako	daste	date	yat	yate	dakus	daskus	yakus	akosan	akosen	dakosen	yakosan	yakosen
A11	0,417	0	0	0	0,167	0	0	0,25	0	0,5	0	0	0,5	0
A12	0,417	0	0	0	0	0,167	0	0	0	0,5	0	0	0,5	0
A13	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0,042	0	0	0
A14	0,417	0	0	0	0,167	0	0	0	0	0,5	0	0	0,5	0
G11	0,417	0	0	0	0,167	0	0	0	0	0,5	0	0	0,5	0
G12	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0	0,292	0	0
G13	0,417	0	0	0	0	0,25	0	0	0	0,5	0	0	0,5	0
G14	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0	0,292	0	0
A21	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0	0,292	0	0
A22	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0,042	0	0	0
A23	0,417	0	0	0	0	0,25	0	0	0	0,5	0	0	0,5	0
A24	0	0,583	0,125	0	0	0	0	0,167	0	0	0	0	0	0,125
G21	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0	0	0,5	0
G22	0	0,583	0	0,458	0	0	0	0	0	0,5	0	0	0,5	0
G23	0,417	0	0	0	0,167	0	0	0	0	0,5	0	0	0,5	0
G24	0,417	0	0	0	0	0,25	0	0	0	0,5	0	0	0	0,125
A31	0,417	0	0	0	0,25	0	0	0,5	0	0	0	0	0,5	0
A32	0,417	0	0	0	0,25	0	0	0,5	0	0	0	0	0	0,125
A33	0	0,583	0	0,458	0	0	0,167	0	0	0	0	0,292	0	0
A34	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0	0,292	0	0
G31	0	0,583	0	0,458	0	0	0	0	0,5	0	0	0	0,5	0
G32	0	0,583	0	0,458	0	0	0,333	0	0	0	0	0,292	0	0
G33	0	0,583	0,125	0	0	0	0	0,167	0	0	0	0,292	0	0
G34	0	0,583	0,125	0	0	0	0,167	0	0	0	0	0,292	0	0


10. irudia: Nor-Nori saileko probabilitateen araberako matrizea.

Orain multzokatze azterketa egiten dugunean, gorago adierazitako parametro berberak erabilita 11. irudiko dendograma lortzen dugu. Ikusten den moduan, A multzoan hamalau informatzaile kokatzen dira eta B multzoan hamar. Informatzaileen belaunaldien araberako banaketari begira A multzoan 1. belaunaldiko bost informatzaile kokatzen dira 2. belaunaldiko hiru eta 3. belaunaldiko bi. B multzoan 1. belaunaldiko hiru informatzaile kokatzen dira, 2. belaunaldiko bost eta 3. belaunaldiko sei. Generoaren arabera, A multzoan sei neska agertzen dira eta lau mutil eta B multzoan sei neska eta zortzi mutil.




11. irudia: Informatzaileen sailkapena probabilitateen matrizea erabilita.

Emaitzok ikusita argi agertzen da belaunaldiaren arabera progresio argia agertzen dela informatzaileen sailkapenean, 12. irudian ikus daitekeen bezala. Datu hauek ikusita esan dezakegu bigarren eta hirugarren belaunaldietako informatzaileak elkarrengandik hurbilago daudela lehen belaunaldiko informatzaileengandik baino (13. irudia).



12. irudia: Informatzaileen hedapena multzoetan euron belaunaldien arabera.



13. irudia: Belaunaldi bakoitzeko informatzaileen hedadura multzo bakoitzean.

## 5. Ondorioak

Hona helduta aurreko atalean eztabaидatu ditugun emaitzetatik ondorio nagusiak laburbilduko ditugu.

Batetik, multzokatze-azterketa egiteko erabiltzen den datu-matrizearren ezaugarriek azken emaitza baldintzatzen dutela argi geratu da. Argi geratu da “0” eta “1” erabilita sortzen den matrize dikotomikoaren bidez askozaz gutxiago azaltzen dena molde bakoitzaren probabilitateak kalkulatuta eraikitzen den matrizaren bidez baino.

Beste alde batetik, probabilitateen kalkulua aldez aurreko azterketa linguistikoan oinarritzen denean, aldaketak eurak ere pisatu egiten dira eta bakoitzari bere balioa ematen zaio. Era honetara, ezaugarri linguistikoen balioetan oinarritura, azterketa doituagoa da.

Azkenik, era honetara eginez gero, azpian dautzan egiturak azaleratzen dira; izan ere, matrize dikotomikoaren bidez egindako azterketak ez du ezer erakusten; alta, probabilitateen araberako azterketa egiten denean, informatzaileen banaketan belaunaldiak daukan garrantzia agirian jartzen da. Hizkerak maila diatopikoan sailkatzen direnean metodo berberak erabil daitezke.

Edonola ere, hemen ere ikuspuntu ekliptikoa aldarrikatu behar dugu. Estatistikak teknikak ipintzen ditu gure esku, baina guri dagokigu unean-unean gure datuak azaltzeko teknikarik onenak aukeratzea eta aplikatzea.

## 6. Bibliografía

- Arteagagoitia, X. (2000). *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. AFA.
- Aurrekoetxea, G. (1992). Nafarroako Euskara: Azterketa Dialektometrikoa. *Uztaro* 5, 59-109.
- Aurrekoetxea, G. (1995). *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Bilbo: EHU.
- Aurrekoetxea, G. (2005). Nafarroako Euskararen Sailkapenaz. In Etxebarria, P. eta Knör, H. (2005) *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia* (109-124 orr.). Bilbo: Euskaltzaindia eta EHU.
- Aurrekoetxea, G. (2009). Bariazio sinkronikoa aztertzeko metodologia(k). *Lapurdum* 13, 43-59.
- Aurrekoetxea, G. / J. L. Ormaetxea (Edtk.). (2010). *Tools for Linguistic Variation*, Bilbao: UPV-EHU, Supplements of the Anuario de Filología Vasco “Julio de Urquijo”, 53.
- Aurrekoetxea, G., & Ormaetxea, J.L. (2006). Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa ikerketa proiektua, *Euskalingua* 9.
- Aurrekoetxea, G. (2003). Euskalkiak estandarraren uholdepean, Arratiako kasua. In *Mendebalde Kultura Alkartea: Ahozkotasuna aztergai*.
- Aurrekoetxea, G. (2004). Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak, ikuspuntu teorikotik begirada bat. *Uztaro*, 50.
- Aurrekoetxea, G. (2008). Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran. *Euskalingua*, 12.
- Aurrekoetxea, G., Gandarias, L., Gaminde, I., & Iglesias, A. (2014a). Variación prosódica en vasco: áreas acentuales. In Yolanda Congosto Martín, María Luisa Montero Curiel y Antonio Salvador Plans (eds.) *Fonética Experimental, Educación Superior e Investigación*. Madrid: Arco Libros.
- Aurrekoetxea, G, Gaminde, I., Gandarias, L., & Iglesias, A. (2014b). Prosodic variation in the Basque language: intonational areas. In Diáz-Negrillo, A. & Díaz Pérez Francisco Javie (edtk) *Specialisation and Variation in Language Corpora*. Berna: Peter Lang AG, International Academic Publishers.
- Ayuga, E. (d.g.). Análisis de Conglomerados.  
[http://ocw.upm.es/estadistica-e-investigacion-operativa/matematicas-y-estadistica-aplicada/contenidos/OCW/Anal\\_Multivar/Mat\\_Clase/anal\\_mult\\_2.pdf](http://ocw.upm.es/estadistica-e-investigacion-operativa/matematicas-y-estadistica-aplicada/contenidos/OCW/Anal_Multivar/Mat_Clase/anal_mult_2.pdf)
- Beckner, C., Blythe, R., Bybee, J., Christiansen, M. H., Croft, W., Ellis, N. C., Holland, J., Ke, J., Larsen-Freeman, D., & Schoenemann, T. (2011). La lengua es un sistema adaptativo complejo. *Lingüística en la Red*.  
[http://www.linred.es/articulos\\_pdf/LR\\_articulo\\_04092011.pdf](http://www.linred.es/articulos_pdf/LR_articulo_04092011.pdf)
- Boersma, P., & Weenink, D. (2016). *Praat: doing phonetics by computer, Version 5.1*. [Computer program]. <<http://www.praat.org>>
- Clua, E. (2010). Relevancia del análisis lingüístico en el tratamiento cuantitativo de la variación dialectal. In Aurrekoetxea, G. & Ormaetxea, J. L. (2010). *Tools for Linguistic Variation*. Bilbao: UPV/EHU.
- De la Fuente, S. (2011). *Análisis Conglomerados*. Universidad Autónoma de Madrid.  
<http://www.fuenterrebollo.com/Economicas/ECONOMETRIA/SEGMENTACION/CONGLOMERADOS/conglomerados.pdf>
- Díaz de Rada, V. (2009). *Análisis de datos de encuesta: Desarrollo de una investigación completa utilizando SPSS*. Bartzelon: UOC.
- Ellis, N. C. (2011). The Emergence of Language as a Complex Adaptive System. In James Simpson (Ed.), *Routledge Handbook of Applied Linguistics*. Routledge/Taylor Francis.

- Ensanza, A. (2015). *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldaortasuna denboran eta espazioan*. [Doktoretza tesi]. Leioa: UPV/EHU.
- Etxebarria, A., Gaminde, I., Olalde, A., & Gaminde, U. (2016). Hizkuntza aldaortasuna Larrabetzuko aditz morfoloziaren. In Iglesias, A.; Romero, A. eta Ensanza, A. Linguistic variation in the Basque language and education – II / Euskararen bariatzioa eta bariazioaren irakaskuntza – II. Bilbo: UPV/EHU.
- Etxeberria, J. (2011). *Estatistika Aplikatua: Teoria eta Praktika*. Donostia: Elhuyar.
- Gaminde, I. (2007). *Bizkaian Zehar: Euskararen Ikuspegia Orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I., Romero, A., & Legarra, H. (2012) *Gramatika eta hizkuntza bariatzioa Bermeo*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Gaminde, I., Romero, A., Etxebarria, A., & Eguskiza, N. (2016a). Bizkaiko aditz laguntzaileen bilakaeraren azterketaz. In Iglesias, A.; Romero, A. eta Ensanza, A. Linguistic variation in the Basque language and education – II / Euskararen bariatzioa eta bariazioaren irakaskuntza – II. Bilbo: UPV/EHU.
- Gaminde, I., Etxebarria, A., Eguskiza, N., Romero, A. & Unamuno, L. (2016b). Lexikoarenbariazioa eta multzokatze-azterketa. *Euskalingua*, 28, 19-3.
- Gell-Mann, M. (1994). *El quark y el jaguar: Aventuras en lo simple y lo complejo*. San Francisco: EpubLibre.
- Goebl, H. (1992). Problèmes et méthodes de la dialectométrie actuelle (avec application à l'AIS). In Euskaltzaindia/Académie de la Langue Basque éd., *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak/Actes du Congrès International de Dialectologie* (429-475 orr.), Bilbo: Euskaltzaindia.
- Goebl, H. (2010). Introducción a los problemas y métodos según los principios de la Escuela Dialectométrica de Salzburgo. In Aurrekoetxea, G. & Ormaetxea, J. L. (2010) Tools for Linguistic Variation. Bilbo: UPV/EHU.
- Heeringa, W. (2004). *Measuring Dialect Pronunciation Differences using Levenshtein Distance*. Doktorego tesi. University of Groningen, Groningen. <http://www.let.rug.nl>
- Heeringa, W., Kleiweg, P., Gooskens, Ch., & Nerbonne, J. (2006). Evaluation of String Distance Algorithms for Dialectology. [http://www.let.rug.nl/gooskens/pdf/publ\\_lingdist\\_2006.pdf](http://www.let.rug.nl/gooskens/pdf/publ_lingdist_2006.pdf)
- Herrera, H., Martínez, R., & Amengual, M. (2001). *Estadística aplicada a la investigación lingüística*. Madrid: EOS Universitaria.
- Iglesias, A. (2014). *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. [Doktorego tesi]. Leioa: UPV/EHU.
- Labov, W. (1972). *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: U. of Pennsylvania Press.
- Laka, E., Olondo L., & Gaminde, I. (2008). Bermeoko gazteen euskararen aditz morfoloziak, *Euskalingua*, 13.
- Léonard, J. L., Heinsalu, E., Patriarca, M., & Darlu, P. (2015). Modeling regional variation from eas: complexity and communal aggregates. In Aurrekoetxea, G.; Romero, A. eta Etxebarria, A. *Linguistic Variation in the Basque an Education-I/Euskararen Bariatzioa eta Bariazioaren Irakaskuntza-I* (50-58 orr.). Leioa: UPV/EHU
- López Rivera, J. J. (2013). Aplicación del marco de los sistemas complejos adaptativos a un modelo de variación lingüística. *Moenia*, 19, 5-24.
- Lujanbio, O. (2016). *Hizkuntza-aldaortasuna euskaran. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. [Doktoretza-tesia]. Leioa: UPV/EHU.
- Montero, J. (2017) *Permiso para quejarse*. Bartzelona: Ariel.
- Moreno Cabrera, J. C. (2008) *El nacionalismo lingüístico: Una ideología destructiva*. Bartzelona: Ediciones Península.

- Murillo, F. J., & Martínez-Garrido, C. (2012). *Análisis de datos cuantitativos con SPSS en investigación socioeducativa*. Madril: UAM.
- Nerbonne, J., Prokic, J., Wieling, M., & Gooskens, Ch. (2010). Some further dialectometrical steps. In Aurrekoetxea, G. & Ormaetxea, J. L. (2010) *Tools for Linguistic Variation*. Bilbo: UPV/EHU.
- Nerbonne, J., Heeringa, W., Kleiweg, P. (1999). Comparison and Classification of Dialects *Proceedings of EACL '99*, <http://www.aclweb.org/anthology/E99-1048>.
- Pardo, A., & Ruiz, M. A. (2002). *SPSS 11 Guía para el análisis de datos*. Madril: McGraw-Hill.
- Pérez López, C. (2005). *Métodos estadísticos avanzados con SPSS*. Madril: Thomson.
- Romero, E. (2016). *Estadística para todos*. Madril: Pirámide.
- Terrádez, M. (d.g.) *Análisis de Conglomerados*. Bartzelona: Universitat Oberta de Catalunya. <http://www.uoc.edu/in3/emath/docs/Cluster.pdf>

## AHOTS SEDUZITZAILEEN EZAUGARRIAK GENEROAREN IKUSPEGITIK<sup>3</sup>

**Aintzane Etxebarria, Naia Eguskiza, Iñaki Gaminde eta Asier Romero  
Euskal Herriko Unibertsitatea**

[aintzane.etxebarria@ehu.eus](mailto:aintzane.etxebarria@ehu.eus), [naia.eguskiza@ehu.eus](mailto:naia.eguskiza@ehu.eus), [inaki.gaminde@ehu.eus](mailto:inaki.gaminde@ehu.eus),  
[a.romero@ehu.eus](mailto:a.romero@ehu.eus)

### Laburpena

Ahotsaren bitartez era ezberdinak funtzioak bete ditzakegu; batzuk linguistikoak dira, azentua, intonazioa, fokoa eta esaldi egitura zehazteko balio dute; beste batzuk paralinguistikoak dira eta jarreren, intentzioen eta hizkera estiloen berri ematen digute; azkenik, badaude beste zenbait ez direnak linguistikoak eta fisikoaren, egoera emozionalaren zein pertsonalaren berri ematen digutenak. Adierazitako funtzio horiek betetzeko nahiz pertzibitzeko ezinbestekoak dira tasun akustikoak, oinarrizko maiztasuna edo F0, iraupena, energia, abiada eta ahots mota edo kalitatea. Lan honetan, hiru mutilen grabazioak erabiliz eta generoa aldagaiari garrantzia emanet, emakumeen ikuspuntua kontuan hartuko baita, ahots seduzitzalearen ezaugarriak zehaztean aipatutako lehen lau tasunetik zeinek duen eraginik handiena adieraziko da, horretarako pertzepcio testak burutu dituzte Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako ehun emakume elebidunek.

**Gako-hitzak:** Ahots seduzitzalea, azentua, intonazioa, emozioak, euskara

### 1. Sarrera

Ahotsa hiru osagai-motaren ondorioz sortzen da: soinu-ezaugarriak, mekanismo fisiologikoak eta produkzio akustikoa. Morenok eta lankideek (2010) hiru alde horiek kontuan hartuta, era honetan azaltzen dute zer den fenomeno hau:

El fenómeno vocal es el resultado de la combinación de cualidades sonoras como el tono, la intensidad y el timbre y es desarrollado a través de mecanismos fisiológicos mediante tareas relacionadas con la producción acústica. (Moreno eta lank., 2010: 9)

Ahotsaren bidez hainbat funtzio lortzen ditugu; esaterako, entzulea asaldatzea, lasaitzea edota iraintzea, geure geureak diren ezaugarriak ere ematen ditugu ezagutarazteria; esaterako, hitz egiten duenaren generoaren berri izan dezakegu, eta horretan badaude parametro bereizle; adibidez, Mora eta Cobeta (2013) autoreek esaten dutenaren ildotik, ahots-tonua (emakumeetan gizonezkoetan baino altuagoa da), bolumena, ahots tinbrea, intonazio patroiak eta ezaugarri linguistikoak nahiz paralinguistikoak, baita hizkuntzarekin zerikusirik ez duen morfología fisikoa ere.

Arazo fisikoen edota gaixotasunen berri ere izan dezakegu ahotsaren bidez, batez ere, aipatutako hiru osagai-motaren batean aldaketak gertatzen direlako; esaterako, Alzheimerra, Parkinsona edota esklerosia gaixotasunek disprosodia edo prosodia-eza izaten dute:

La enfermedad de Parkinson se caracteriza también por disprosodia y disartria. La prosodia es la melodía del lenguaje, es decir, la combinación de la entonación,

---

<sup>3</sup> Lan hau GIU 22/16 eta IT 1028/16 erreferentziadun proiektuen barnean egin da.

pronunciación, ritmo de habla y estrés silábico, que aportan tanto información lingüística como no lingüística. (Sanabria, García, Ahumada, 2013: 285).

Gainera, aurretiko lanetan ikusi izan dugu ahotsak jarreren, emozioen eta intentzioen berri ematen digula (Gaminde eta lank., 2014; Gaminde, 2007, 2010; Garay eta lank., 2011; Sainz eta lank., 2008; Navas eta lank., 2004, 2005, 2007), aipatutako informazio paralinguistiko nahiz ez linguistiko horiek aztertzeko tasun akustikoak erabili izan dira. Oraingo honetan, hiru ahotsek zer sugeritzen duten aztertzen da izaerari, itxurari eta estatusari dagokionez, jakina da, gizartean ikasitako edota jasotako aurreiritziek (Del Olmo, 2005) horretan eragina izan dezaketela, gainera, tasun akustikoetan oinarrituz (F0, energía eta iraupena) ahots horiek deskribatzen dira.

## 2. Metodología

Lan hau burutzeko bi baliabide erabili izan dira: hiru mutil gazteren ahotsa esaldi bera adieraziz grabatuta eta galdelegia. Grabazioari dagokionez, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako hiru ikasle gazte hautatu ziren, guztiak mutilak, horrela aukeratuak izan ziren ahots-mota ezberdina pertzibitu zitekeelako, guztiak hauxe esaten zuten:

“Errigoiti eta Gernika artean Citroen Xara motako auto bat bidetik irten eta irauli egindar”.

Grabazio horietan *Praat* softwarea (Boersma eta Weenink, 2017) erabiliz hiru izari akustikoren bost tasunak aztertu ziren.

Galdelegiari dagokionez, bi atal ditu; alde batetik, erantzuleen datu orokorrei buruzko informazioa eskatu zaie (jaiotze-urtea, generoa, herria, ama-hizkuntza eta ikas-eredua); bestetik, hiru ahotsei buruzko kalifikatzaile zerrenda eman zaie Likert eskalaren araberako ezer ez, apur bat, nahiko ala asko markatzeko. Entzun ahala, kalifikatzaile bakoitzaren ondoan, pertzibitzen dutena ezer ez, apur bat, nahiko ala asko den markatu behar dute. Kalifikatzaile guztiak hiru multzotan agertzen dira, bat izaerari dagokio eta beste biak itxurari eta estatusari.

Otsailean zehar Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan hirugarren mailan ikasten ari ziren hirurogeita hamabost neskari pasatu zitzaien galdelegia eta grabazio bakoitza entzun ondoren, galdelegiko kalifikatzaile bakoitzaren ondoan Likert eskalako maila bakoitzean X bat jarri behar zuten. Datuak Excel eta SPSS programen bidez aztertu ziren.


## 3. Ahotsen ezaugarri prosodikoak

Ahotsen ezaugarri prosodikoak aztertzen makro prosodia eta mikro prosodia bereiziko ditugu. Makro prosodian testu osoaren neurketak aztertuko ditugu eta mikro prosodian, berriz, silaben neurketak. Erabili ditugun izari akustikoak oinarrizko maiztasuna edo f0 (Hz.), energía (db.) eta iraupena (ms.) dira.

F0ri dagokionez, batezbesteko osoa ( $Xf_0$ ) eta  $f_0$ ren heinen batezbestekoa ( $Hf_0$ ) aztertu ditugu. Ahots bakoitzaren emaitzak 1. taulan agertzen dira (1. irudiko grafikoa).

Ahotsa	Xf0	Hf0
1	116,89	72,54
2	144,58	51,29
3	108,97	39,64

1. taula: F0ren batez besteko osoa eta heinen batez bestekoa.




1. irudia: Hiru ahotsetan Xf0ren tea Hf0ren emaitzak.

Energiari dagokionez, batezbesteko osoa (Xdb) eta energiaren heinen batezbestekoa (Hdb) aztertu ditugu. Ahots bakoitzaren emaitzak 2. taulan agertzen dira (2. irudiko grafikoa).

Ahotsa	Xdb	Hdb
1	76,78	26,89
2	74,18	22,77
3	76,05	28,05

2. taula: Energiaren batezbesteko osoa eta heinen batezbestekoa.




2. irudia: Hiru ahotsetan Xdbren eta Hdbren emaitzak.

Iraupenaren datuak 3. taulan ematen dira; hizketa denbora (H.D.), beronen ehunekoa (% H. D.), etenen denbora (E.D), beronen ehunekoa (% E.D.) eta testuaren denbora osoa ematen ditugu. Lehen informatzaileak denborarik luzeena erabili du eta etenen denborarik luzeena ere bai; bigarren informatzaileak denbora osorik laburrena erabili du eta etenen denborarik laburrena hirugarren informatzaileak erabili du.

	H.D.	% H.D	E.D.	% E.D.	Osoa
1. ahotsa	4440	91,17	430	8,83	4870
2. ahotsa	4370	96,47	160	3,53	4530
3. ahotsa	4700	98,33	80	1,67	4780

3. Taula: Iraupenaren datuak hiru ahotsetan.

Azkenik, hizketa abiada kalkulatu dugu informatzaile bakoitzeko. Kalkulu hau egiteko, etenen denbora kendu dugu eta talde prosodikoen denbora baino ez dugu erabili. Emaitzak antzekoak dira hiru ahotsekin: 1. ahotsak 7,21 silaba segundoko erabiltzen ditu, bigarrenak 7,19 eta hirugarrenak 7,05 (3. irudiko grafikoa)



3. irudia: Ahots bakoitzaren hizketa abiada.

Mikro prosodian datu zehatzagoak aurki ditzakegulakoan, silaben neurketak egin ditugu; neurtu ditugun izari akustikoak iraupena, f0 eta energia izan dira.

4. taulan informatzaile bakoitzaren silaben iraupenaren batezbestekoak, desbideratzeak, minimoak, maximoak eta heinak ematen dira. Ikus daitekeen bezala, bigarren informatzailearen silabak laburrenak dira eta hirugarrenarenak, berri, luzeenak; hala ere, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	N	x	sd	min	max	heina
1	32	139,06	41,14	50	240	190
2	32	132,50	33,89	60	210	150
3	33	141,52	38,42	40	240	200

4. taula: Silaben iraupenaren batezbestekoak, desbideratzeak, minimoak, maximoak eta heinak.

Xf0ren datuak 5. taulan agertzen dira, hirugarren informatzaileak grabeena dauka eta bigarren informatzaileak akantuena. ANOVA probaren arabera alde horiek estatistikoki esanguratsuak dira ( $F = (a.m.: 2) 158,883$ ;  $p = 0,000$ ), Tukeyren post hoc proba eginez gero, informatzaile guztien arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira eta denak bereizten dira.

	N	x	sd	min	max	heina
1	32	117,98	9,08	94,44	135,23	40,79
2	32	143,42	7,20	125,33	163,09	37,76
3	33	109,11	7,71	88,61	124,11	35,50

5. taula: F0ren datuak.

Hf0ren datuak 6. taulan ikus daitezke; batezbestekorik handiena lehen informatzaileak dauka eta bigarrenaren eta hirugarrenaren arteko aldea txikia da. Aldea ANOVAREN arabera estatistikoki esanguratsua da ( $F = (a.m.: 2) 3,818$ ;  $p = 0,025$ ). Hala ere, Tukeyren post hoc probaren arabera alde hau esanguratsua da lehen eta bigarren informatzailearen artean bereizteko soilik.

	<b>N</b>	<b>x</b>	<b>sd</b>	<b>min</b>	<b>max</b>	<b>heina</b>
<b>1</b>	32	22,04	18,30	0,79	67,01	66,22
<b>2</b>	32	13,70	10,49	3,68	52,51	48,83
<b>3</b>	33	15,04	7,97	1,90	34,16	32,26

6. taula: Hf0ren datuak.

Xf0 eta Hf0 tasunen korrelazioak kalkulatzen baditugu ( $r = -0,410$ ,  $p = 0,000$ ) ikusten dugu, berori esanguratsua den arren, nahikoa txikia dela.

Xdbren datuak 7. taulan ikus daitezke; batezbestekorik handiena lehen informatzaileak dauka eta txikieta bigarrenak, hirugarren eta lehen informatzaileen arteko aldeak oso txikiak dira. Aldea ANOVAREN arabera estatistikoki esanguratsua da ( $F = (a.m.: 2) 6,043$ ;  $p = 0,003$ ). Hala ere, Tukeyren post hoc probaren arabera alde hau esanguratsua da bigarren informatzailea beste bietatik bereizteko.

	<b>N</b>	<b>x</b>	<b>sd</b>	<b>min</b>	<b>max</b>	<b>heina</b>
<b>1</b>	32	76,92	3,81	70,39	85,91	15,52
<b>2</b>	32	73,84	3,60	66,99	81,58	14,59
<b>3</b>	33	76,32	3,88	67,72	83,29	15,57

7. taula: Xdbren datuak.

Azkenik, 8. taulako Hdb datuak aztertzen baditugu, ikusten dugu heinaren batezbestekorik altuena lehen informatzaileak daukala eta txikieta bigarrenak. Aldea ANOVAREN arabera ez da estatistikoki esanguratsua.

	<b>N</b>	<b>x</b>	<b>sd</b>	<b>min</b>	<b>max</b>	<b>heina</b>
<b>1</b>	32	13,78	6,75	3,15	27,71	24,56
<b>2</b>	32	10,68	6,14	1,63	20,53	18,90
<b>3</b>	33	12,64	7,53	1,09	24,86	23,77

8. taula: Hdbren datuak.

Xdb eta Hdb tasunen korrelazioak kalkulatzen baditugu ( $r = 0,983$ ,  $p = 0,000$ ) ikusten dugu, korrelazio positibo eta handia dela.

Hiru izari akustikoetan oinarritutako bost tasunen eragina eta aldeak aztertuta argi agertzen da informatzaileak gehien bereizten dituena Xf0 dela.

#### 4. Erantzunen azterketa

Erantzunen azterketa hiru azpiataletan banatuta aurkeztuko dugu; lehen azpiatalean informatzaileen balizko izaerari dagozkionak emango ditugu, bigarrenean itxura fisikoaren gainekoak eta hirugarrenean estatus sozialari dagozkionak.

##### 4.1. Izaera

Ahotsak entzuleengan eragin ditzakeen ahotsaren jabearen izaeraren gaineko iritziak eta usteak neurtzeko bost galdera erabili ditugu: (a) Atsegina, (b) Ausarta, (c) Lasai, (d) Harroa eta (e) Zentzuduna. Jarraian galdera bakoitzeko entzuleen erantzunen emaitzak aurkeztuko ditugu.

(a) galderari dagozkion erantzunak 9. taulan ikusten dira; ahots guztien irunekorik altuenak 2 kategorian kokatzen dira eta aldeak ez dira estatistikoki

esanguratsuak. Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (189) da, gero bigarrenarena (177) eta baxuena lehenarena (164).


	1		2		3		4	
Ahotsa	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	15	20,27	32	43,24	23	31,08	4	5,41
2	14	18,92	29	39,19	19	25,68	12	16,22
3	8	10,81	29	39,19	25	33,78	12	16,22

9. taula: Atsegina izaerari dagozkion datuak hiru ahotsak kontuan izanda.

(b) galderari dagozkion erantzunak 10. taulan aurkezten dira; lehen ahotsaren ehunekorik altuena 2 kategorian kokatzen da, bigarren ahotsarena 1 kategorian eta hirugarren ahotsarena 3 kategorian (4. Irudiko grafikoa); aldeok estatistikoki esanguratsuak dira ( $X^2 = (a.m.: 6)$  105,543,  $p = 0,000$ ). Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (206) da, gero lehenarena (159) eta baxuena bigarrenarena (104).

	1		2		3		4	
Ahotsa	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	13	17,81	35	47,95	24	32,88	1	1,37
2	50	67,57	19	25,68	4	5,41	1	1,35
3	6	8,11	16	21,62	40	54,05	12	16,22

10. taula: Ausarta izaerari dagozkion datuak hiru ahotsak kontuan izanda.




4. irudia: (b) galderari dagozkion erantzunak.

(c) galderari dagokion erantzunak 11. taulan aurkezten dira; lehen ahotsaren ehunekorik altuena 2 kategorian kokatzen da, bigarren ahotsarena 4 kategorian eta hirugarren ahotsarena 2 kategorian (5. irudiko grafikoa); aldeok estatistikoki esanguratsuak dira ( $X^2 = (a.m.: 6)$  33,722,  $p = 0,000$ ). Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena bigarren informatzailearena (217) da, gero hirugarrenarena (170) eta baxuena lehenarena (152).

	1		2		3		4	
Ahotsa	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	20	27,78	30	41,67	16	22,22	6	8,33
2	9	12,16	15	20,27	22	29,73	28	37,84
3	15	20,27	29	39,19	23	31,08	7	9,46

11. taula: Lasaietako izaerari dagozkion datuak hiru ahotsak kontuan izanda.




5. irudia: (c) galderari dagokion erantzunak.

(d) galderari dagozkion erantzunak 12. taulan aurkezten dira; lehen ahotsaren ehunekorik altuena 3 kategorian kokatzen da, bigarren ahotsarena 1 kategorian eta hirugarren ahotsarena 3 kategorian (6. irudiko grafikoa); aldeok estatistikoki esanguratsuak dira ( $X^2 = (a.m.: 6) 65,841, p = 0,000$ ). Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (190) da, gero lehenarena (175) eta baxuena bigarrenarena (102).

Ahotsa	1		2		3		4	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	17	22,97	23	31,08	24	32,43	10	13,51
2	51	68,92	19	25,68	3	4,05	1	1,35
3	11	15,07	20	27,40	29	39,73	13	17,81

12. taula: Harroa izaerari dagozkion erantzunak.




6. irudia: (d) galderari dagokion erantzunak.

(e) galderari dagozkion erantzunak 13. taulan ikusten dira; lehen ahotsaren ehunekorik altuena 3 kategorian kokatzen da, bigarrenarena 2 kategorian eta hirugarrenarena 3 kategorian (7. irudiko grafikoa); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (200) da, gero lehenarena (194) eta baxuena bigarrenarena (179).

Ahotsa	1		2		3		4	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	4	5,41	25	33,78	40	54,05	5	6,76
2	4	5,41	41	55,41	23	31,08	6	8,11
3	3	4,05	27	36,49	33	44,59	11	14,86

13. taula: Zentzuduna izaerari dagozkion datuak hiru ahotsak kontuan izanda.



7. irudia: (e) galderari dagokion erantzunak.

Azpiatal honetako galderen puntuazio absolutuak erabilita ikus dezakegu zein den, hemen galdetu diren ezaugarrien arabera, bakoitzaren ahotsaren bidez islatzen den informatzaileen balizko izaera (14. taula). Horren arabera f0rik baxuena daukan hirugarren informatzailea da atsegina, ausartena, harroena eta zentzudunena. Lehen informatzailea, f0 ertaina daukana, bigarren lekuau agertzen da (a), (b), (d) eta (e) galderetan. Azkenik, f0rik altuena daukan informatzailea da lasaiena, baina gainerako galdera guztietau puntuaziorik baxuenak dauzkana.


Informatzailea	(a) galdera	(b) galdera	(c) galdera	(d) galdera	(e) galdera
1	164	159	152	175	194
2	177	104	217	102	179
3	189	206	170	190	200

14. taula: Ahotsaren bidez islatzen den informatzaileen balizko izaera.

Informatzaileen ahotsen bidez egiten diren izaeren gaineko inferentzieta jakiteko ahotsak ondo bereizten diren eta aldagai bakoitzaren garrantzia kalkulatzeko korrespondentzia anitzunen azterketa egin dugu. 15. taulan ereduaren laburpena erakusten da. 8. irudiko grafikoan erakusten den bezala, planoan ahots bakoitza ondo bereizita agertzen da.

Dimentsioa	Cronbachen $\alpha$	Azalduko bariantza	
		Denetara (Autobalioak)	Inertzia
1	0,593	1,901	0,380
2	0,523	1,720	0,344
Denetara		3,622	0,724
Batezbestekoa	0,560	1,811	0,362

15. taula: Ereduaren laburpena.




8. irudia: Ahots bakoitzaren tokia planoan.

Diskriminatze neurriak egin den galdera bakoitzaren arabera aztertzen baditugu 16. taulako datuak lortzen dira; Ausarta eta Harroa izatea dira gehien eragiten dutenak. 9. irudiko grafikoan denen eragina erakusten da.

	<b>1. Dimentsoia</b>	<b>2. Dimentsoia</b>	<b>Batezbestekoa</b>
<b>Atsegina</b>	0,309	0,255	0,282
<b>Ausarta</b>	0,682	0,338	0,510
<b>Lasaia</b>	0,067	0,472	0,270
<b>Harroa</b>	0,449	0,563	0,506
<b>Zentzuduna</b>	0,394	0,092	0,243

16. taula: Izaera ezberdinen balioak dimentsio bakoitzean.



9. irudia: Izaera ezberdinen eragina diskriminazioan.

#### 4.2. Itxura


Informatzaileen itxura fisikoaren gainean bost galdera egin ditugu: (a) altua, (b) gihartsua, (c) argala, (d) beltzarana eta (e) erakargarria. Jarraian galdera bakoitzeko entzuleen erantzunen emaitzak aurkeztuko ditugu.

(a) galderari dagozkion erantzunak 17. taulan aurkezten dira; ahots bakoitzaren ehunekorik altuena zein kategoriatan gertatzen den aztertzen badugu, ikus dezakegu lehen ahotsaren ehunekorik altuena 3 kategorian kokatzen dela, bigarren ahotsarena 1 eta 2 kategorietan eta hirugarren ahotsarena 3 kategorian (10. irudiko grafikoa); aldeok estatistikoki esanguratsuak dira ( $\chi^2 = (a.m.: 6) 63,584$ ,  $p = 0,000$ ). Puntuazio absolutuei

bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (228) da, gero lehenarena (207) eta baxuena bigarrenarena (150).

Ahotsa	1		2		3		4	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	1	1,35	24	32,43	38	51,35	11	14,86
2	25	34,25	25	34,25	17	23,29	6	8,22
3	3	4,05	11	14,86	37	50	23	31,08

17. taula: Altua itemari dagozkion erantzunak ahots bakoitzean.




10. irudiko grafikoa: (a) galderari dagozkion erantzunak.

(b) galderari dagozkion erantzunak 18. taulan ematen dira; lehen ahotsaren ehunekorik altuena 3 kategorian kokatzen da, bigarren ahotsarena 1 kategorian eta hirugarren ahotsarena 3 kategorian (11. irudiko grafikoa); aldeok estatistikoki esanguratsuak dira ( $\chi^2 = (a.m.: 6)$  101,673,  $p = 0,000$ ). Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (221) da, gero lehenarena (187) eta baxuena bigarrenarena (107).

Ahotsa	1		2		3		4	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	12	16,22	18	24,32	37	50	7	9,46
2	46	62,16	23	31,08	5	6,76	0	0
3	2	2,70	15	20,27	39	52,70	18	24,32

18. taula: Gihartsua itemari dagozkion erantzunak ahots bakoitzean.




11. irudia: (b) galderari dagozkion erantzunak.

(c) galderari dagozkion erantzunak 19. taulan agertzen dira; lehen ahotsaren ehunekorik altuena 2 kategorian kokatzen da, bigarren ahotsarena 4 kategorian eta hirugarren ahotsarena 2 kategorian (12. irudiko grafikoa); aldeok estatistikoki esanguratsuak dira ( $\chi^2 = (a.m.: 6)$  69,274,  $p = 0,000$ ). Puntuazio absolutuei bagagozkie,

puntuaziorik altuena bigarren informatzailearena (231) da, gero lehenarena (163) eta baxuena hirugarrenarena (145).

	1		2		3		4	
Ahotsa	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	17	22,97	29	39,19	24	32,43	4	5,41
2	6	8,11	9	12,16	29	39,19	30	40,54
3	22	29,73	35	47,30	15	20,27	2	2,70

19. taula: Argala itemari dagozkion erantzunak ahots bakoitzean.



12. irudia: (c) galderari dagozkion erantzunak.

(d) galderari dagozkion erantzunak 20. taulan ikusten dira; ahots guztien ehunekorik altuenak 1 kategorian kokatzen dira; aldeak, hala ere, estatistikoki esanguratsuak dira ( $\chi^2 = (a.m.: 6) 19,047$ ,  $p = 0,004$ ). Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (138) da, gero lehenarena (109) eta baxuena bigarrenarena (98).


	1		2		3		4	
Ahotsa	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	54	72,97	8	10,81	9	12,16	3	4,05
2	56	75,68	12	16,22	6	8,11	0	0
3	39	52,70	16	21,62	9	12,16	10	13,51

20. taula: Beltzarana itemari dagozkion erantzunak ahots bakoitzean.

Azkenik, (e) galderari dagozkion erantzunak 21. taulan erakusten dira; lehen ahotsaren ehunekorik altuenak 1 eta 2 kategorietan kokatzen dira, bigarren ahotsarena 1 kategorian eta hirugarren ahotsarena 2 kategorian (13. irudiko grafikoa); aldeok estatistikoki esanguratsuak dira ( $\chi^2 = (a.m.: 6) 39,542$ ,  $p = 0,000$ ). Puntuazio absolutuei bagagozkie, puntuaziorik altuena hirugarren informatzailearena (186) da, gero lehenarena (138) eta baxuena bigarrenarena (117).

	1		2		3		4	
Ahotsa	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
1	29	39,19	29	39,19	13	17,57	3	4,05
2	39	52,70	28	37,84	6	8,11	1	1,35
3	14	18,92	24	32,43	20	27,03	16	21,62

21. taula: Erakargarria itemari dagozkion erantzunak ahots bakoitzean.



13. irudia: (d) galderari dagozkion erantzunak.

Azpiatal honetako galderen puntuazio absolutuak erabilita, ikus dezakegu zein den, hemen galdetu diren ezaugarrien arabera, informatzaile bakoitzaren itxura fisikoa ahotsaren bidez islatuta (22. taula). Ikusten den moduan, f0rik baxuena daukan informatzailea da altuena, gihartsuena, beltzararen eta erakargarriena. Galdera hauetan guztietai bigarren lekuan agertzen da lehen informatzailea, hau da, f0 ertaina daukana. Bigarren informatzailea f0rik altuena daukana galdera hauetan azken postuan agertzen da eta argala izatearen kategorian baino ez da agertzen lehenen.


Informatzailea	(a) galdera	(b) galdera	€ galdera	(d) galdera	€ galdera
1	207	187	163	109	138
2	150	107	231	98	117
3	228	221	145	138	186

22. taula: Informatzaile bakoitzaren itxura fisikoa ahotsaren bidez islatuta.

Informatzaileen ahotsen bidez egiten diren euron itxura fisikoaren gaineko inferentzietai jakiteko ahotsak ondo bereizten diren eta aldagai bakoitzaren garrantzia kalkulatzeko korrespondentzia anitzunen azterketa egin dugu lehen bezala. 23. taulan ereduaren laburpena erakusten da. 14. irudiko grafikoan erakusten den bezala, planoan ahots bakoitza ondo bereizita agertzen da.

Dimentsioa	Cronbachen $\alpha$	Azalduko bariantza	
		Denetara (Autobalioak)	Inertzia
1	0,674	2,172	0,434
2	0,507	1,682	0,336
Denetara		3,853	0,771
Batezbestekoa	0,601	1,927	0,385

23. taula: Ereduaren laburpena.




14. irudia: Ahots bakoitzaren tokia planoan.

Diskriminatze neurriak egin den galdera bakoitzaren arabera aztertzen baditugu, 24. taulako datuak lortzen dira; bertan agertzen den moduan, Gihartsua eta Altua izatea dira gehien eragiten dutenak. 15. irudiko grafikoan denen eragina erakusten da.

	1. Dimentsoia	2. Dimentsoia	Batezbestekoa
<b>Altua</b>	0,506	0,519	0,512
<b>Gihartsua</b>	0,752	0,544	0,648
<b>Argala</b>	0,400	0,320	0,360
<b>Beltzarana</b>	0,124	0,071	0,097
<b>Erakargarria</b>	0,390	0,229	0,309

24. taula: Itxuraren itemen balioak dimentsoi bakoitzean.



15. irudia: Itxurari dagozkion itemen diskriminazio-neurriak.

#### 4.3. Estatusa

Informatzaileen estatus sozialaren gainean entzuleei egin dizkiegun galderak lau izan dira: (a) goi mailako ikasketak, (b) goi mailako lanbidea, (c) euskara maila eta (d) Bizilekua hau da herri txikia, handia edo hiria.

(a) galderari dagozkion erantzunak 25. taulan batzen dira; ahotsek isla dezaketen ikasketa mailen arabera informatzaile gehienak 2 eta 3 kategorietan banatuta agertzen

dira, agertzen diren aldeak ez dira oso handiak eta ez dira estatistikoki esanguratsuak. Puntuazio absolutuei bagagozkie, ikasketa mailarik altuena hirugarren informatzaileak (198) duka, gero bigarrenak (189) eta baxuena lehenak (182).

<b>Ahotsa</b>	<b>1</b>		<b>2</b>		<b>3</b>		<b>4</b>	
	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>
<b>1</b>	4	5,48	32	43,84	34	46,58	3	4,11
<b>2</b>	6	8,11	28	37,84	33	44,59	7	9,46
<b>3</b>	5	6,76	21	28,38	41	55,41	7	9,46

25. taula: Goi mailako ikasketak dituzten galderari erantzunak.

(b) galderari dagozkion erantzunak 26. taulan batzen dira; ahotsen isla dezaketen ikasketa mailen arabera informatzaile gehienak 2 kategorian kokatzen dira; aldeak ez dira oso handiak eta ez dira estatistikoki esanguratsuak. Puntuazio absolutuei bagagozkie, lanbiderik onena hirugarren informatzaileak (178) duka, gero lehenak (171) eta txarrena bigarrenak (157).

<b>Ahotsa</b>	<b>1</b>		<b>2</b>		<b>3</b>		<b>4</b>	
	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>
<b>1</b>	8	10,81	36	48,65	29	39,19	1	1,35
<b>2</b>	17	22,97	32	43,24	24	32,43	1	1,35
<b>3</b>	8	10,81	33	44,59	28	37,84	5	6,76

26. taula: Goi mailako lanbideak dituzten galderari erantzunak.

Euskara mailari dagozkion erantzunak 27. taulan agertzen dira; kasu honetan erantzun gehienak 3 kategorian batzen dira; alabaina, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Puntuazio absolutuei begira euskara mailarik onena hirugarren informatzaileari (211) egozten zaio, gero lehenari (199) eta txarrena bigarrenari (195).

<b>Ahotsa</b>	<b>1</b>		<b>2</b>		<b>3</b>		<b>4</b>	
	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>
<b>1</b>	5	6,76	24	32,43	34	45,95	11	14,86
<b>2</b>	4	5,41	26	35,14	37	50,00	7	9,46
<b>3</b>	5	6,76	15	20,27	40	54,05	14	18,92

27. taula: Ahots ezberdinek duten euskara maila galderari erantzunak.

(d) galderari dagozkion erantzunak 28. taulan batzen dira; ahotsen isla dezaketen ikasketa mailen arabera informatzaile gehienak 2 eta 3 kategorietan banatuta agertzen dira, agertzen diren aldeak ez dira oso handiak eta ez dira estatistikoki esanguratsuak. Edozelan ere, zenbaki absolutuei bagagozkie, ikusten dugu bigarren informatzailea (211), eduki dituen puntuazioen arabera, hiritarragotzat jotzen dela hirugarrena (201) eta lehena baino (190).

<b>Ahotsa</b>	<b>1</b>		<b>2</b>		<b>3</b>		<b>4</b>	
	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>	<b>kopurua</b>	<b>%</b>
<b>1</b>	14	18,92	21	28,38	22	29,73	17	22,97
<b>2</b>	12	16,22	15	20,27	19	25,68	28	37,84
<b>3</b>	15	20,27	17	22,97	16	21,62	26	35,14

28. taula: Ahots ezberdinaren bizilekuaren inguruko erantzunak.

Azpiatal honetako aldagaia estatistikoki esanguratsuak ez diren arren, ikus dezakegu zein den arrakasta sozialaren indizeetan informatzaile bakoitzaren lekua

rankingean puntuazio absolutuen arabera (29. taula). Hirugarren informatzaileak, hau da, f0rik baxuena daukanak puntuaziorik altuenak dauzka (a), (b) eta (c) galderetan.


Informatzailea	(a) galdera	(b) galdera	(c) galdera	(d) galdera
1	182	171	199	190
2	189	157	195	211
3	198	178	211	201

29. taula: arrakasta sozialaren indizeetan informatzaile bakoitzaren lekua rankingean puntuazio absolutuen arabera.

Atal honekin amaitzeko, informatzaileen izaeran eta itxura fisikoan estatistikoki esanguratsuak diren datuak aztertuta, korrespondentzia aniztunen azterketaren emaitzak aurkeztuko ditugu jarraian ahotsak ondo bereizten diren ikusteko baita jakiteko bereizkuntzan zeintzuk diren gehien eragiten duten galderak ere. Izaeraren gainean egineko galderetan estatistikoki esanguratsuak (b) Ausarta, (c) Lasai eta (d) Harroa izan dira eta itxura fisikoaren gaineko galderetan bostak. 30. taulan ereduaren laburpena erakusten da. 16. irudiko grafikoan erakusten den bezala, planoan ahots bakoitza ondo bereizita agertzen da.

Dimentsioa	Cronbachen $\alpha$	Azalduko bariantza	
		Denetara (Autobalioak)	Inertzia
1	0,797	3,306	0,413
2	0,605	2,125	0,266
Denetara		5,431	0,679
Batezbestekoa	0,722	2,716	0,339

30. taula: Ereduaren laburpena.




16. irudia: Planoan ahots bakoitzaren tokia.

Diskriminatzel neurriak egin den galdera bakoitzaren arabera aztertzen baditugu 31. taulako datuak lortzen dira; Gihartsua eta Ausarta izatea dira gehien eragiten dutenak. 17. irudiko grafikoan denen eragina erakusten da.

	<b>1. Dimentsoia</b>	<b>2. Dimentsoia</b>	<b>Batezbestekoa</b>
<b>Ausarta</b>	0,674	0,422	0,548
<b>Lasaia</b>	0,148	0,088	0,118
<b>Harroa</b>	0,560	0,283	0,421
<b>Altua</b>	0,411	0,408	0,409
<b>Gihartsua</b>	0,684	0,481	0,583
<b>Argala</b>	0,422	0,270	0,346
<b>Beltzarana</b>	0,087	0,003	0,045
<b>Erakargarria</b>	0,320	0,170	0,245

31.taula: Diskriminatze neurriak egin den galdera bakoitza kontuan izanda.



17. irudia: Itemen diskriminazio-maila.

## 5. Ondorioak

Hiru izari akustikoetan oinarritura ( $F_0$ , energia eta iraupena) mutil gazteen grabazioen bost tasunen eragina eta aldeak aztertu dira ( $Xf_0$ ,  $Hf_0$ ,  $Xdb$ ,  $Hdb$  eta iraupena), horrenbestez, ahots bakoitzaren ezaugarriak ondorengo lerroetan azaltzen dira.

Lehen ahotsak du iraupenik luzeena, batez ere etenen denborarik luzeena egiten du, gainera, hizketa abiadarik handiena ere badu eta energia batez besteko altuena. Bigarren ahotsak, batez besteko oinarrizko maiztasun altuena du, ahots agudoena da, eta lasaiena, argalena eta besteak baino hiritarragotzat jotzen da. Hirugarren ahotsari dagokionez, batez besteko oinarrizko maiztasunik baxuena du, hizketa denborarik luzeena ere badu, baina eten denborarik txikiena, hizketa abiadarik txiena ere badu, esan daiteke ahotsik grabeena duela. Izaerari, itxurari eta estatusari dagokionez, jasotako puntuazio absolutuen arabera, era honetan pertzibitu dute entzun duten neskek: atseginena, ausartena, harroena, zentzudunena, altuena, gihartsuena, beltzaranena, erakargarriena, ikasketa mailarik altuena, goi mailako lanbidea duen mutila, euskara mailarik onena duena.

Beraz, ondorioztatu daiteke batez besteko oinarrizko maiztasunik baxuena eta horrenbestez ahotsik grabeena duen mutilaren ahotsak puntuazio absoluturik altuenak lortu dituela hiru ataletan; alegia, izaeran, itxuran eta estatusean.

## 6. Bibliografía

- Boersma, P. eta Weenink, D. (2013). *Praat: doing phonetics by computer*, Version 5.1. [Computer program]. Recuperado de <http://www.praat.org>
- Del Olmo, M. (2005). Prejuicios y estereotipos: un replanteamiento de su uso y utilidad como mecanismos sociales. *XXI Revista de Educación*, 7, 13-23.
Hiru silabako berbetan lortu ditugun batezbestekoak eta desbideratzeak 7. taulan ematen dira; azentu aurrekoak (aa), azentuduna eta azentuaren ostekoak (ao) bereiz aurkezten dira. Ikusten den bezala, silabarik luzeena azentuaren aurrekoak da M1, M3, N1 eta N2 informatzaileen emaitzetan, azentuduna N3 informatzailearen kasuan eta azentu ostekoak M2ren kasuan.

	aa		+ Azentua		ao	
	$\bar{x}$	sd	$\bar{x}$	sd	$\bar{x}$	sd
<b>M1</b>	104	6,99	100	14,14	94	8,43
<b>M2</b>	89	17,29	87	15,67	101	16,63
<b>M3</b>	84	13,50	81	15,95	64	6,99
<b>N1</b>	127	19,47	98	9,19	103	13,37
<b>N2</b>	100	10,54	98	13,17	91	11,97
<b>N3</b>	111	14,49	115	10,80	93	9,49

7. taula: Hiru silabako berba azentudunen eta azentu bakoen iraupenaren batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaile bakoitzeko.

Silaba azentudunen eta azentu bakoen batezbestekoak aldeak txikiak dira eta N1 eta N3 informatzaileen kasuetan baino ez dira estatistikoki esanguratsuak (8. taula).

Informatzailea	z	p	+Azentua	-Azentua
<b>M1</b>	-0,046	*0,964	15,60	15,45
<b>M2</b>	-1,345	*0,179	12,50	17,00
<b>M3</b>	-1,183	*0,237	18,10	14,20
<b>N1</b>	-2,323	0,020	10,35	18,08
<b>N2</b>	-0,204	*0,838	15,95	15,28
<b>N3</b>	-2,609	0,009	21,30	12,60

8. taula: Mannen Uren emaitzak informatzaile bakoitzeko silaba azentudunen eta azentu bakoen batezbestekoak aldeen esangura estatistikoari dagokionez.

Silaba azentu bakoetan azentu aurrekoak iraupen luzeagoa dauka ostekoak baino M2 informatzailearen kasuan izan ezik; aldeak estatistikoki esanguratsuak dira M1, M3, N1 eta N3 informatzaileen emaitzekin.

Energia:

9. taulan silaba biko berben energiaren batezbestekoak eta desbideratzeak ematen ditugu; M1en kasuan izan ezik gainerako guztietaan silaba azentudunak energia altuagoa dauka azentu bakoak baino.

	+ Azentua		-Azentua	
	$\bar{x}$	sd	$\bar{x}$	sd
<b>M1</b>	82,64	0,45	83,31	0,44
<b>M2</b>	83,62	0,72	83,14	0,70
<b>M3</b>	82,63	0,50	81,02	1,16
<b>N1</b>	83,82	0,46	83,75	0,72
<b>N2</b>	83,98	0,81	82,31	0,65
<b>N3</b>	79,75	0,63	77,50	1,92

9. taula: Silaba biko berba azentudunen eta azentu bakoen energiaren batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaile bakoitzeko.

10. taulan batezbestekoak aldeekin batera Mannen U probaren emaitzak ere ematen ditugu; batezbestekoak aldeak estatistikoki esanguratsuak dira informatzaile guztietaan M2 eta N1 informatzaileetan izan ezik.

Informatzailea	Aldea	z	p	+Azentua	-Azentua
<b>M1</b>	-0,67	-2,873	0,004	6,70	14,30
<b>M2</b>	0,48	-1,932	*0,053	12,85	8,15
<b>M3</b>	1,61	-2,948	0,003	14,40	6,60
<b>N1</b>	0,07	-0,189	*0,850	10,75	10,25
<b>N2</b>	1,67	-3,402	0,001	15,00	6,00
<b>N3</b>	2,25	-2,343	0,019	13,60	7,40

10. taula: Silaba azentudunen eta azentu bakoen energiaren aldea eta Mannen Uren emaitzak informatzaile bakoitzeko.

Hiru silabako berbetan lortu ditugun batezbestekoak eta desbideratzeak 11. taulan ematen dira; azentu aurrekoa (aa), azentuduna eta azentuaren ostekoa (ao) bereiz aurkezten dira. Oraingo honetan batezbestekorik altuena daukan silaba azentuduna da N1 informatzailearen emaitzetan izan ezik.

	aa		+ Azentua		ao	
	$\bar{x}$	sd	$\bar{x}$	sd	$\bar{x}$	sd
<b>M1</b>	80,87	1,03	82,35	0,49	83,23	0,57
<b>M2</b>	81,85	1,38	84,26	0,48	82,73	0,83
<b>M3</b>	80,73	1,55	82,49	0,77	81,65	0,75
<b>N1</b>	82,19	0,80	83,62	0,41	84,02	0,43
<b>N2</b>	81,91	1,37	84,89	0,65	83,06	1,03
<b>N3</b>	75,99	1,41	79,85	1,10	77,44	1,28

11. taula: Hiru silabako berba azentudunen eta azentu bakoen energiaren batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaile bakoitzeko.

Silaba azentudunaren eta azentu bakoen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak dira M1 eta N1 informatzaileen kasuetan izan ezik (12. taula).

Informatzailea	z	p	+Azentua	-Azentua
<b>M1</b>	-0,176	*0,860	15,90	15,30
<b>M2</b>	-3,739	0,000	23,80	11,35
<b>M3</b>	-2,794	0,005	21,85	12,33
<b>N1</b>	-0,880	*0,379	17,50	14,50
<b>N2</b>	-4,092	0,000	24,80	10,85
<b>N3</b>	-4,003	0,000	24,60	10,95

12. taula: Mannen Uren emaitzak informatzaile bakoitzeko silaba azentudunen eta azentu bakoen batezbestekoak aldeen esangura estatistikoari dagokionez.

Azentu bako silabetan azentu ostekoak energia altuagoa dauka azentu aurrekoak baino, aldea estatistikoki esanguratsua da M1, N1 eta N3 informatzaileen kasuetan.

Silaba biko berben emaitzakin azentuduna izateari edo ez izateari eragiten dioten hiru izarien eragina eta pisua aztertzeko erregresio logistikoa deritzon estatistikoa erabili dugu. 13. taulan izari bakoitzaren eraginaren esanguraren p-ren emaitza ematen dugu (kontuan har bedi estatistikoki esanguratsua izateko p 0,05 baino txikiagoa izan behar dela). Taularen datuei erreparatuta ikusten dugu f0 estatistikoki esanguratsua dela bost informatzaileren emaitzetan, energia lau informatzaileren kasuetan eta iraupena hiru kasutan. Beraz, esan dezakegu azentua bereiztean eraginik handiena f0k daukala, gero energiak eta azkenik iraupenak. Bestalde, f0rekin batera beste izariren bat estatistikoki esanguratsua denean ere, beronen p txikiagoa da. Kasu bakar batean (N1) da iraupena izari esanguratsua.

Informatzailea	Iraupena	F0	Energia
<b>M1</b>	*0,174	0,000	0,005
<b>M2</b>	*0,094	0,000	*0,068
<b>M3</b>	0,004	0,000	0,002
<b>N1</b>	0,003	*0,051	*0,764
<b>N2</b>	0,005	0,000	0,000
<b>N3</b>	*0,171	0,017	0,004


13. taula: Silaba biko izari bakoitzaren esangura estatistikoaren p-ren emaitza informatzaile bakoitzeko.

Hiru silabako berben emaitzak 14. taulan erakusten dira; f0 estatistikoki esanguratsua da lau informatzaileren emaitzetan, energia beste lau informatzaileren kasuetan eta iraupena kasu bitan. Kasu bakar batean (N1) iraupena esanguratsua den izari bakarra da eta M1 informatzaileren kasuan izari batek ere ez dauka eragin esanguratsurik.

Informatzailea	Iraupena	F0	Energia
<b>M1</b>	*0,808	*0,164	*0,518
<b>M2</b>	*0,221	0,000	0,000
<b>M3</b>	*0,226	0,000	0,008
<b>N1</b>	0,019	*0,828	*0,161
<b>N2</b>	*0,590	0,000	0,000
<b>N3</b>	0,023	0,000	0,000

14. taula: Hiru silabako izari bakoitzaren esangura estatistikoaren p-ren emaitza informatzaile bakoitzeko.

Informatzaileek erabiltzen dituzten izari akustikoen batezbestekoak erabilita sailkatzen ahalegintzen garenean dela multzokatze azterketa eginda (1. irudia), dela dimensio anitzun eskala (2. irudia) eginda, multzo nagusi bi agertzen zaizkigu non eta informatzaileen sexua erabatekoa den.




Atal hau mukurutzeko izarien aldakuntza koefizienteak eta izarien arteko korrelazioak emango ditugu informatzaile bakoitzeko.

15. taulan informatzaileen izari bakoitzaren aldakuntza koefizienteak ikus daitezke. Kasu guztietañ koefizienterik altuena iraupenak dauka, gero F0k eta azkenik energiak (3. irudia).

Informatzailea	Iraupena	F0	Energia
<b>M1</b>	11,65	11,38	1,31
<b>M2</b>	16,40	6,91	1,41
<b>M3</b>	18,84	7,08	1,52
<b>N1</b>	15,24	10,28	1,04
<b>N2</b>	11,89	8,91	1,71
<b>N3</b>	15,93	6,92	2,52

15. taula: Izari bakoitzaren aldakuntza koefizienteak informatzaile bakoitzeko.



3. irudia: Izarien aldakuntza koefizienteak informatzaile bakoitzeko

16. taulan izarien arteko korrelazioak ematen ditugu informatzaile bakoitzeko eta baita korrelazio esanguratsuak ere. F0ren eta energiaren arteko korrelazio positiboa ikus daiteke; berau esanguratsua da kasu guztietan eta M1 eta M2 informatzaileen kasuan nahikoa korrelazio handia agertzen da. F0ren eta iraupenaren arteko korrelazioak esanguratsuak dira N2 eta N3 informatzaileen datuekin, hala ere, korrelazioak nahikoa txikiak dira. Azkenik, iraupenaren eta energiaren arteko korrelazioak ez dira esanguratsuak.

	f0_iraupeña		f0_Energia		Iraupena_Energia	
	Korre	p	Korre	p	Korre	p
<b>M1</b>	0,171	*0,135	0,822	0,000	0,183	*0,110
<b>M2</b>	-0,149	*0,301	0,831	0,000	-0,075	*0,603
<b>M3</b>	0,101	*0,377	0,546	0,000	0,079	*0,494
<b>N1</b>	-0,008	*0,947	0,651	0,000	0,086	*0,455
<b>N2</b>	0,237	0,037	0,634	0,000	0,041	*0,232
<b>N3</b>	0,341	0,002	0,666	0,000	0,249	*0,028

16. taula: Izarien arteko korrelazioak eta euren esangura estatistikoa informatzaile bakoitzeko.

#### 4.2. Bokalaren formakinak

Bokalen formakinak orokorrean aztertuta lortzen ditugun batezbestekoak honako hauek dira: f1 716,18 hz. (sd.: 115,38), f2 1492, 63 (sd.:138,24) eta f3 2614,28 (sd.: 258,25).

Silaba azentudunen eta azentu bakoen araberako emaitzak 17. taulan erakusten direnak dira; aldeak estatistikoki esanguratsuak dira f1aren kasuan ( $T = (a.m.: 298) - 3,418$ ;  $p = 0,001$ ), gainerako formakinen kasuetan, ostera, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.


	<b>f1</b>		<b>f2</b>		<b>f3</b>	
	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>
<b>+ Azentua</b>	743,58	128,92	1503,77	142,65	2601,42	233,64
<b>- Azentua</b>	697,91	101,73	1485,21	135,11	2622,86	273,73

17. taula: “a” bokalaren formakinen batezbestekoak eta desbideratzeak silaba azentudunen eta azentu bakozen arabera.

Informatzaile bakoitzaren emaitza orokorrak 18. taulan erakusten direnak dira. Lehen bi formakinen araberako dispersioak aztertuta (4. irudia), ikusten dugu nesken bokalak irekiagoak eta aurreratuagoak direla mutilenak baino.

	<b>f1</b>		<b>f2</b>		<b>f3</b>	
	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>
<b>M1</b>	643,46	40,42	1407,34	109,84	2579,30	105,95
<b>M2</b>	598,34	29,49	1366,12	78,34	2519,52	176,93
<b>M3</b>	636,22	40,16	1477,52	70,35	2788,94	106,56
<b>N1</b>	766,18	61,78	1525,92	134,02	2685,84	305,49
<b>N2</b>	761,50	48,30	1496,88	82,08	2303,08	256,30
<b>N3</b>	891,38	94,39	1682,02	83,84	2809,02	98,90

18. taula: “a” formakinen batezbestekoak eta desbideratzea informatzaile bakoitzeko.




4. irudia: “a” bokalaren lehen bi formakinen araberako dispersioa.

Azentudunen eta azentu bakozen emaitzak bereiz aztertzen baditugu, 19. taulako datuak lortzen dira. Azentudunak kasu guztietan irekiagoak dira azentu bakoak baino eta aurreratuxeagoak N1 informatzailearen kasuan izan ezik (5. irudia).

		<b>f1</b>		<b>f2</b>		<b>f3</b>	
		<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>
<b>M1</b>	<b>+ Azentua</b>	655,70	38,80	1422,80	116,52	2599,85	114,51
	<b>- Azentua</b>	635,30	40,03	1397,03	105,91	2565,60	99,46
<b>M2</b>	<b>+ Azentua</b>	611,10	28,20	1368,75	75,24	2539,75	133,43
	<b>- Azentua</b>	589,83	27,60	1364,37	81,56	2506,03	201,90
<b>M3</b>	<b>+ Azentua</b>	648,75	22,23	1484,95	63,75	2754,20	110,07
	<b>- Azentua</b>	627,87	47,12	1472,57	75,07	2812,10	99,31
<b>N1</b>	<b>+ Azentua</b>	783,75	53,37	1496,85	138,01	2504,20	332,97
	<b>- Azentua</b>	754,47	65,03	1545,30	129,99	2806,93	217,08
<b>N2</b>	<b>+ Azentua</b>	789,10	29,03	1541,60	71,22	2391,35	213,35
	<b>- Azentua</b>	743,10	50,14	1467,07	75,90	2244,23	268,72
<b>N3</b>	<b>+ Azentua</b>	973,10	47,06	1707,65	90,85	2819,15	87,07
	<b>- Azentua</b>	836,90	76,99	1664,93	75,60	2802,27	106,96

19. taula: “a” formakinen batezbestekoak eta desbideratzea informatzaile bakoitzeko silaba azentudunen eta azentu bakozen arabera.



5. irudia: “a” bokalaren lehen bi formakinen araberako disperssioa, silaba azentudunetan (+A) eta azentu bakoetan (-A).

Bokalen disperssioan azentuduna edo azentu bakoa izatea baino garrantzitsuagoa da informatzaileen sexua. 20. taulan formakin bakoitzaren batezbestekoak eta desbideratzeak ematen ditugu. Bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira f1-i ( $T = (a.m.: 298) 21,719; p = 0,000$ ) eta f2-ri ( $T = (a.m.: 298) 11,311; p = 0,000$ ) dagokienez.

	<b>f1</b>		<b>f2</b>		<b>f3</b>	
	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>	<b><math>\bar{x}</math></b>	<b>sd</b>
<b>Neskak</b>	806,35	92,71	1568,27	130,72	2599,31	319,73
<b>Mutilak</b>	626,01	41,81	1416,99	98,70	2629,25	176,51

20. taula: “a” bokalaren formakinen batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaileen sexuaren arabera.

Azentu- eta sexu-aldagaiak ANOVA faktorialaren bidez batera aztertzen ditugunean, agerian jar dezakegu aldagai bakoitzaren eragina; era berean, formakin bakoitzaren azterketan gainerako formakinen eragina kontrolatzen dugunean aldagai bakoitzaren eta bien eragina zehatzago aztertzea lortzen da. Jarraian formakin bakoitzaren emaitzak aurkeztuko ditugu, koaldagaiak kontuan hartu barik eta kontuan hartuta.

F1i dagokionez, azentuduna izatea edo ez izatea estatistikoki esanguratsua da ( $F = (a.m.: 1) 33,015; p = 0,000$ ) eta sexua banan ere bai ( $F = (a.m.: 1) 543,510; p = 0,000$ ); era berean, biak batera aztertuta, estatistikoki esanguratsuak dira ( $F = (a.m.: 1) 9,752; p = 0,002$ ). Bien artean bariantzaren % 65,8 azaltzen da ( $R^2$  zuzendua = 0,658). Azterketan f2 eta f3 koaldagai gisa sartzen ditugunean euren eragina kontrolatzeko orduan bariantzaren % 73,4 azaltzen da ( $R^2$  zuzendua = 0,734).

F2ren kasuan, azentuduna izatea edo ez izatea ez da estatistikoki esanguratsua. Informatzaileen sexua, ostera, bai ( $F = (a.m.: 1) 124,234; p = 0,000$ ). Aldagai biak batera aztertzen direnean bien eragina ez da estatistikoki esanguratsua; bestalde bien artean bariantzaren % 29,8 baino ez da azaltzen ( $R^2$  zuzendua = 0,298). Azterketan f1 eta f3 koaldagai gisa sartzen ditugunean euren eragina kontrolatzeko orduan bariantzaren % 53,2 azaltzen da ( $R^2$  zuzendua = 0,532); baina gainerako emaitzak ez dira aldatzen.

Azkenik, f3ri dagokionez, ez azentuak ez informatzaileen sexuak ez daukate estatistikoki eragin esanguratsurik aldeak azaltzean. Hala ere, f1 eta f2 koaldagai gisa sartzen ditugunean, orduan emaitzak aldatzen dira eta azentua estatistikoki esanguratsua

da ( $F = (a.m.: 1) 13,155; p = 0,000$ ) eta sexua ere bai ( $F = (a.m.: 1) 97,169; p = 0,000$ ); bien eragina batera ere estatistikoki esanguratsua da ( $F = (a.m.: 1) 5,494; p = 0,020$ ) eta bariantzaren % 38,9 azaltzen da ( $R^2$  zuzendua = 0,389).

## 5. Ondorioak

Azken atal honetan datuen azterketaren bidez aurreko atalean lortu ditugun ondoriorik nabarmenenak laburbilduko ditugu. Lehenengo eta behin esan behar da azentuaren korrelatuak akustikoen erabilerari dagokionez, informatzaile guztiekin ez dutela jokabide bat bera erakusten. Nabarmenetako bat f0rik altuena azentu osteko silaban informatzaile bik edukitzea izan daiteke. Baino, aldi berean izarien gailentze maila eta esangura estatistikoa ere ez datozen bat informatzaile guztieta.

Ikusi dugun moduan, f0 da korrelatu nagusia azentudun silaba bereiztean, baina beronekin batera energiak ere garrantzia dauka; iraupena, berriz, eragin txikiena daukana da oro har. Bestalde f0ren eta energiaren arteko korrelazioa nahiko azkarra eta positiboa dela ikusi dugu. Alta, iraupena ez da korrelazionatzen besteekin hain azkarki.

Hiru silabako berba azentu bakoetan ikusi dugu silaba azentudunaren ostekoak f0 eta energia altuagoa daukala silaba azentudunaren aurrekoak baino. Iraupenari dagokionez, azentuaren aurreko luzeagoa da azentuaren ostekoak baino.

Informatzaileen sailkapena izari akustikoen emaitzen arabera egiten dugunean, informatzaileen sexuak eragin handia daukala ikusi dugu, izan ere, multzo bi egitean neskek bat osatzen dute eta mutilek bestea.

“a” bokalaren formakinak aztertzean ikusi dugun bezala, azentuduna izateak lehen formakinean baino ez dauka esangura estatistikoa. Hala ere, informatzaile guztiekin ikusi dugun bezala azentudunak irekiagoak dira eta aurreratuxeago agertzen dira azentu bakoak baino. Hemen ere informatzaileen sexuak, arrunta den bezala (Fernández Planas, 2013), eragin handia dauka bokalen lehen bi formakinetan.

## 6. Bibliografia

- Boersma, P. & Weenink, D. (2009). *Praat: doing phonetics by computer, Version 5.1*. [Computer program]. <<http://www.praat.org>>
- Elordieta, G. & Hualde, J.I. (2003). Tonal and durational correlates of accent in context pf downstep in Lekeitio Basque. *Journal of the International Phonetic Association*, 33, 195-209.
- Fernández Planas, A. M. (2013). Fonetica acustica y experimental. Las vocales. Las glides y las consonantes sonantes en la cadena hablada. In M.A. Penas (red.), *Panorama de la fonética española actual* (291-320 orr.). Madrid: Arco Libros.
- Gaminde, I. (1992). *Urduliz eta Gatikako Herri hizkeren Azterketa Linguistikoa*. Doktorego Tesia. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1993). Bermeoko azentu-ereduaz”, *Uztaro*, 8.
- Gaminde, I. (1998). *Euskaldunen azentuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Hualde, J. I. & Beristain, A. (2017). Azpeitiko azentuaren gauzatze fonetikoaz. (Agertzeko FLVn)
- Hualde, J.I., Lujanbio, O., & Torreira, F. (2008). Lexical tone and stress in Goizueta Basque. *Journal of the International Phonetic Association*, 38(1).

- Hualde, J.I. (1997). *Euskararen azentuerak*. Bilbo: ASJUren gehigarriak 42.
- Iglesias, A. (2008). Igorreko azentuaz. *Euskalingua*, 13, 16-26.
- Iglesias, A. (2014). *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. Doktoretza-tesia, Gasteiz: EHU.

## COMPRESS-EUS: I(RA)KASLEEN LABURPENAK LORTZEKO TRESNA

**Unai Atutxa, Mikel Iruskieta, Olatz Ansa eta Alejandro Molina**  
**Euskal Herriko Unibertsitatea eta Consejo Nacional de Ciencia y Tecnología**  
**(CONACyT, México)**  
[uatutxa002@ikasle.ehu.eus](mailto:uatutxa002@ikasle.ehu.eus), [mikel.iruskieta@ehu.eus](mailto:mikel.iruskieta@ehu.eus), [olatz.ansa@ehu.eus](mailto:olatz.ansa@ehu.eus),  
[amolina@conabio.gob.mx](mailto:amolina@conabio.gob.mx)

### **Laburpena**

Euskaldun zaharrak eta berriak barnebiltzen dituen ikerketa bat egin da, hizkuntzaren jarrerak interpretatzerako eran desberdintasunik dagoen ikusteko. Lanean jarrera desberdinak kontuan hartu dituzte, konkretuki, abegikortasuna, haserreña, ironia, eta neutroa. Planteatutako hipotesiei dagokienez, bideoa eta ahotsa dauden galderetan, bai ama hizkuntza gaztelania dutenek eta baita euskara ama hizkuntza dutenek ere, bideoan ageri den jarrera erraztasun handiagoz iragarriko dutelauste dute.

Testuak laburtzea hainbat arlotan da garrantzitsua, besteak beste hezkuntzan eta hizkuntzaren i(ra)kaskuntzan. Izan ere, laburtze gaitasuna hezkuntza prozesuan ikasleek garatu beharreko konpetentzia da. Eskola batean ikasle-taldearen laburtze gaitasuna garatu ahal izateko, ezinbestekoak dira baliabide didaktiko egokiak izatea eta ikasle-multzoaren laburpenak kudeatzeko tresna egokiak izatea. Alde batetik, irakasleak ikasle-taldearen zenbait azaleko datu modu automatikoan jasotzen baditu (laburpenen tamaina egokia den eta ideia nagusia mantendu duten, esaterako), bestelako eta sakonagoak diren trebetasun linguistikoak lantzeko: kohesioa eta koherenzia, adibidez. Lan honetan COMPRESS-EUS sistema aurkezten dugu, erabiltzaile-talde baten estrakziozko eta abstrakziozko laburpenak biltzeko tresna eta erabiltzaileek egindako laburpenaren azaleko ezaugarriak deskribatzeko erabil daitekeena, emaitzak kalkulu-orrian ematen dituelako.

**Gako-hitzak:** Laburpena, abstrakzioa, estrakzioa, COMPRESS-EUS, hezkuntza

### **1. Sarrera**

Laburpena arlo askotan da garrantzitsua, batik-bat, hezkuntzan. Ikasleak informazio asko izan dezake gaur egun, egokia den informazioa, baina, horrek ez du bermatzen ikasleak informazioa ulertzen eta barneratzen duenik. Arazo horren aurrean laburpen gaitasuna garatu beharreko konpetentzia da, informazioa ulertzeko, interpretatzeko, erabiltzeko, berrantolatzeko eta egokiro idazteko gai izan dadin ikaslea. Horretaz gain, laburpena jarrera kritikoa eta testuaren ulermena ebaluatzeko tresna baliagarria izan daiteke, berari esker irakasleak jakin ahal izango baitu ea ikasleak curriculumeko eduki ezberdinak ulertu eta barneratu dituen.

Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean, 236/2015eko Dekretuan, Oinarrizko zehar-konpetentziak (orokorrak) eta diziplina barneko/arteko oinarrizko konpetentziak (espezifikoak) ageri dira. Oinarrizko zehar konpetentziei<sup>8</sup> dagokienez, 5 konpetentzia ditugu, denak garrantzi berekoak, eta horien artean dugu “Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia”. Diziplina barneko/arteko

---

<sup>8</sup> Oinarrizko zehar konpetentziak hauek dira: 1) Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia. 2) Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. 3) Elkarbizitzarako konpetentzia. 4) Ekimenerako eta espíritu ekintzailerako konpetentzia. 5) Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

oinarrizko konpetentziei<sup>9</sup> erreparatuta 7 konpetenzia daude, horietako bat “Hizkuntza-eta literatura-komunikaziorako konpetenzia”.<sup>10</sup>

Oinarrizko zehar konpetentziei eta diziplina barneko/arteko oinarrizko konpetentzien arabera, argi ikusten da hezkuntzan laburpena lantzeak izan dezakeen garrantzia. Horren erakusgarri dira ondorengo adierak agertzea curriculumean: “testuak ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea”, “testuak sortzea”, “testuak sortu eta ulertzea” eta “testuak interpretatzea”.

Laburpenak hezkuntzan izan dezakeen zeresana ikusita, kontuan izan behar dugu zenbateko neurrian eta nola garatzen den laburtze gaitasuna, baita hori egiteko baliabideen egoera zein den ere. Esaterako, sarritan eskoletan ez dira laburpenak lantzen tresnarik ez dagoelako. Usu izaten den beste arazo bat denbora da, 20 ikasleren laburpenak zuzentzeak eta horiekin lan egiteak denbora luzea eskatzen baitu. Eskolako materialei erreparatz geru, laburpena bera gutxitan lantzen da, egia da laburpen gaitasuna lantzeko beharrezkoak diren hierarkiak eta erlazioak lantzen direla, esaterako buru mapak erabiliz; baina ariketa horiekin ez dira idatzizko gaitasunak lantzen. Azken batean, horrek guztiak dakarrena da gramatika, progresio tematikoa, konexioa, kohesioa eta koherenzia bezalako baliabideak modu eskasagoan lantzea.

Aipatutako beharitzan horiek asebetetzeko, baliabide didaktikoak eta laburpenak kudeatzeko tresna berriak sortu behar dira, laburtze gaitasuna ahalik eta ondoen garatu ahal izateko. Kasu honetan laburtze gaitasuna eta berarekin bat idatzeko konpetentziak garatzen laguntzen duten baliabide edo tresnez ari bagara ere, nabarmendu nahi dugu baliabide eta tresna horiek disiplinartekotasunean oinarritutako hezkuntzan aplikatzeko modukoak izatea hobesten dugula.

Horiek horrela, lan honen helburua da irakasleentzat baliagarri izango den laburpenak jasotzeko eta aztertzeko Compress-Eus sistema aurkeztea.<sup>11</sup> Tresna honek bi laburpen mota jasotzea ahalbidetzen digu, estrakziozkoak eta abstrakziozkoak. Estrakziozkoetan testuko esaldiak ezabatzen dira, baina ez da inolako aldaketarik egiten

<sup>9</sup> Diziplina barneko/arteko oinarrizko konpetentziak hauek dira: 1) Hizkuntza-eta literatura-komunikaziorako konpetenzia. 2) Matematikarako konpetenzia. 3) Zientziarako konpetenzia. 4) Teknologiarako konpetenzia. 5) Konpetenzia sozial eta zibikoa. 6) Artearen konpetenzia. 7) konpetenzia motorra.

<sup>10</sup> Konpetenzia horrek honako osagai hauek ditu:

- a) Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak, ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, xede edo helburu pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko.
- b) Esparru pertsonal, sozial edo akademikoen berezko hitzezko, idatzizko eta ikusentzunezko testuak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei.
- c) Hizkuntzen erabilera-arauei eta hizkuntzen sistemari buruzko jakintza erabiltzea hitzezko eta idatzizko testuak sortu eta ulertzean, komunikazio egoki eta eraginkorrap egiteko.
- d) Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatzeko modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitza eta sentsibilitate estetikoa garatzea.
- e) Gure gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_2\\_proyec/adjuntos/O\\_H\\_curriculum\\_oso.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/O_H_curriculum_oso.pdf)-tik berreskuratua.

<sup>11</sup> COMPRES-EUS tresna CLARIN-ERIC europar azpiegituraren barruko K-zentru batean, IXA-CLARIN K-zentruan garatu da (Bel et al., 2016). IXA-CLARIN K-zentruak hizkuntzaren prozesamenduko tresnak erabilerrazak izateko helburua du, ikerketarako eta hezkuntzarako. Tresna hori hemen proba daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/tresnak/compress-eus>.

testu horietan. Abstrakziozkoetan, ostera, laburpena ematen saiatzen gara, jatorrizko testua oinarri izanda, baina, testuko esaldiek ez dute zertan bere horretan agertu, kasu honetan testua berregin egiten da.

## 1. Marko teorikoa

### 1.1. Testuen laburpena

Laburtzea idatzitako ulertzeko teknika da eta laburpeneko informazioak adieraziko digu testua zenbateko neurrian ulertu den (Sanz, 2005). Sanzen (2005) arabera, laburpena egitea ulertzea baino konplexuagoa da. Ulertutako testuaren barne-irudikapena (proposizioen erlazio-egitura) egiteaz gain, irakurleak erabaki beharko du zein diren barne-irudikapen horretako osagai garrantzitsu eta nagusiak (gaiaren eta azpigaien arteko koherentzia-erlazioak). Beraz, laburtzeak bi osagai ditu bere baitan, testua ulertzea eta ideiak hierarkizatzea.

Ulermenari dagokionez, irakurleak aldez aurretik duen informazioa eta testuak dakarrena uztartu behar dira. Horrako prozesu horrek jakintza garatzea dakar, baina baita hizkuntza-gaitasuna bera ere. Hori horrela izanda, kontuan hartu beharrekoa da esanahia ez dagoela soilik testuan, baizik eta irakurleak eraikitzen duela bere ezagutzak eskemak aktibatuz eta horrek, testuaren beheranzko prozesaketa baliatuz, edukiei buruzko iragarpen kognitiboak egitea ahalbidetzen baitio. Horretaz gain, irakurleak testuak dioena aztertzen du, bere iragarpen kognitiboak baieztatuz edo berrikusiz, horri testuaren goranzko prozesaketa esaten zaio. Testua irakurri ahala informazioak bere eskemekin bat egiten badu, hasieran zituen iragarpenak baieztatuko ditu, informazioa ulertuz eta bere eskemetan barneratuz, edo informazioa guztiz bat ez badator, norbere eskemak aldatu eta aberastuko dira. Hala ere, gerta liteke iragarpenok ez betetzea eta orduko eskemekin ezin konparatzea, kasu horretan ezin izango du bere informazioa egoki kodifikatu eta horrek bi ondorio ekar litzake; testua ez ulertzea edo informazioa distorsionatzea.

### 2.2 Laburpen automatikoa

Testuen laburpen automatikoan egindako ikerketetan, besteak beste, eta gure lanarekin lotuta, bi alderdi bereizteko joera ageri zaigu. Batetik, estrakzio bidezko laburpenak eta, bestetik, abstrakzio bidezkoak. Estrakziozko laburpena egitean testuak ez du inolako aldaketarik izaten, hots, testuko zati garrantzitsuenak hartzera mugatzen gara. Adibidez, testu bat irakurri ostean zatirik garrantzitsuenak azpimarratzea. Ostera, abstrakziozko laburpenetan testua berregin egiten da, testuaren egitura eta erabilitako hitzak aldatuz. Laburpen automatikoan abstrakziozko testuekin aritzea oso zaila da; izan ere, ideia garrantzitsu berberak modu ezberdinean idatzita baitaude (Molina et al., 2011) eta zaila da mota horretako laburpen baten kalitatea ondo neurtzea. Horregatik, ez da harritzeko estrakziozko laburpenen arloan gehiago aurreratu izana egundaino.

Gure lanaren oinarri garrantzitsuenetako bat Molinak (2013) eginiko lana da. Haren esanetan laburpen automatikoen sorkuntza erronka handia dakarren gaia da, eta bi familia metodologiko sortu ditu, aipaturiko estrakzioa eta abstrakzioa, hain zuzen ere. Esaldien konpresioak bi familien arteko zubia eraikitzen du Molinaren hitzetan. Bere lanean esaldien konpresioari buruzko ikerketa aurkezten du eta laburpenean aplikagarria den eredu lineal bat proposatu, esaldi-arteko segmentuak ezabatzea aurreikusten duena.

Eredu honek urre-patroizko testuetatik zuzenean erauzten ditu ezaugarriak eta diskurtso-segmentuak mantentzeko edo ezabatzeko urre-patroiko corpuseko erabakiek dago entrenatua testuinguru guztia eta sortutako testua kontuan hartuz. Analisi estatistikoa baliatuz zein segmentu ezabatu aurreikusten duten ezaugarri esanguratsuenak ateratzen dira. Horren ostean, eredurik onena erabiltzen da esaldiak konprimatzeko.

### 3. Erlazionaturiko lanak

COMPRESS-EUS sistema egiterakoan Molinak (2013) eginiko lana oinarri izan dugun arren, gure helburuetara iristeko moldaketa batzuk egin dizkiogu. Molinak (2013) dokumentuen laburpen automatikoak lortzea du helburu, horretarako perpausen konpresioan oinarritzen da eta estrakzio teknikak erabiltzen ditu. Guk ostera, abstrakziozko laburpenak ere biltzeko sistema eratu dugu, estrakziozko laburpen batean egon daitezkeen akats gramatikal eta progresio tematiko desegokiak zuzentzeko. Horretaz gain, esana dugun moduan, biltzen ditugun laburpenak erlaziozko diskurtso-egituraren (Iruskieta 2014) aztertu nahi ditugunez, diskurtso-unitateak eta testuko ideia nagusiak zehaztu ditugu gure sistemaren.<sup>12</sup>

DBH 4ko ikasleen laburpenak deskribatu ahal izateko, COMPRESS-EUS tresna erabili du Garinek (2017). Programa horri esker estrakziozko eta abstrakziozko laburpenak bildu ditu. Deskribapena egiteko, bi testuak (estrakziozkoa eta abstrakziozkoa) hartu eta alderatu ditu, testu batetik besterako garapena kontuan hartuta. Ikerketan COMPRESS-EUS tresnari buruzko zenbait ondorio interesgarri atera ditu. Abstrakziozko laburpenak egiteko tresna erabilgarria dela badio ere, ikasleak tankera honetako tresnak erabiltzera ez daudela ohituak nabarmendu du. Ohitura falta hori estrakziozko laburpenetan nabari da gehien Garinen esanetan, diskurtso-unitate gutxi ezabatzeko joera baitute ikasleek. Estrakziozko laburpenak egiteko gaitasuna gehiago garatu beharko litzatekela azpimarratzen du.

### 4. Compress-eus sistema

Lehendabizи, COMPRESS-EUS sistemaren ezaugarri nagusiak emango ditugu aditzera eta, ondotik, tresnaren erabilera azalduko dugu.

#### 4.1. Ezaugarriak

Irakasleen eta ikasleen laburpenak biltzeko tresna da COMPRESS-EUS sistema. COMPRESS-EUS sistemaren bi testu mota sartuko ditugu, ikasleen eta irakasleen laburpenak bildu ahal izateko, kasu honetan estrakziozkoak eta abstrakziozkoak: i) Alde batetik, jatorrizko testu laua, hots, laburtu beharko den testua. ii) Bestetik, RSTko<sup>13</sup> erlazio-egituraz etiketatua<sup>14</sup> dagoen testua, teoria horretan adituak diren irakasleek eginikoa. Erlazio-egitura horrekin zehazten baitu COMPRESS-EUS sistemak ideiarik garrantzitsuena (unitate zentrala).

<sup>12</sup> Etorkizunean koherentzia erlazioak ere implementatu nahi dizkiogu sistemari.

<sup>13</sup> *Rethorical Structure Theory* (RST) Mannek eta Thompson (1987) proposatu zuen koherentzia hizkuntzalaritzaritzako komputazionalean koherentzia deskribatzeko.

<sup>14</sup> Adituen laburpenak dira Compress-Eus sistemaren urre-patroizko (Gold Standard) corpusa. Hau da, corpus zuzena, ontzat hartuko duguna eta ikasleen laburpenak zuzentzeko erabiliko dugun corpusa.

Jarraian, aipatu berri ditugun bi testu motak eta unitate zentralaren (UZ) adibide bana azalduko ditugu.

Jatorrizko testua da laburtuko den testua. Aipatzeko da edozein testu sar daitekeela COMPRESS-EUS sistemaren, horrek ikasleen beharrizanen arabera testu ezberdinak laburtzeko aukera ematen digu. Jatorrizko testua oinarrizko diskurtso-unitateetan (EDU) banatzen da. Sistemari esker, laburtu nahi den testuko diskurtso-unitate guztiak jatorrizko testuaren parrafoen arabera sailkatzen dira. Ondorengo taulan jatorrizko testu baten adibidea ageri da, “Erbia” izeneko testua.<sup>15</sup>

1.paragrafoa

[ERBIA]

2.paragrafoa

[Erbiaren lagunik ez dugu ezagutzen animalien munduan.] [Arerio franko ditu, ordea,] [horiek guztiak haragijale: erbinude txikia edo erdi barazkijalea den azkonar alferra, kasu.]

3.paragrafoa

[Jazarpen horren ondorioz, erbiak ikasi du dena mesfidantzaz ikusten, zuhur-zuhur jokatzen eta ihesari emateko gaitasunak ontzen.] [Arriskupean dagoen erbi batek ez du lerro zuzenean jotzen, beste animaliek egiten duten bezala,] [sigi-sagan baizik, eta jauzi xelebreak ematen ditu,] [horrela etsaiari nahasmendua eragiten dio.] [Zoriak laguntzen badio eta gordelekura iristea lortzen badu,] [zuzenean barrura sartu beharrean,] [harrapatzailea desorientatzeko asmoz,] [aztarnak nahasten ditu.]

4.paragrafoa

[Erne eta arretaz ibilita ere,] [makina bat erbi harrapatzen dituzte.] [Naturak horrela aurreikusita,] [eta espeziaren iraungipena zaitzeko,] [oso ugalkorra egin zuen animalia hau.] [Hamabost hilabeteko eme batek urtean lau umaldi izan ditzake,] [guztira 9 ume erdituz.] [Eman dezagun 9 horietatik 4 emeak direla,] [eta ugalketa bide horretatik jarraituz gero,] [9 urtean erbi batek 65.501 ume izan ditzake.]

Taula 1. *Erbia* testua paragrafoetan bereizita eta diskurtso-unitateetan banatuta

#### 4.1.1. Unitate zentrala (UZ)

COMPRESS-EUS sistemak testuko unitate zentrala, hau da, unitaterik garrantzitsuena zein den zehaztuta izango du. Automatikoki jakin ahal izateko ea erabiltzaileak eginiko laburpenetan testuko unitaterik garrantzitsuena dagoen. Ondorengo taulan “Erbia” testuko unitate zentrala ageri da.

<sup>15</sup> Testu hau Sanzek (2005) irakurmena lantzeko jarduerak prestatzeko proposatzen du, Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako eta Bigarren Hezkuntzako 1. ziklorako. Atutxak eta Iruskietak (2017) Lehen Hezkuntzako ikasleen laburtze gaitasuna aztertzeko, lehendabizi ikasleekin jarduera batzuk egin zituzten eta hauek ere jarduera horietarako testu bera erabili zuten. “Erbia” testua 1 Taulan ageri da paragrafoetan bereizita eta diskurtso-unitateetan banatuta (parentesien bidez).

[Arerio franko ditu, ordea,]

Taula 2. Erbia testuaren unitate zentrala (UZ)

#### 4.2 Erabilera

Jarraian COMPRESS-EUS sistemaren erabilera azalduko dugu. Gure asmoa ikasleen eta irakasleen laburpenak biltzea da; hala ere, webgunera sartzeko aukera duen edozein pertsonak erabil dezake tresna hau. Webgunera heltzeko honako helbidera jo behar du erabiltzaileak: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/tresnak/compress-eus>.

Hurrengo urratsa erregistratzeari izango da, horretarako 1 Irudian ageri den lekuari klik egin beharko du erabiltzaileak eta ondoren 2 Irudian ageri diren datuak bete.

**Hasi saioa**

Erabiltzale-izena

Pasahitza

Hasi saioa

Dokumentuak laburteko erregistratu. Pasahitza ahaltsu ala...

Irudia 1 Saioa hasteko gunea

ERABILTZAILE BERREAREN ERREGISTROA

ERREGISTRATU AHAZTU EZATEKO BEHEAN ESKATZEN ZALIKIZUN DATUAK EHAN

► Erabiltzale-izena:	Aitor
► Lehen abitzena:	Abikoa
► Bigarren abitzena:	Berenbikoa
► NAN zenbakia:	666342
► Lanbidea (Irakaslea, ikastetxe, ...):	ikastetxe
► Herria:	GALDAKAO
► Ikasketa maila:	Graduatura
► Posta elektronikoak:	atxular@gmail.com
► Pasahitza:	*****
► Emepikaha pasahitza:	*****

Eregistatu

Irudia 2 Erabiltzailea erregistratzeko gunea

##### 4.2.1 Gida azkarra

Eskatzen zaizkion datuak sartu ostean, erabiltzaileak bere erabiltzaile izena eta pasahitza izango ditu eta horri esker saioa hasteko moduan izango da. Saioa hasten duenean gida azkarra aurkituko du erabiltzaileak, bertan sistemarekin aritzeko behar dituen jarraibide eta arau guztiak ditu. Jarraibide horiei jarraituz egingo ditu bi laburpen motak, lehendabizi estrakziozko eta ondoren abstrakziozko.

Prozesuko edozein unetan, testua berriz egiten hasteko, klikatu TESTUA BERRASI botoian.

TESTU KONPRIMATUA lortzeko, segmentuak aldez aurretik mugatu dira eta ezin dira moldatu.

Segmentuaren ertz borobilduak soilik adierazten du beronen amaiera, ertza zuzena bada, segmentuak hurrengo lerroan jarraituko du.

Gutxienez segmentu bat mantendu edo kendu beharko duzu testu bakoitzean, hurrengo testua egin ahal izateko.

Garrantzitsuena soilik mantendu behar duzu.

Konprimatutako esaldi bat letra xehe batekin has daiteke, gero testua editatu eta horrelako zein bestelako akatsak konpondu ahalko dituzu.

Konprimitutako esaldi baten amaiera puntuak ez den beste ikurren bat izan daiteke.

Ahalik eta gehien konprimatu behar da.

Segmentuen gainean klik eginez gaitzen edo ezabatzeko dira segmentuak.

TESTU KONPRIMATUA bukatuta, LABURPENA IKUSI ETA EDITATU botoian klikatu eta LABURPENA ESKUZ ZUZENTZEKO atala gaituko duzu

Nahi duzun laburpena osatzeko, edozelako zuzenketak egin ditzakezu, baita testu osoa moldatu ere

TESTUA BUKATU botoia sakatu ostean, ezin daiteke testu bera berriz egin eta hurrengo testua agertuko zaizu.

Testu guztiak amaitzean, amaiera-mezua agertuko zaizu.

Taula 3. COMPRESS-EUS erabiltzeko gida azkarra

#### 4.2.2 Estrakziozko laburpena

Behin gida azkarra irakurrita, laburpenak egiteari ekin diezaiokе erabiltzaileak; esan bezala, estrakziozko laburpena eginez hasiko da. Estrakzio lanaren nondik norakoak argiago ikusteko, honako irudi honetan erabiltzaileek ordenagailuaren pantailan aurkituko dutena ikusten dugu:

Testua berrasi	Laburpena ikusi eta editatu	Testua bukatu	Berrikusi duzu 0 orainarte eginiko testuak
<b>ERBIA.</b>			
<b>Testu konprimitu</b>			
<p><b>ERBIA.</b></p> <p>Erbiaren lagunik ez dugu ezagutzen animalien munduan.</p> <p><b>Arerio franko ditu, ordea;</b> horiek guztia haragi jalea: erbinude txikia edo erdi barazkijalea den azkonar alferra, kasu.</p> <p>Jazarpen horren ondorioz, erbiak ikasi du dena mesfidantzaz ikusten, zuhur-zuhur jokatzen eta ihesari emateko gaitasunak ontzen.</p> <p>Arriskupean dagoen erbi batek ez du lerro zuzenean jotzen, beste animaliek egiten duten bezala, sigi-sagan balizik, eta jauzi xelebreak ematen ditu, horrela etsaiari nahasmendua eragiten dio.</p> <p>Zoriak laguntzen badio eta gordelekura iristea lortzen badu, zuzenean barrura sartu beharrean, harrapatzailea desorientatzeko asmoz, aztarnak nahasten ditu.</p> <p>Erne eta arretaz ibilta ere, <b>makina bat erbi harrapatzen dituze.</b></p> <p>Naturak horrela aurreikusita, eta espeziaren iraungipena zailizko, <b>oso ugalkorra egin zuen animalia hau.</b></p> <p>Hamabost hilabeteko eme batek urtean lau umaldi izan ditzake, guztira 9 ume erdituz.</p> <p>Eman dezagun 9 horretatik 4 emeak direla, eta ugalketa bide horretatik jarraituz gero, 9 urtean erbi batek 65.501 ume izan ditzake.</p>		<p>Arerio franko ditu, ordea,</p> <p>Jazarpen horren ondorioz, erbiak ikasi du dena mesfidantzaz ikusten, zuhur-zuhur jokatzen eta ihesari emateko gaitasunak ontzen.</p> <p>makina bat erbi harrapatzen dituze.</p> <p>oso ugalkorra egin zuen animalia hau.</p>	
<b>Laburpena eskuz zuzentzeko</b>			

Irudia 3 Estrakziozko laburpena egiteko beharrezkoak diren jatorrizko testua eta testu konprimituoa

3 Irudian ikus daitekeen moduan, erabiltzaileak bi testu ikusiko ditu. Ezkerreko testua laburtu beharreko testua da. Testu hori diskurtso-unitateetan ageri da segmentatuta (EDUetan) eta guk hango unitaterik garrantzitsuenak aukeratuko ditugu estrakziozko laburpena egiteko.<sup>16</sup> Horretarako, erabiltzaileak beharrezkoak ez diren segmentuak ezabatu beharko ditu, segmentuon gainean klik eginez. Eskuneiko testuan, testu konprimatuoa, erabiltzaileak klikatutako segmentuak ezabatu egingo dira, estrakziozko laburpena eratuz.

Gerta liteke ezabatu dugun unitate bat berreskuratu nahi izatea, laburtu beharreko testuan bere gainean klik eginda berreskuratuko genuke. Laburpena behin eginda, bi aukera ditugu, bukatu dugula esatea sistemari “Laburpena ikusi eta editatu” jartzen duen lekuaren klik eginez edo baliteke gustura geratu ez izana egindakoarekin eta berriro hasi nahi izatea, kasu horretan “Berrasi” jartzen duen lekuaren egingo dugu klik (baina orduan egin den guztia galduko da, sistemak ez baitu informazio hori gordeko).

#### 4.2.3 Abstrakziozko laburpena

“Laburpena ikusi eta editatu” klikatuta estrakziozko laburpenarekin bukatuko dugu eta abstrakziozko egiteari ekin. Abstrakziozko laburpena testu konprimatuaren azpian ageri den leihotxoan egingo dugu “Laburpenak eskuz zuzentzeko” jartzen duen tokian. 4 Irudian ageri den moduan, leihoko horretan aurretik egindako estrakziozko

<sup>16</sup> Akats gehiago sortzen badute ere, automatikoki egin daitezke bi ataza hauek, diskurtso-unitateetan testua zatitu eta ideia nagusien detektatu, honako bi tresnekin: i) EusEduSeg tresnarekin testuak zatituz. Hemen proba daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/EusEduSeg/EusEduSeg.pl> (Iruskieta eta Zapirain 2015). ii) Ideia nagusien detektatzalearekin idaeia garrantzitsuena detektatu. Laburpen zientifikoetan ideia nagusia detektatzaren duen tresna hemen proba daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/CU-detector/> (Bengoetxea et al. 2017).

laburpena dago eta han guk geuk egin nahi ditugun aldaketak egin diezazkiogeu testuari. Horri esker, estrakziozko laburpenak izan ditzakeen akats gramatikalak edo progresio tematiko desegokiak zuzentzeko aukera izango du erabiltzaileak, baita bere hitzez baliatzekoa ere.

Berregin duen testuarekin konforme gaudenean, “Testua bukatu” jartzen duen lekuaren klik egin eta sistemak erabiltzaileak egin duena gordeko du.

Tresna hau ikasleek eta irakasleek erabil dezakete eta batzuek eta besteek egin dituzten laburpen guztiak jaso. Oro har, honako dokumentu hauek jasoko ditu: i) estrakziozko laburpenak, ii) abstrakziozko laburpenak eta iii) erabiltzaile guztien eragiketa nagusiak jasotzen dituen kalkulu-orria.

The screenshot shows the COMPRESS-EUS system interface. At the top, there are four buttons: 'Testua berrasi', 'Laburpena ikusi eta editatu', 'Testua bukatu', and 'Berrikusi duzu 0 orain arte eginiko testuak'. Below these, the 'ERBIA' section is displayed, containing a text area with several highlighted segments in yellow and green. To the right, the 'Testu konprimitu' section is shown, also with highlighted text. At the bottom left of the main content area, there are two small buttons: 'Erabiltzailea gidaiburura sartu' and 'Akatsaren berri eman'.

Irudia 4 COMPRESS-EUS sistema abstrakziozko laburpena egiterakoan

#### 4.3. COMPRESS-EUS tresnarekin datu multzo handiak kudeatzen

Erabiltzaile-multzo handi baten emaitzak automatikoki aztertzeko aukera eskaintzen du COMPRESS-EUS tresnak; izan ere, eragiketa nagusiak kalkulu-orri batean eskaintzen ditu. Tresnak ematen duen informazioaren laburpena egingo dugu 4 Taula.

Testu originala						Egile11k kendutako informazioa					
Dokumentua	Paragr.	Esaldia	EDU	Hitzak	UZ	Egile11	UZ	Paragr.	Esal.	EDU	Hitz kop
1	1 2 2	1 2 3 3	1 2 3 4	14 8 9 12	1	11	0			3 4 3	9 12

Taula 2. Aditurek eginiko Erbia testuaren estrakzio laburpena

Taula horretan testu originalaren zenbait datu daude: dokumentu horrek 2 paragrafo ditu. Lehenengo paragrafoak 2 esaldi ditu eta testuko bigarren esaldiak 2 EDU ditu. Eskuman Egile11k kendutako informazioa deskribatzen da. Taulan dagoenaren arabera, egile horrek UZA mantendu du eta ez du kendu (bere balioa 0 baita), bigarren paragrafoan hirugarren eta laugarren EDUak kendu ditu. Estrakziozko laburpena denez, EDUak dituen beste hitz kendu ditu (hitz kop.), guztira: 21 hitz gutxiago.

Modu horretan erabiltzaile-multzo handi batean ideiarik garrantzitsuena (UZA) zenbatek kendu duten jakin dezakegu, baita zein paragrafo, esaldi edo EDU kendu duten, edo zenbat hitz kendu duten.

Horrez gain, erabiltzaileek egiten duten laburpena adituaren laburpenarekin alderatzen da, hots, erabiltzaileak egindako laburpenaren eta adituaren arteko berdintasun eta desberdintasunak aztertzen dira, adituarena zuzentzat edo ontzat hartuz. Jarraian, aditu batek eginiko estrakziozko laburpena ageri da 5 Taulan, jatorrizko testuko diskurtso-unitate garrantzitsuenak aukeratuta dago eginda.

1.paragrafoa

2.paragrafoa

[Arerio franko ditu, ordea,]

3.paragrafoa

[Jazarpen horren ondorioz, erbiak ikasi du dena mesfidantzaz ikusten, zuhur-zuhur jokatzen eta ihesari emateko gaitasunak ontzen.]

4.paragrafoa

[makina bat erbi harrapatzen dituzte.] [oso ugalkorra egin zuen animalia hau.]

Taula 3. Adituek eginiko Erbia testuaren estrakzio laburpena

Arerio asko ditu Erbiak. Hori dela eta, animalia mesfidatia da, zuhurtziaz jokatzen duena eta, ihes egiteko ahalmen handiduna. Erbi asko harrapatzen ditutzenez, naturak oso ugalkorrak egin ditu.

Taula 4. Adituek eginiko Erbia testuaren abstrakzio laburpena

Abstrakziozko laburpena egitean (6 Taula), estrakziozkoan egon daitezkeen akatsak zuzendu ditugu. Kasu honetan, testuaren hasieran “Erbia” hitza jarri dugu, estrakziozko laburpenean ez baitago jakiterik zeri egiten dion erreferentzia. Egin den beste aldaketa bat “ordea” lokailua kentzea izan da, ez baita zuzena hurrengo esaldiarekin lotzeko. Azkeneko esaldian ere erreferentzia arazo bat dugu, estrakziozkoan ez dakigu nork edo zerka egin duen ugalkor erbia, honako honetan “naturak” egin duela zehaztu behar izan da. Azkenik, lexikoan dagoen aldea hartuko dugu kontutan; izan ere, laburpena egin duenak bere hitzekin berregin baitu laburpena.

## 5. Ondorioak

Lan horretan COMPRESS-EUS izeneko sistema aurkeztu dugu.<sup>17</sup> Tresna honek ikasleek eta irakasleek eginiko laburpenak biltzeko eta erabiltzaile-taldearen laburpenak aztertzeko balio du; gainera, bi motatako laburpenak bildu ahal izango ditugu, alde batetik estrakziozko laburpenak, kasu horretan testuak ez du inolako aldaketarik, eta beste aldetik abstrakziokoak, azken laburpen hauetan testua berreginda dago.

Testuak bildu ostean, gure nahia da laburpen horiek aztertu ahal izatea, zehazki esanda, diskurtso-egituraren oinarritutako azterketa da bihar-etzi egin nahi duguna. Hori horrela izaki, gure tresnak ezaugarri jakin batzuk ditu, guk egin nahi dugun azterketa mota egitea erraztuko dizkigunak. Diskurtso-egituraren oinarritutako azterketa errazteko, COMPRESS-EUS sistemak automatikoki adieraziko digu erabiltzaileentzat zeintzuk diren testu zati garrantzitsuenak. Horretaz gain, unitate nagusia erabiltzailearen laburpenean dagoen esango digu, hau ere automatikoki. Eta, bukatzeko, estrakziozko eta abstrakziozko laburpenen arteko alderaketa egiteko aukera ere ematen digu, oraingoz eskuz bada ere.

COMPRESS-EUS sistema eskolako ikasleen laburpenak aztertzeko baliabidea da, hots, gure asmoa da jakitea ikasle eta irakasleek zer-nola laburtzen duten eta tresna honek bide horretan lagunduko digu. Etorkizunari begira, gure asmoa laburtze gaitasuna garatzea ahalbidetuko duten baliabide didaktikoak sortzea da eta horiek garatzeko eta ebaluatzeko egokia da COMPRESS-EUS sistema, gure ustez. Sistemari aukera gehiago implementatu nahi dizkiogu, esaterako erabiltzaileari *feedback* automatikoa ematea egindako laburpenaren arabera. *Feedbacka* ezberdina izan daiteke, gomendio hutsetatik hasita, laburpena garatzeko ariketak proposatzeraino. Ikasle zein irakasleei emango diegun *feedbacka* zeinahi izanda ere, diziplinartekotasunean oinarrituta egitea da gure asmoa; izan ere, uste dugu gaur egungo hezkuntzaren ardatzetako batek diziplinartekotasuna behar duela izan. Horregatik, ez da gure nahia laburtze gaitasuna modu isolatuan lantzea, baizik eta curriculumeko beste gaitasun edo edukiekin batera, denen arteko oreka eta kalitatea bermatuz.

## 6. Bibliografia

- Atutxa, U., & Iruskieta, M. *Abstrakziozko laburpen-testuak ebaluatzeko metodoa. Lehen Hezkuntzan: testu-luzera, koherenzia-erlazioak, gai nagusia*. Tantak, 29(1), 53-80 or.
- Bel, N., González-Blanco, E., & Iruskieta, M. (2016). CLARIN Centro-K-español. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 57, 151-154.
- Bengoetxea, K. Atutxa, A., & Iruskieta, M. (2017). Un detector de la unidad central basado en técnicas de aprendizaje automático en textos científicos para el euskera. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 58, 37-44.
- Iruskieta, M. (2014). *Pragmatika erlaziozko diskurtso-egitura: deskribapena eta bere ebaluazioa hizkuntzalaritzaritza konputazionalean*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Iruskieta, M., & Zapiain, B. (2015). Euseduseg: A dependency-based edu segmentation for basque. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 55, 41-48.

<sup>17</sup> COMPRESS-EUS sistema hemen probatu daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/tresnak/compress-eus>.

- Mann, W.C., & Thompson, S. A. 1987. Rhetorical Structure Theory: A theory of text organization. *Text*, 8(3), 243-281.
- Molina, A., da Cunha, I., Torres-Moreno, J. M., & Velazquez-Morales, P. (2011). La compresión de frases: un recurso para la optimización de resumen automático de documentos. *Linguamática*, 2(3), 13-27.
- Molina, A. (2013). Compresión automática de frases: un estudio hacia la generación de resúmenes en español. *Inteligencia Artificial*, 16(51), 41-62.
- Sanz, A. 2005. *Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu: Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta DBHko 1. zikloa*. Nafarroako Gobernua
- Garin, I. (2017). *DBH 4ko ikasleen testu laburpenak deskribatzen, IKTak erabiliz. UPV/EHU-UEU HEZikt Berezko Tituluko proiektua*. Eibar.

## ZUBERERAZKO DARDARKARIEN AZTERKETA SOZIO-FONETIKOA<sup>18</sup>

Xantiana Etchebest

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Université de Pau et des Pays de l'Adour  
[xetchebest@hotmail.fr](mailto:xetchebest@hotmail.fr)

### Laburpena

Euskaraz eta hemen zubereraz, bi dardarkari mota desberdin badira: /r/ bakunak eta /r/ anizkunak. Bakunaren kasuan, edo ahoskatzen da edo desagertzen da bi bokal artean /hari/ edo /hai/ kasuetan bezala. Anizkunaren kasuan aldi, bi motatakoak badira: apikariak /r/ edo ubularak /u/. Horretarako, informateek ahoskatze hautu desberdinak badituzte. Lan horretan ikusiko da adina den faktore sozialen bidez hautuak eginak direla, hala nola gazteek egiten dituzten hautuak ez dira baitezpada zaharrek egiten dituztenak. Dardarkari horien guztien aztertzeko, inkestak egin ditugu. Inuesta hori bideratua izan da itzulpenen bidez eramana izan baita. Honetan, hitz zenbaitzuen itzultzea galdegina izan zaie. Aldi bakoitzean ber hitzak izan dira ondotik konparaketa baten eramateko. Hitzunak haien adinaren arabera hautatuak izan dira (gazte, heldu, zahar). Ondotik, nagusiki bi programarekin lan egin da: Praat eta SPSS programak. Eta programa horiei esker bildu diren datuekin, azterketa estatistikoak eraman dira eta gaur egungo dardarkarien argazki bat atera ahal izan da.

**Gako-hitzak:** fonetika, barioazioa, dardarkariak, euskara, adina

### 1. Sarrera

Gauza jakina da hizkuntzak beti aldatzen eta garatzen direla. Trask eta Milroy-en errana oinarritzat hartzen baldin bada: «One of the fundamental things you need to understand about languages is that they are always changing.» (1996: 1) zubererak ez du salbuespen bat sortzen. Gaur, Zuberoan baina orokorki, Euskal Herrian ere, euskaldun gazteek eta adineko euskaldunek ez dute berdin hitz egiten. Eta hori puntu desberdinen arabera semantikan edo gramatikan bezala. Baina hemen fonetikaren arabera zentratua izanen da lana. Beraz, lan honetan frogatu nahi izan dena da aldaketak badirela. Eta aldaketa horiek belarri hutsez entzuten baitira, fonetikaren lantzeko nahia piztu zait. Baina aldaketa guztien aztertzeko, fenomeno edo kasu honetan fonema sail bat hautatu behar zen. Eta aski emankorra den /r/ dardarkariei buruz interesatu naiz lan honetan. Euskal Herrian, baina beste hizkuntza zenbaituetan ere, dardarkariak badira. Ladefoged eta Maddieson-ek (1996) diote munduan, hizkuntzen % 76,7k dardarkariak badituztela. Euskararen eta hemengo kasuan, zuberera kopuru honetan sartzen da. Gainera Txillardegi-k dioen bezala (1978), euskarak bi dardarkari desberdin baditu: dardarkari ahulak eta dardarkari azkarra. Lan honetan, dardarkari bakunak eta anizkunak deituko direnak. Hala ere, hemen onartuko da azkarretan, edo anizkunetan bi desberdin badirela. Alde batetik, Txillardegik azkarra deitzen dituen apikariak izanen dira eta bestalde, ubularak izanen dira. Hauek, Txillardegik (idem) adibidez ez ditu onartzen gaurko euskaran.

<sup>18</sup> Lan hau GIU 22/16 eta IT 1028/16 erreferentziadun proiektuen barnean egin da.

## 2. Metodología


Lan honen helburua zuberotar dardarkarien argazki baten ateratzea izan baita, pauso nagusia jendeen inkestatzea izan da. Horretarako, jendeak hautatuak izan dira eta bereziki adinaren araberako hautaketa bat egin da. Jendeak hiru adin multzotan bildu dira. Lehenik gazteen adin multzoan 15-20 urte arteko gazteak hautatuak izan dira haien D eredua burutik buru ezagutzen baitute eta besteek ukantzen ez duten posibilitate bat izan baita. Haatik, inkestatutakoetan ez dira denak D eredutik pasa. Bestalde, 30-40 urteko helduak hautatuak izan dira, haien D ereduaren lehen gizaldia markatzen baitute. Eta azkenik, 60 urte baino gehiagokoak hautatuak izan dira D eredua ez baitute ezagutu eta bortxaz etxeen ikasitako euskara bat ematen dutelako. Beraz, eraman izan den lan honetan, euskararen jatorria eta adina hurbiletik lotuak dira. Gazteetan 11 hiztun bildu dira, helduetan 9 eta zaharretan 10. Jende horiei frantsesetik euskarara 64 hitzen itzultzea galdegina izan zaie. Hitz horietan guztiak, hitzak dardarkariak testuinguru desberdinan lortzea entseatu da: hitz bukaeran, bokalartean, kontsonante desberdinen aitzinean. Horren ondotik, 10 hitzkin lan egitea deliberatua izan da. 10 hitz hautatuak izan dira (herri, hari, ürxaintx, armada, erdi, orkatz, euro, hor, hurra eta oro).

## 3. Datuen analisia

Datuen analisiaren egiteko, gorago errana izan den bezala, Praat programa baliatua izan da. Programa honek ematen dituen espektrograma esker, dardarkari desberdinak lortu dira. Lan honetan, espektrogramak landu direnean, 9 dardarkari desberdin lortu dira. Lau dardarkari bakun, bi dardarkari anizkun apikari eta 3 dardarkari anizkun ubular. Horretarako, azpiatal hau hiru sekziotan banatuko da.


### 3.1. Dardarkari bakunak

1. irudian agertzen den bezala, lortutako lehen dardarkari bakuna [i] izan da. Dardarkari honek, 3 formakinak aurkezteaz gain, hirugarren formakinetik gora, zarata ere markatzen du. Alofono hori, behin baizik ez da agertu. *Euro* hitzean agertu da, eta emazte zahar batek eman du.




1. irudia: [i] alofonoaren espektrograma

2. irudian, bigarren dardarkari bakun bat agertzen da eta hau da [i] alofonoa. Honek, aurrekoak bezala, hiru formakinak pasarazten ditu. Aldiz, zaratarik ez du markatzen. 1. irudian eta 2. irudian agertzen diren alofonoa, hurbilkariak deitzen dira ez baitute hutsunerik markatzen. [i] alofonoaren kasua 12 aldiz emana izan da eta beti bokal artean zelarik: *oro, euro, hurra* eta *erri*, hitzetan agertzen baita.




2. irudia: [i] alofonoaren espektrograma

[ $\widehat{r_i}$ ] alofonoaren kasua 3. irudian agertzen da. Ikusten da alofono honek hastapenean hertsigune bat markatzen duela eta ondotik, zarata markatzen duela. Alofono hau, 4 aldiz agertu da, eta *euro* maileguan edo *hurra* hitzean agertu da.

3. irudia: [ $\widehat{r_i}$ ] alofonoaren espektrograma


Azken dardarkari bakuna aztertzen bada 4. irudian, erran nahi bai [ $f$ ] alofonoa, ikusten da honek hutsune bat markatzen duela dardarkari osoan zehar, eta beraz, formakinik ez dela agertzen. Soinu hori, 24 aldiz agertu da. Bakun erabiliena da beraz. Eta hori, bokal artean eta hitz bukaeran agertu da *hor* hitzean bezala.

4. irudia: [ $f$ ] alofonoaren espektrograma

Ikusi da beraz, bakunak orotara 41 aldiz erabiliak izan direla. Bainan erran behar da dardarkari multzo hau zaharrek gehiengoan erabiltzen duten bat dela. 41 ahoskatze horietan, 4 aldiz gazte edo heldu batek eman du. Erran nahi du beraz, bakunak zaharrek erabiltzen dituzten dardarkariak direla.


### 3.2. Dardarkari anizkun apikariak

Dardarkari anizkun apikarietan, bi alofono desberdin lortu dira : [r2] eta [r3]. 5.irudiaren kasuan, agertzen da bi hertsigune badirela, beraz [r2] baten kasuan gara. Soinu hori, 39 aldiz emana izan da. 8 hitz ezberdinetan markatua izan da erran nahi baitu: *euro, erri, hurra, armada, erdi, orkatz, ürxaintx* eta *hor* hitzetan. Beraz, bokal artean, kontsonante aitzinean edo hitz bukaeran agertu den soinu bat da.



5. irudia: [r2] alofonoaren espektrograma

Aitzineko taulan 2 hertsigune markatzen baziren, 6. irudiaren kasuan 3 hertsigune agertzen dira. Kasu honetan beraz, [r3] baten aitzinean gara. Hau lau aldiz agertu da eta *oro* hitzean baizen ez da agertu.




6. irudia: [r3] alofonoaren espektrograma

Dardarkari anizkun apikariak, salbuespenik gabe, zaharrek ahoskatu duten soinu multzo bat da. Hori gazte eta helduen gizaldien artean, desagertua den soinu bat da.

### 3.3. Dardarkari anizkun ubularrak


Dardarkari anizkun ubularretan hiru alofono desberdin lortu dira. 7.irudian [R] alofonoa agertzen da. Irudi honetan agertzen da hertsigune anitz markatuak direla

dardarkari osoan zehar. 25 aldiz baliatua izan da. Adin talde guztiekin erabiltzen duten soinu bat da. Soinu hau, bi bokalen artean ahoskatua izan da *oro*, *hurra* edo *euro*, baina ere kontsonante aitzinean *orkatz*, *ürtxaintx* eta *erdi* hitzekin edo hitz bukaeran *hor* hitzarekin.




7.irudia: [R] alofonoaren espektrograma

8. irudian agertzen den alofona gehienik erabilia izan dena da. [ɾ] alofona orotara 96 aldiz emana izan da. Soinu honek, [R]-k bezala, hertsiguneak ezagutzen ditu, baina gainera, hirugarren formakin gora, zarata badu. Soinu hau, Bi bokalen artean *oro*, *hurra*, *erri* edo *euro* hitzekin ikusten da, baita kontsonante aitzinean ere, *orkatz*, *ürtxaintx*, *erdi* eta *armada* hitzekin. Hiru gizaldiek bederen behin ematen duten soinu bat da.



8. irudia: [ɾ] alofonoaren espektrograma

Lortutako azken alofona, 9. irudian agertzen den [χ] alofona da. Honek berezitasun bat badu, ahoskabetua den dardarkari bat baita. Hori ikusten da F0 formakin desagertzen baita dardarkari osoan zehar. Soinu hau, 53 aldiz erabilia izan da eta zaharrek baliatzen ez duten soinua da. Soinu hau, testuinguru guztietan atzemana izan da, eta gehienik hitz bukaeran lortutakoa izan da.




9. irudia: [χ] alofonoaren espektrograma

Dardarkari anizkun ubularrak, gazteek eta helduek gehienik erabiltzen duten soinu multzo bat da. Zaharrek orotara, 5 aldiz erabiltzen dute. Beraz erraiten ahal da gaur egun nagusitzen diren dardarkariak gazteek eta helduek erabiltzen dituzten dardarkari anizkun ubularrak direla.


#### 4. Emaitzak

Espektrogramak aztertzerakoan, agertu da adinaren arabera hausturak bazirela dardarkari hautuaren egiterakoan. Hala nola, zaharrek bakun edo apikarietara jotzen dute; aldiz, gazte eta helduen ubularrak nahiago dituzte. Lan honetan, iraupena, energia eta F2 formakina aztertzerakoan adinaren araberako esanguratasun estatistikoak lortu dira. Eta SPSS programaren bidez lortutako 1. dendogramak erakusten du argiki zaharrek gizaldi desberdin bat markatzen dutela. Ikusten da gorri markatuak diren informanteek talde bat osatzen dutela, eta bestalde, berdez markatzen dutenek beste bat osatzen dutela. Gorri markatuak direnak gazte eta helduak dira. Hala ere, talde honetan, agertzen da gazteek talde bat osatzen dutela eta helduek beste bat.



1. dendrograma: adinaren araberako informanteen sailkapena

10. irudi horretan, agertzen da hiru gizaldiek hiru talde osatzen dituztela. Ikusten da irudiaren eskuin aldean, urdinez markatuak diren zaharrek talde bat osatzen dutela nahiz eta aski barreiatuak diren. Bestalde, ezker aldean, arrosez diren gazteek eta berdez diren helduek beste talde bat osatzen dute. Baino gorago errana izan den bezala, agertzen da ezker aldeko goiko partean berdea dela nagusi, eta azpiko partean aldiz, arrosa dela nagusi. Agertzen da nahiz eta zaharren desberdintasuna bezala ez hain markatua izan, beraz, heldu eta gazteen artean desberdintasuna badirela ere.



10. irudia: informanteen eskala dimentsio anizkuna

## 5. Ondorioak

Ondorio gisa, gorago aipatu den bezala, erranen da zaharren eta besteen artean haustura bat badela. Erran nahi baitu, zaharrek dardarkari desberdinak erabiltzen dituztela eta beraz, 10. irudian agertzen den bezala, maparen bestaldean agertzen direla. Beraz, lortutako argazkian agertzen den bezala, zaharrek desberdin egiten dute, eta gazte eta helduen artean nahiz eta desberdintasun txipi bat ukantzen, bateratu egiten dira. Aurresuposatzen da honekin, dardarkari anizkun apikariak, baita dardarkari bakunak ere emeki-emeki ahozkoan desagertuko direla. Hala ere, kantuetan oraindik atxikiak diren soinuak baitira, ezin da erran testuinguru guztietan desagertuko diren soinuak direla.

## 6. Bibliografia

- Coyos, J.B. (2002). Zubereraren idazkeraz: ortografia, fonetika eta fonología. *Lapursum*, 7, 201-219. doi: [10.4000/lapursum.1088](https://doi.org/10.4000/lapursum.1088)
- Gaminde, I. (2006). Dardakarien ezaugarri akustikoez. *Euskalingua*, 8, 75-82.
- Ladefoged, P. & Maddieson, I. (1996). The Sounds of the World's Languages, Blackwell, Oxford. doi: [10.2307/417875](https://doi.org/10.2307/417875)
- Trask, R. L. & Millar, R. M. (1996). Trask's Historical Linguistics. Hodder, Arnold
- Txillardeg. (1978). Fonetika baturuntz. *Euskeria*, 24, 683-690.

**LARRABETZUKO EUSKALDUN BERRIEN SEME-ALABA EUSKALDUN  
ZAHARREN EZAUGARRI PROSODIKOEZ<sup>19</sup>**  
**Naia Eguskiza, Iñaki Gaminde, Ander Olalde, Aintzane Etxebarria eta Ursua  
Gaminde**  
**Euskal Herriko Unibertsitatea**  
**[naia.eguskiza@ehu.eus](mailto:naia.eguskiza@ehu.eus), [inaki.gaminde@ehu.eus](mailto:inaki.gaminde@ehu.eus), [ander.olalde@ehu.eus](mailto:ander.olalde@ehu.eus),**  
**[aintzane.etxebarria@ehu.eus](mailto:aintzane.etxebarria@ehu.eus), [ursua.gaminde@gmail.com](mailto:ursua.gaminde@gmail.com)**

### **Laburpena**

Euskaldun berriak ugaritzut etsorri diren heinean, seme-alabei euskararen barietate berria transmititu diete eta gazte horiek egiten duten barietatea da hemen aztertu nahi dena. Bestalde, Larrabetzu aukeratu da herri euskalduna delako eta barietate tradizionalekin batera barietate berri hauek nahasten direlako. Beraz, alde batetik, talde honetako hiztunek euskararen barietate berria daukate ama hizkuntzatzat, baina, beste alde batetik, bizi direneko ingurune sozialaren eraginez, bertako barietateen eragina daukate, txikitatik bertako gazte euskaldun zaharrekin batera bizi direlako. Gure aurreko lan batean (Gaminde et al., 2016b) azentu ereduaren eta oinarrizko esaldien intonazioaren aldakortasuna hartu genuen aztergaitzat informatzaileen belaunaldien eta generoaren arabera. Oraingo honetan talde honetako informatzaileen azentu ereduaren eta oinarrizko esaldien intonazioaren ezaugarriak aztertuko ditugu eta adin bereko barietate tradizionaleko hiztunen gauzapenekin erkatuko ditugu. Hortaz, lan honen helburu nagusia da deskribatzea talde honetako hiztunen azentu eta intonazio ereduak eta erkatzea bertako barietate tradizionalekin, jakiteko bateratzen diren edo talde homogeneo eta bereiz bi osatzen duten. Lana egin ahal izateko, hiztun talde bakoitzeko launa informatzailerentzat datuak erabili dira.

**Gako-hitzak:** hizkuntza bariazioa, prosodia, euskara, Larrabetzuko barietatea

### **1. Sarrera**

Euskal hiztunen tipologia aspaldiko urteekin aldatuz doana gauza jakina da. Orain dela 50 bat urte euskal hiztun mota bi baino ez zeuden; euskaldun zaharrak izenekoak eta euskaldun berriren bat edo beste. Lehenengoek familia transmisioaren bidez ikasten zuten barietate tradizionalen bat eta gero bakarren bat alfabetatu ere egiten zen euskaraz. Euskaldun berriei euskaldun zaharrekin zituzten erlazioen bidez ikasten zuten euskara, ez gaur egun ezagutzen ditugun eredu formalen bidez; ikasten zutena barietate tradizionala zen.

Gerora euskararen berpizkundearen hasieran euskara ikasteko eredu formalak ezarri ziren eta euskaldun berriak izenekoak euskararekin jabetzen ziren hasieran gau eskoletan, euskaltegietan geroago eta antzeko beste ikastegi batzuetan eta eskoletan oraintsuago. Euskaldun hauetako gehienek, salbuespenak salbuespen, ikasi duten euskararen barietatea edo aldaera berritzat jo behar da. Talde hau, jakina, ez da homogeneoa ez hizkuntzaren ezagutzaren ikuspuntutik ez eta hizkuntzaren erabileraarenetik ere. Gainera, ezin uka daiteke euron inguruneen egoera soziolinguistikoa baldintzatzen dituzten ikasketa, jabetze prozesua eta jarduna.

Edozelan ere, urteak joan urteak etsori, talde honetako euskaldun berri batzuek seme-alabak eduki dituztenean, sarri askotan izugarrizko ahalegina bitarteko, euskara transmititu diete eta orain gazte horiek, gehienak gazteak direlako, euskaldun zaharrak

<sup>19</sup> Lan hau GIU 22/16 eta IT 1028/16 erreferentziadun proiektuen barnean egin da.

dira, familia transmisióaren bidez euskara lehen hizkuntzatzat jaso dutelako; hala ere, jaso duten barietatea ez da barietate tradicionala izan, beste bat baino.

Euskara batuaren eta estandarraren sorreran eta ondorengo urteetan zehar izan duten bilakaera ere kontuan hartu beharko litzateke prozesu honetan (Maia, 2001; Amorrortu, 2003; Zuazo, 2005); nola ulertzen zen euskara batua abian paratu zenean, geroko bilakaeran eta gaur zer den. Ez dakigu orduko sasoian estandarizazio prozesua martxan ipini zutenek aurre ikusten zuten barietate hori hitz egiteko erabiliko zenik eta are gutxiago lehen hizkuntza gisa transmitituko zenik familia giroan.

Baina gatozen darabilgun gaiaren harira eta zilegi izan bekigu galdera bat plazaratzea: Euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharrek ba ote daukate aldaera homogeneorik, Euskaltzaindiak eman eta ematen dituen arau guztiengatik ere?

Lan xume honen bidez ezin erantzun diezaiokegu galdera honi zehaztasun osoz, baina bai ohartarazi ikerketa lerro hau abiarazteko garrantziaz; izan ere, gerora talde honek soziologikoki pisua hartuko du gizartean ezbairik gabe.

Bestalde, eta hipotesi gisa besterik ez bada ere, gure intuizioetan oinarrituta, plazaratu dezakegu erratzeko beldur handi barik ezen erantzuna ezezkoa izango dela. Talde honetan ere, aldakortasuna egongo da ezinbestez, zeren, euskaldun berrieikin irudikatu dugun bezala, hala euren inguruneen egoera soziolinguistikoak oso ñabarrak eta heterogeneoak baitira. Aldez aurretik, pentsa daiteke ezin ber eredu linguistikoak erabiliko dituztela Larrabetzu bezalako herri euskaldun batean bizi direnek edo ingurunean erdara baizen ez daukatenek. Guk honako aukeratu dugun kasu honetan hiztun hauek barietate tradicionala jaso duten hiztunekin batera bizi izan dira euren denbora osoan; talde bietako hiztunak elkarrekin egon dira txikitatik, elkarrekin olgatu dute, elkarrekin eskola berean egon dira eta kasu batzuetan lagun talde bereko kideak dira. Gauzak honela, pentsa daiteke elkarren ezaugarri linguistiko komunak agertuko direla eta taldeen banaketa lausotu eta ez dela agerikoa izango, etxearen jasotako barietateak batzuk izanagatik ere. Nolanahi ere den, datuak eta ikerketa etorri beharko dira gure hau ezesten edo baiesten.

Behin honezkerio badauzkagu Larrabetzuko euskara tradicionalaren bilakaeraren gainean egineko lan batzuk (Etxebarria et al., 2016; Gaminde et al. 2015, 2016a), baita honetarako aukeratu ditugun gaien gaineko beste bat ere (Gaminde et al., 2016b). Bertan adierazi bezala, Larrabetzuko azentuan eta oinarrizko esaldien intonazio ereduetan belaunaldien arteko aldeak nabarmenak dira, zein, bestalde, gertakari arruntzat hartu behar baita, hizkuntzen dinamikan.

Honenbeste, lan honen helburua nagusia da, Larrabetzuko euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharren azentu-ereduaren eta oinarrizko esaldien intonazioaren ezaugarri nagusiak deskribatzea eta bertako adin bereko barietate tradicionala ama hizkuntzatzat jaso duten hiztunen ezaugarriekin erkatzea. Egiten dihardugun lan sakon baten behin-behineko emaitzen arabera (Gaminde et al., 2017), arlo batzuetan ez dago talde hauen arteko alde nabarmenik. Hemen aurkezten ditugun gaiok aukeratu ditugu aurreko lanean ezarritako lan ildo berean kokatzen direlako.

## 2. Corpusa eta metodologia

Aurkezten dugun azterketa burutzeko erabili dugun corpusa osatzeko zortzi informatzaile izan ditugu; lau euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharren taldekoak (C taldea hemendik gora) eta beste lau barietate tradizionala jaso dutenen taldekoak (A taldea hemendik aurrera). Informatzaile guztiak 1991-2000 urte artean jaiokoak izan dira eta talde bakoitzeko bi neskak izan dira eta bi mutilak.

Datuak jasotzeko galdekizun zehatza egin da 22 galderarekin; 15 azentuari dagozkio eta 7 oinarrizko esaldien intonazioari.

Galdekizunak Marantz PMD610 izeneko grabagailuarekin eta kanpo mikrofono batekin grabatu dira. Grabaketak “praat” (Boersma eta Weenink, 2016) izeneko programaren bidez transkribatu eta etiketatu dira datu-basea osatzeko.

Datuen azterketa linguistikoa egitean galdera bakoitzaren tasunak definitu dira geroagoko azterketa kuantitatiboa egin ahal izateko. Azkenik, azterketa kuantitatiboa behin tasunen hedadura finkatuz gero, SPSS programaren bidez estatistiko batzuk erabili ahal izan dira.

## 3. Azentu eredua

Larrabetzuko azentu-sistema eta beronen bilakaera aurreko lan batean aztertu genuen (Gaminde et al., 2016b) eta azentu-sistemaren arau orokorrak ezartzeko irizpideak ere eman ziren bertan (Gaminde, 1998, 2010, 2011). Irizpide horiek erabilita Larrabetzuko zaharren euskararen azentu sistemaren tasunak ondoko era honetara laburbil daitezke:

- (1) Azentu bereizgarria
- (2) Eremua talde klítikoa
- (3) Arau orokora:      Azken silaba estrametrikala  
                                Arau nagusia [2]

ó-o: súrre, txárra, úre, óna, e.a.  
 o-ó-o: adárra, adúrre, andié, aldátza, e.a.  
 o-ó-o-o: abádea, abératza, afárie, alábia, e.a.

Berba markatuak azentu sistema honetatik kanpo geratzen direnak dira; hiru silabako hitzen kasuan lehen silaban azentuatzen direnak: “ábie” (habia), “átzia” (atzea), “lória” (lorea), “órmia” (horma), “sútia” (sukaldea), e.a. Lau silabako berben kasuan markatuek azentua lehen silaban eduki dezakete: “békokie” (bekokia), “béskarie” (bazkaria), “dénporea” (denbora), “léngusue” (lehengusua), e.a. Baino badira hirugarren silaban azentua txertatzen dutenak ere: “biribile” (biribila), “errosóya” (arrazoia), “martitzéna” (asteartea), “txakoline” (txakolina), “karakóla” (barraskiloa), e.a.

Azentu bereizgarriaren erabilera aztertzeko, aurreko lanean legez, singularrak eta pluralak bereizten diren ikusi dugu, galdera multzo biren bidez; batean sintagma baten singularra eta plurala bereizten diren ikusiko da eta bestean erakusleen singularra eta

plurala. Aukeratu den sintagma “*lagunena*” izan da (berau “*lagunarena*” eta “*lagunena*” izan daiteke azentuatutako silabaren arabera informatzaile batzuen erabileran); erakusleak “*onéri*” (honi) eta “*onéri*” (hauei) izan dira.

Larrabetzun bereizkuntza egiten duten edadeko informatzaileek tonuaren bidez egiten dute, izan ere, bai singularrean bai pluralean azentua silaba berean txertatu arren, singularrean L\*+H azentu tonuduna txertatzen da eta pluralean H\*+L. Honek esan nahi du L\*+H txertatzen denean sintagmaren gailurra azentuaren osteko silaban kokatzen dela eta H\*+L txertatzen denean, berriz, silaba azentudunean (Gaminde et al. 2016b).


Gure oraingo informatzaile guztiak, A taldekoek zein C taldekoek, sintagman bereizkuntza galdu dute. Erakusleen bereizkuntza A taldekoek baino ez dute egiten.

Aurreko lan batean (Gaminde, 1998) azentuaren eremutzat talde klítikoa jotzen zen; honen arabera isolatuki edo talde klítikoan silaba bakarreko erroak desberdin azentuatzen dira (1). Arazo hau ikertzeko galdekizunean galdera multzo bat sartu genuen aurreko lanean eta gazteen artean azentu eremua berba dela probatutzat utzi genuen arren, gure oraingo lanean ere eutsi diogu galdera multzo honi. Emaitzak aztertuta, esan behar da berba hartzen dela eremutzat eta “da” adizki klítikoa gehituta azentuaren egongunea ez dela aldatzen; hau da “*txárra*” eta “*óna*” berbei “da” gehituta azentua ez da aldatzen: “*txárra da*” eta “*óna da*”. Honetan informatzaile guztiak bat datoaz.

Berba markatuen jokabidea aztertzeko bederatzi berba aukeratu ditugu: “*sútia*” (sukaldea), “*lékue*” (lekua), “*sémia*” (semea), “*txistue*” (txistua), “*déndia*” (denda), “*intxurre*” (intxaurrea), “*lengusue*” (lehengusua), “*ormia*” (horma) eta “*béskarie*” (bazkaria).

Hitz markatuetan dauden 72 aukeretatik markatu gisa egin dira 27 (% 37,5), markatuak galtzeko joera nabarmena da (Pascual, 2013, Gaminde eta al., 2016b). “*beskarie*” eta “*lengusue*” berbak behin ere ez dira markatu gisa erabili. Gainerakoak kopuru batzuekin agertzen dira: “*txistue*” (6, % 75), “*sutia*” (6, % 75), “*ormia*” (4, % 50), “*lekue*”, “*dendia*” eta “*intxurre*” (3, % 37,5) eta “*semia*” (2, % 25). “*dendia*” eta “*ormia*” berben kasuan kontuan hartu behar da informatzaile batzuek “a” artikulua eransteaan “*dénda*” eta “*órma*” egiten dutela eta orduan hitzak ez dira markatuak, ezpadaze arau orokorraren arabera azentuatuak.

Ikusi berri ditugun tasun hauen guztien probabilitateak kalkulatuta sortu dugu distantzia matrizea informatzaileak sailkatzen. Sailkapena multzokatze azterketaren bidez egin dugu distantzia euklidear karratua eta Ward metodoa erabilita. 1. irudiko dendrograman ikusten den bezala, nahikoa homogeneoak diren multzo bi sortzen dira. A multzoan A taldeko informatzaile guztiak kokatzen dira C taldeko informatzaile batekin eta B multzoan gainerako C taldeko informatzaileak kokatzen dira.




1. irudia: Informatzaileen sailkapena azentu-sistemaren ezaugarrien arabera.

#### 4. Oinarritzko esaldien intonazioa

Esaldien intonazio ereduak aztertzeko eta erkatzeko aukeratu ditugun esaldiak zazpi izan dira: adierazpen esaldiak (sintagma bat eta birekin), bai/ez galderak, n-z galderak, hautazko galderak, oihartzun-galderak eta zalantzako galderak. Hemen aurkezten dugun azterketarako esaldien f0-ren azterketa fonetikoan oinarritzen den eredua erabili dugu (Gaminde eta Gandarias, 2015b). Atalaren amaieran informatzaileen sailkapena egingo dugu esaldi moten emaitzen arabera.

Sintagma bakarreko adierazpen-esaldietan mota bi baino ez zaizkigu agertu. Bietan esaldiaren gailurra sintagman kokatzen da, aldea lehen sintagmaren gailurra kokatzen deneko silaban gertatzen da, kasu gehienetan hirugarren silaban agertzen da gailurra (% 88,89), hau da, silaba azentudunaren ostekoan eta kasu bakar batean baino ez zaigu silaba azentudunean bertan agertu (% 11,11). Azken erabilera hau C taldeko mutil batena izan da. Aditzaren gailurra bigarren silaban txertatzen da kasu gehienetan (% 88,89), salbuespen bakarra C taldeko mutil batena da, beronek hirugarren silaban txertatzen du eta. 2. irudian f0-ren kurbaren adibide bat erakusten da.



2. irudia: Adierazpenezko esaldi baten f0-ren kurba.

Adierazpen-esaldietan sintagma bi daudenean esaldi osoaren gailurra lehen sintagman kokatzen da kasu guztietan; esaldien arteko aldeak sintagmen eta aditzaren gailurren kokaguneetan agertzen dira. Lehen sintagmaren gailurra (1. sin. gai.) kasu guztietan agertzen da hirugarren silaban, bigarren sintagmaren gailurraren (2. sin. gai.)

kokaguneari dagokionez, aukera bi daude, bigarren silaban (5, % 62,5) eta hirugarren silaban (3, % 37,5). Azkenik, aditzaren gailurra (Adi. gai.) bigarren silaban kokatzen da kasu gehienetan (6, % 75) eta hirugarren silaban kasu bitan (% 25). 6. irudiko sonograman f0ren kurbaren adibide bat erakusten da. Ezaugarri hauekin matrize bat osatzen badugu, 1. taulan erakusten diren bektoreak lortzen dira, bertan bakoitzaren agerpen kopuruak eta euron portzentajeak adierazten dira.


Bektorea	1. sin. gai.	2. sin. gai.	Adi. gai.	kopurua	%
1	3	2	2	4	50
2	3	2	3	1	12,5
3	3	3	2	2	25
4	3	3	3	1	12,5

1. taula: Ezaugarrien bidez lortutako bektoreak eta euren kopuruak eta portzentajeak.

Bektoreen erabilera informatzaileen ama-hizkuntzaren arabera aztertuz gero, ikusten dugu A taldea homogeneoagoa dela besteak baino, horrela bada, A taldeko informatzaile guztiak 1. bektorea erabiltzen dute eta C taldekoek, berriz, beste hirurak.

Bai/ez galderetan kontuan hartu ditugun ezaugarriak sintagmaren gailurra txertatzen deneko silaba eta esaldiaren muga-tonua izan dira.

Gure informatzaile guztiak sintagmaren gailurra beronen azken silaban kokatzen dute. Muga-tonu bi baino ez zaizkigu agertu: HL (7, % 87,5) eta L (1, % 9,09). Azken muga-tonu hau A taldeko neska batek erabili du. Gehien erabiltzen den HL muga-tonua 3. irudian erakusten da.




3. irudia: Bai/ez galdera baten f0ren kurba, amaieran HL muga-tonua daukala.

N/Z galderetan muga-tonuak hartu ditugu aztergaitzat. Gure informatzaileetan hiru muga-tonu agertu zaizkigu: L (5, % 62,5), LH (2, % 25) eta H (1, % 12,5). Muga-tonu kopuruak erakusten dira 2. taulan informatzaileen ama hizkuntzaren arabera sailkatuta; era berean, 3. irudian gehien erabiltzen den L muga-tonua ikus daiteke.

AH.	L	LH	H
A	2	2	0
C	3	0	1

2. taula: Muga-tonuen kopuruak informatzaileen ama-hizkuntzaren arabera.




4. irudia: N/Z galdera baten f0ren kurba, amaieran L muga-tonua daukala.

Hautazko galderak egiteko informatzaileek “ala” (4, % 50) erabiltzen dute eta “edo ser” (4, % 50). Sintagmaren gailurra hirugarren silaban agertzen da kasu guztieta; aditzaren gailurra, ostera, hirugarrenean egon daiteke (4, % 50) edo bigarrenean (4, % 50). Esaldi osoaren gailurra kasu guztieta aditzean kokatzen da (5. irudian “ala”rekin egingo esaldi baten f0ren kurba erakusten da). Azkenik, muga-tonu bi agertu zaizkigu: L (7, % 87,5) eta LH (1, % 12,5). Datu hauen bidez matrize bat sortzen badugu, 3. taulako bektoreak lortzen dira.

	Morfema	Adi. gai.	M-T	kopurua	%
<b>1</b>	ala	2	L	3	37,5
<b>2</b>	ala	3	LH	1	12,5
<b>3</b>	edo ser	3	L	3	37,5
<b>4</b>	edo ser	2	L	1	12,5

3. taula: Ezaugarrien bidez lortutako bektoreak eta euron kopuruak eta portzentajeak.



5. irudia: Hautazko galdera baten f0ren kurba, amaieran L muga-tonua daukala.

Bektoreen erabilera informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertuz gero (4. taula), ikusten dugu C taldeko informatzaileek erabiltzen dutela bektore kopuru handiagoa A taldekoek baino.

AH.	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>
<b>A</b>	3	0	1	0
<b>C</b>	0	1	2	1


4. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen ama-hizkuntzaren arabera.

Oihartzun galderak “esta” edo “es” erabilita egin daitezke. Galdera mota hauetan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak hauek dira: “esta” ala “es” erabiltzen den; sintagmaren eta aditzaren gailurren silaba; esaldiaren gailurra sintagman ala aditzean kokatzen den; eta azkenik, esaldiaren muga-tonuak.

Informatzaileen artean “esta” da gehien erabiltzen dena (7, % 87,5) eta “es” gutxien (1, % 12,5). Esaldiaren gailurra kasu guztietan sintagman kokatzen da eta berau beti izaten da sintagmaren azken silaba (6. irudian f0ren kurba bat erakusten da). Aditzaren gailurra bigarren silaba izan daiteke (7, % 87,5) edo hirugarrena (1, % 12,25). Muga-tonua H izan daiteke (6, % 75) edo LH (2, % 25). Aldatzten diren ezaugarrien datuak matrizean sartuta 5. taulan erakusten diren bektoreak lortzen dira.

Bektoreak	Morfema	Adi. gai.	M-T	kopurua	%
<b>1</b>	esta	2	H	4	50
<b>2</b>	esta	2	LH	2	25
<b>3</b>	esta	3	H	1	12,5
<b>6</b>	es	2	H	1	12,5

5. taula: Ezaugarrien bidez lortutako bektoreak eta euron kopuruak eta portzentajeak.




6. irudia: Oihartzun galdera baten f0ren kurba, amaiieran H muga-tonua daukala.

Bektoreen erabilera informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertuz gero (6. taula), ikusten dugu A taldeko informatzaileek erabiltzen dutela bektore kopuru handiagoa C taldekoek baino.

AH	1	2	3	4
<b>A</b>	1	2	0	1
<b>C</b>	3	0	1	0


6. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen ama-hizkuntzaren arabera.

Zalantzako galderak “ete” (ote) partikularen bidez egiten direnak dira. Gure informatzaileetan hiruk baino ez dute erabili (% 37,5) mota hau; hirurak A taldekoak izan dira eta bi neskak eta bat mutila. Argi dago kasu honetan informatzaileen ama-hizkuntzak eragin zuzena daukana beronen erabileran. Bestalde, informatzaile horietako bik HL muga-tonua erabili dute eta batek L. L muga-tonua erabili duen informatzaileak aditzaren gailurra lehen silaban erabili du (7. irudiko sonograma) eta beste biek bigarrenean.



7. irudia: Zalantzako galdera baten f0ren kurba,  
amaieran L mugatona daukala.


Azkenik, esaldi mota bakoitzeko aztertu ditugun ezaugarri guztien emaitzen arabera multzokatze azterketa egiten badugu, 8. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen den bezala, A multzoan 5 (% 62,5) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 2 (% 25), hortik kanpo informatzaile bat kokatzen da (% 12,5). Dendogramaren multzoak informatzaileen ama-hizkuntzaren arabera aztertuta, multzo homogeneorik ez dagoela esan dezakegu..



8. irudia: Informatzaileen sailkapena intonazioaren tasunen arabera.


## 5. Informatzaileen sailkapena

Atal honetan informatzaileen sailkapena egingo dugu teknika bi erabilita. Alde batetik, multzokatze-azterketa erabiliko dugu eta horretarako distantziak kalkulatu ahal izateko aurreko atal bietan lortu ditugun emaitzekin matrizea osatu dugu lehenengo eta behin. Multzokatze azterketa eginda 9. irudian erakusten den dendrograma lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, ezaugarri prosodiko guztien arabera sailkapena egiten dugunean, A taldeko informatzaileak multzo batean kokatzen dira eta C multzokoak, berriz, bestean.



9. irudia: Informatzaileen sailkapena azentu sistemaren eta oinarrizko esaldien tasun guztien arabera.

Gauza bera egiten badugu, sailkatzeko erabiltzen den dimentsio anitzun eskala izeneko teknikarekin, 10. irudian ikus daitekeen irudia lortzen da. Bertan argi ikus daitekeen moduan, talde bietako informatzaileak ez dira nahastatzen espazioan.



10. irudia: Informatzaileen sailkapena tasun guztien arabera, dimentsio anitzun eskala probaren arabera.

## 6. Ondorioak

Aurreko atal bietan ikusi dugun bezala, hemen aztergaitzat hartu ditugun prosodiaren arlo biotako emaitzak, informatzaileen sailkapenari dagokionez, banan aztertuta oso desberdinak izan dira; hau da, azentu-sistemaren ezaugarrien araberako sailkapena egiten dugunean, A taldeko informatzaileak bereiz agertzen dira C taldeko informatzaile batekin eta, sailkapena oinarrizko esaldien ezaugarrien arabera egiten dugunean, informatzaile guztiak nahiko nahasirik agertzen dira multzo argirik agerian ez dagoela.

Alta, arlo biotako ezaugarri guztiak kontuan hartzen ditugunean, eta informatzaileen sailkapena denen arabera egiten denean, banaka agertzen ez diren emaitzak azaleratzen dira eta orduan multzo nagusi bi bereiz agertzen dira ondo zedarriturik. Batean A taldeko informatzaileak agertzen dira eta bestean C taldekoak.

Hemendik ondorio nagusi bi atera ditzakegu. Batetik, konplexutasunaren teoriaren ikuspuntutik (Beckner et al., 2011; Ellis, 2011; López Rivera, 2013; Moreno Cabrera, 2008; Léonard et al., 2015), hemen argi agertzen zaigu sistema gehiago dela bere osagaien batura baino eta modelizazio linguistikoaren eta matematikoaren ondorioz azpian dautzan egiturak azaleratzen direla prozesuaren bidez, hots, sistema honek balio diezaguke begi bistan ez dagoena bistaratzeko.

Bestetik, datu hauen argitara esan dezakegu ezen euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharrak Larrabetzun gainerako euskaldunekin bizi diren arren, oraindik ez direla jabetu prosodiaren arlo biotako A taldeko gainerako euskaldunen ezaugarriekin edo, gurago bada, talde biak ondo mugatuta agertzen direla.

## 7. Bibliografia

- Amorrotu, E. (2003). *Basque Sociolinguistics: Language, Society, and Culture*. Center for Basque Studies, University of Nevada. Reno.
- Beckner, C., Blythe, R., Bybee, J., Christiansen, M. H., Croft, W., Ellis, N. C., Holland, J., Ke, J., Larsen-Freeman, D., & Schoenemann, T. (2011). *La lengua es un sistema adaptativo complejo Lingüística en la Red*. [http://www.linred.es/articulos\\_pdf/LR\\_articulo\\_04092011.pdf](http://www.linred.es/articulos_pdf/LR_articulo_04092011.pdf)
- Boersma, P., & Weenink, D. (2016) *Praat: doing phonetics by computer, Version 5.1*. [Computer program]. <<http://www.praat.org>>
- Ellis, N. C. (2011). The Emergence of Language as a Complex Adaptive System. In James Simpson (Ed.), *Routledge Handbook of Applied Linguistics*. London: Routledge/Taylor Francis.
- Etxebarria, A., Gaminde, I., Olalde, A., & Gaminde, U. (2016). Hizkuntza aldakortasuna Larrabetzuko aditz morfologian. In Iglesias, A.; Romero, A. eta Ensuna, A. *Linguistic variation in the Basque language and education – II / Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza – II*. Bilbo: UPV/EHU.
- Gaminde, I. (1998). *Euskaldunen azentuak*. Bilbo: Labayru.
- Gaminde, I. (2010). *Bizkaiko Gazteen Prosodia: Euskaraz eta Gaztelaniaz*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I. (2011). Noraka Euskal Azentuak?. In Aurrekoetxea, G. eta Gaminde, I. (edi.) *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak/I. Jornadas sobre Prosodia y Educación*. Leioa: UPV-EHU
- Gaminde, I., & Gandarias, L. (2015a). Irizpide batzuk bariazioa aztertzeko intonazioan. In Aurrekoetxea, G.; Romero, A. eta Etxebarria, A. *Linguistic Variation in the Basque an Education-I/Euskararen Bariazioa eta Bariazioaren Irakaskuntza-I* (183-205 or.) Leioa: UPV/EHU
- Gaminde, I., Gaminde, U., Olalde, A., & Etxebarria, A. (2015b). Larrabetzuko testuen prosodiaz. *Euskalingua*, 27, 6-12
- Gaminde, I., Olalde, A., Gaminde, U., & Etxebarria, A. (2016a). Populazioaren sailkapena lexikoaren arabera. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 16, 68-84. Retrieved from <http://www.ehu.es/ikastorratza/16 Alea/4.pdf>
- Gaminde, I., Olalde, A., Etxebarria, A., & Gaminde, U. (2016b). Hizkuntz aldakortasuna Larrabetzuko azentuan eta intonazioan. *Euskalingua*, 27, 13-21.
- Gaminde, I., Olalde, A., Etxebarria, A., Eguskiza, N., & Gaminde, U. (2017). *Hizkuntza Aldakortasuna Larrabetzun* [agertzeko].

- Léonard, J. L., Heinsalu, E., Patriarca, M., & Darlu, P. (2015). Modeling regional variation from eas: complexity and communal aggregates. In Aurrekoetxea, G.; Romero, A. eta Etxebarria, A. *Linguistic Variation in the Basque an Education-I/Euskararen Bariazioa eta Bariazioaren Irakaskuntza-I* (50-58or.) Leioa. UPV/EHU.
- López Rivera, J. J. (2013). Aplicación del marco de los sistemas complejos adaptativos a un modelo de variación lingüística. *Moenia*, 19, 5-24.
- Maia, J. (2001). Eskola eta tokian tokiko hizkuntz aldaera. In Mendebalde Kultura Alkartea: *Euskalkia eta hezkuntza*. Bilbo.
- Moreno Cabrera, J. C. (2008). *El nacionalismo lingüístico: Una ideología destructiva*. Bartzelona: Ediciones Península.
- Pascual, M. (2013). *Mendebaldeko Azentua: Larrabetzuko Hitz Markatuak*. (lan argitaragabea)
- Zuazo, K. (2005). *Euskara Batua: Ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.

**PROZEDURA METODOLOGIKOEN KONPARAKETA HAUR ELEBIDUNEN  
HASIERAKO GARAPEN LEXIKOAREN INFORMAZIOAREN  
LORPENERAKO<sup>20</sup>**

**Irati de Pablo, Asier Romero, Aintzane Etxebarria eta Iñaki Gaminde**

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

**[irati.depablo@ehu.eus](mailto:irati.depablo@ehu.eus), [a.romero@ehu.eus](mailto:a.romero@ehu.eus), [aintzane.etxebarria@ehu.eus](mailto:aintzane.etxebarria@ehu.eus),**

**[inaki.gaminde@ehu.eus](mailto:inaki.gaminde@ehu.eus)**

### **Laburpena**

Ikerketa honen helburua da haurren garapen lexiko goiztiarra aztertzeko erabiltzen diren prozedura metodologiko ezberdinak arakatzea. Horretarako, ligin berarekin bi prozedura metodologiko desberdin aplikatu ziren: alde batetik, MacArthur-Bates inventarioak bai euskararako bai gaztelaniarako sortutako bertsioak eta, bestetik, luzetarako behaketa. Lagina 16 eta 30 hilabete arteko 8 haur euskaldunek sortu dute. Haur kopuru horren erdiak euskara du ama-hizkuntza eta beste erdiak, berriz, gaztelania. Emaitzek inventarioen balioa erakusten dute lexikoaren inguruko informazioa lortzeko, baina bere mugak ere badituzte, euren seme-alaben gehiegizko balorazioan oinarritzen direnak.

**Gako-hitzak:** Garapen linguistiko goiztiarra, MacArthur-Bates inventarioa, lexikoa, hizkuntzaren ebaluazioa

### **1. Sarrera**

Linguistika arloan diziplina zientifiko berrien agerpenak ikerkuntzaren perspektiba metodologikoan aldaketa importantea eragin du. Kontzeptualizazio enpiriko honetan, linguistika azterlanak oinarritu behar dira datu errealetan, eta horrez gain, kontuan izan behar dute bariazio soziala, geografikoa, estilistikoa eta hitz egiteko era (Garfinkel, 1967; Goffman, 1981; Halliday & Hasan, 1985; Hymes & Gumperz, 1964; Labov, 2001). Datu errealkak izateko beharrizan honekin planteatzen da zein den informazioa eskuratzeko erarik eraginkorrena eta hizkuntzaren garapena aztertu duten ikertzaileek erabili dituzten eretatik nabarmendu daitezke zeharkako eta luzetarako diseinuak. Baina autore batzuek proposatu izan dute bien konbinazioa, bakoitzaren puntu ahulak indartzeko (Baltes, Reese y Nesselroade, 1977), eta horri diseinu sekuentziala deitu zaio. Edozein diseinu izanda, pertsonaren portaera linguistiko espontaneoa aztertzeko behaketa-metodoa erabil daiteke edo, aldagaia manipulatu eta kontrolatzen badira, metodo esperimentalak jarri daiteke praktikan.

Behaketa metodoak eskaintzen digun tasunik onena da ikertzaileak ez duela zertan esku hartu, hau da, behatutako subjektua ezerk ez du mugatzen bere produkzio linguistikoan eta, horretaz gain, subjektuaren egunerokotasuneko egoera erreala eta testuinguru naturala aztertzen da. Baina, bestetik, ikertzailea egoerak ematen dionarekin konformatu behar da eta, ikertu nahi duen sistemaren ligin partziala eskuratzen du. Behaketaren barruan, testuinguruaren kokaturiko behaketa nabarmendu daiteke (Romero, De Pablo, Etxebarria, & Romero, 2017a; Romero, Etxebarria, De Pablo, & Romero, 2017b). Honek bi oinarrizko elementu ditu haurren hizkuntzaren jabezkuntzaren ikerketan: (1) haurrekin segurtasun eta konfiantzazko giroa lortu behar da, hori dela eta, gomendagarria da ikertzailea eta haren instrumentazioa haurrentzat ezagun izatea naturaltasun orekatu batean integratzeko; eta (2) testuinguru naturalean barneratzeko

<sup>20</sup> Lan hau GIU 22/16 eta IT 1028/16 erreferentziadun proiektuen barnean egin da.

estrategia garatu behar da. Horretarako, datuen konfidentzialtasuna mantendu behar da, ezarritako printzipio etikoak errespetatuz, indarrean dauden araudiak betez eta aldez aurretiko batzorde etikoaren aldeko txostena atxikiz. Bestalde, hizketakideak daude (familia kideak, tutoreak eta irakasleak), zeintzuk bitartekari funtzioa izango duten ikertzailea kanpoko pertsona arraro bezala ez ikusteko eta, horretaz gain, haurren inguruko informazioa emango digutenak behaketaren ikus-entzunezko erregistroa esanguratsuena izateko.

Bestetik, metodo esperimentalak jokaera konkretu bat eginarazi nahi du subjektuarengan eta, modu honetan, gaitasun linguistikoaren aspektu baten informazio zehatzagoa eskaintzen du. Ez da ahaztu behar metodo honek, datuak eskuratzeko moduari dagokionez, analisiaren egoeraren kontrol handia erabiltzen duela, planteatutako ikerketa hipotesiak egiazatzeko. Hizkuntzaren jabekuntzan metodo esperimentalak aplikatzeko zailtasuna da adin goiztiarreko subjektuen kolaborazioa lortzea; izan ere, motibazioa eta atentzia beharrezkoak dira. Gainera, aurreko zailtasunaz gain, beste muga garrantzitsu bat ere gaineratzen zaio: testuinguruak planteatzen duen naturaltasun eskasa, horregatik ikertzaile askok zalantzan jartzen dute metodo horren baliotasun metodologikoa (Kotiliarenco & Mendez, 1988). Metodo esperimentalaren barruan, ikertzaileek erabiltzen dituzten prozeduretatik, MacArthur-Bates inventarioak edo CDI eskalak daude (Fenson, Dale, Reznick, Thal, Bates, Hartung, Pethick y Reilly, 1994). Hau gurasoek betetzen duten txosten egituratua da eta euren seme-alaben portaera linguistikoaren eta komunikatiboaren inguruko informazioa ematen du. Beraz, CDI eskalek beste instrumentu batzuekin konparatuz gero, zenbait abantaila dituzte: prozeduraren gastu txikia, lagin handien garapen komunikatiboaren ebaluazioa egin daiteke eta, hogeita hamar egokitzapen baino gehiago izateak konparaketa inter-linguistikoak egitea ahalbidetzen du (Pérez-Pereira y García Soto, 2003). Baina badira aspektu negatiboak ere, konkretuki informazioa lortzeko prozedurari dagokionez, askotan euren seme-alaben garapen linguistikoaren gain balorazioa ematen baita.

Orduan, ikerketa honen helburu nagusia da gurasoek betetako galdetegiaren datuak konparatzea komunikazio espontaneoan egindako grabaketen emaitzeken. Horrela, garapen linguistikoaren datuak erregistratzeko teknika metodologikoekin lortutako emaitzak konparatuko dira eta datuak interpretatuko dira. Gure hipotesia da lortutako puntuazioen korrelazioan bariazioa egongo dela MacArthur-Bates inventarioen eta testuinguruan kokatutako behaketaren artean.

## 2.1. Metodoa

Atal honen edukiak hiru azpiataletan banatuta aurkeztuko dira. Lehenengo azpiatalean ikerketaren corpora aurkeztuko da; bigarrenean, erabilitako materialak eta prozedura eta, hirugarrenean, analisirako erabilitako kodea azalduko da.

## 2.2. Parte-hartzaleak

Ikerketaren corpora Bermeoko zortzi haur (4 neska eta 4 mutil) euskaldunen egintza komunikatiboek osatzen dute 17 hilabete dituztenetik 30 hilabete arte. Gurasoek grabaketak egiteko idatzizko baimena eman zuten. Ama-hizkuntzari dagokionez, zortzi haur horietatik lauk dute L1 euskara eta beste laurek L1 gaztelania eta guztiak daude euskararen murgiltze-programa baten barruan.

### *2.3. Materialak eta prozedura*

Hiru grabaketa egin ziren haurrek 17, 25 eta 30 hilabete bete zituzten hilabetean. Egindako hiru sesioak bideoz grabatu ziren subjektuen etxeetan behaketa metodologiaren bidez, konkretuki ikertzaileak behaketa ez-partehartzailea erabili zuen. Grabaketa bakoitzak 20-30 minuto inguru zituen, grabaketaren iraupena moldatzzen zelarik egun bakoitzean haurrak zuen egoera emozionala eta komunikatiboari. Sesioetan ez zen ariketen antolaketa patroi zehatzik jarraitu, elkarrekintza dinamikoa eta, modu batean, librea bilatuz (Bosh, 2004; Fernández López, 2009). Grabaketak ZOOM Q4HD kamerarekin egin ziren Rode SmartLav kanpoko mikrofonoarekin, haurraren arropan jarrita.


Haurrek bideoz grabatzeaz gain, MacArthur-Bates inventarioen bertsio estandarizatuak edo CDI eskalak (Fenson et al., 1993; gaztelaniazko bertsioa, López-Ornat, Gallego, Gallo, Karousou, Mariscal eta Martínez, 2005; euskarazko bertsioa, García, Arratibel, Barreña eta Ezeizabarrena, 2008) bai gaztelaniazko bai euskarazko egokitzapenak erabili ziren. CDIaren gaztelaniazko egokitzapenak bi galdelegiz osatuta dago (1. CDIa 8 hilabetetik 15 hilabetetara; eta 2. CDIa 16 hilabetetik 30 hilabetera arte) eta euskarazko egokitzapenak hiru galdelegiz osatuta dago (1. CDIa 8 hilabetetik 15 hilabetetara; 2. CDIa 16 hilabetetik 30 hilabetera arte; eta 3. CDIa 30 hilabetetik 50 hilabetera arte). Konkretuki, ikerketa honetan 2. CDIaren ‘hiztegi zerrenda’ atala erabili zen eta gurasoei eman zitzaien betetzeko euren seme-alabek 30 hilabete bete zituztenean. Logikoki, egunerokotasunean gaztelania erabiltzen zuten gurasoei gaztelaniazko egokitzapena eman zitzaien eta euskara erabiltzen zutenei euskarazkoa. 15 egun pasa ondoren, betetako inventarioak batu ziren eta puntuatu ziren emaitzen interpretazio eta analisirako. López-Ornat et al. (2005) eta García et al. (2008) autoreei jarraiki, galdelegien emaitzak puntuazio bihurtu ziren, horrela emaitza egoki bakoitzari puntu bat egokitzen zitzaison. Puntuazio guztiak zenbatu ziren, minimoa gaztelaniazko bertsioan 0 puntu izanik eta 588 maximoa eta, euskarako bertsioan, berriz, minimoa 0 puntu eta maximoa 654 puntu izanik.

### *2.4. Kodifikazioa*

Egintza komunikatibo guztiak identifikatu eta lokalizatu ziren grabaketetan, ELAN softwarea erabiliz (Lausberg eta Sloetjes, 2009). Egindako kodifikazioaren fidagarritasuna konprobatzeko, aurretik trebatutako bi evaluatzalek grabaketen % 20 kodifikatu zuten eta horrekin Kappa indizea egin zen (Cohen, 1960), % 89ko akordioa lortuz ( $k = 0,872$ ).


## **3. Emaitzak**

Ikerketa honetan haurren garapen lexikoa analizatu zen. Hasteko, haur bakoitzaren produkzioak bereizita aztertzen badira, 1. grafikoak erakusten duen moduan, GBE, GLL eta IRM haurrek 30 hilabete dituztenean, beste haurrek baino hiztegi zabalagoa daukate. Metodologia batean eta bestean lortutako datuak bat etorri ez arren, antzekotasun interesgarriak azaltzen dira produkzio lexikoari dagokionez, hau da, galdelegietan bai goitik zein azpitik nabarmenzen diren haurrak testuinguruan kokaturiko behaketetan ere berdin kokatzen dira, hau da, datu hauek proportzionalki errepikatzen dira behaketa eta galdelegietan lortutako puntuazioetan (estatistikoki ez da esanguratsua izan).




1. grafikoa. Haurren garapen lexikoa.

Baina datuak ama-hizkuntzaren arabera analizatzen badira (2. grafikoa), badira barioazioak: L1 euskara duten haurrek hitz gehiago produzitzen dituzte L1 gaztelania dutenekin alderatuz. Ezberdintasun hauek agerikoak dira, baina ez dira estatistikoki esanguratsuak.



2. grafikoa. Garapen lexikoa ama hizkuntzaren arabera.


Sexuaren arabera analizatzen badira datuak, ikus daiteke mutilek neskek baino puntuazio altuagoak lortzen dituztela, kasu batean izan ezik.



3. grafikoa. Garapen lexikoa sexuaren arabera.


Ondoren, konparaketa bat burutu zen ikerketa honetan euskara inventarioekin lortutako emaitzak Garcíak et al. (2008) emandako datuekin. Horrela, autore hauek

“normaltasunerako” proposatzen dituzten marginak 250 eta 550 hitzen artekoak dira eta batezbestekoak 401 hitzetan da. Ikerketa honen kasuan, lortutako batezbestekoak 306,25 hitz dira, eta beraz, eurek proposaturiko marginen barruan sartuko litzateke, baina batezbestekoak askoz baxuagoa da.




4. grafikoa. Ikerketa honetako euskarazko inventarioekin lortutako emaitzen konparaketa García et al. (2008) autoreek hornitutako datuekin.

5. grafikoan ikerketa honetako gaztelaniazko inventarioetako datuekin lortutako emaitzak, López-Ornat eta lagunek (2005) diotenarekin konparatu dira. Azken hauek ezarritako “normaltasun” marginak 115 eta 570 dira, 420 batezbestekoarekin. Ikerketa honetan lortutako emaitzak parametro horien barruan sartzen dira, baina badago ezberdintasun handia bi batezbestekoaren artean, ikerketa honetakoa askoz baxuagoa da-eta.



5. grafikoa. Ikerketa honetako gaztelaniazko inventarioekin lortutako emaitzen konparaketa López-Ornat et al. (2005) autoreek hornitutako datuekin.


Konparatu zen beste aspektuetako bat izan zen MacArthur-Bates-en euskararako egokitzapenen emaitzak (García et al., 2008) eta ikerketa honetako behaketarekin eskuratutakoak. Kasu honetan, 6. grafikoan aztertu daitekeen bezala, produkzio lexikoaren batezbestekoak ikerketa honetan ez da sartzen Garcíak eta al. (2008) ezarritako “normaltasun” parametro horietan, eta horrez gain, ezberdintasun esanguratsua dago minimoaren (250) eta horren artean (198,25).



6. grafikoa. MacArthur-Bates inventarioen egokitzapena

euskarara (García et al., 2008) eta ikerkuntza honen behaketaren  
emaitzen arteko konparaketa.

Aurreko egoera bera gertatu zen gaztelanian. Horrela, estatu espainoleko gaztelania bertsioaren emaitzak (López-Ornat et al. 2005) konparatu ziren ikerlan honen emaitzekin, konkretuki behaketa-prozeduraren bitartez lortutakoekin. Kasu honetan, batezbesteko López-Ornatek et al. (2005) proposatutako marjina maximo eta minimoaren artean dago, baina mugan.



7. grafikoa. Estatu espainoleko gaztelania bertsioaren (López-Ornat et al. 2005)  
eta ikerkuntza honetako behaketaren emaitzen konparaketa.

#### 4. Eztabaida eta ondorioak

Metodologia ezberdin hauetan lortutako emaitzek konfirmatzen dute bai behaketen bai MacArthur-Bates galde tegien balioa produkzio lexikoaren azterketarako. Batean zein bestean lortutako datuak bat etorri ez arren, badira antzekotasun interesgarriak produkzio lexikoaren konputoa; hau da, behaketan produkzio komunikatiboan puntuazio altuena zein baxuena zuten haurrek galde tegietan ere berdin gertatzen zen proportzionalki. Logikoki, ezin da ukatu MacArthur-Bates inventarioen fidagarritasuna, literatura zientifikoan prozedura eraginkor eta baliodun bezala ezaguna baita, baina lortutako datuak kontuan izanik, nolabaiteko gainbalorazioa ikusten da gurasoen beren seme-alaben emisioetan.

Datu horiek ama-hizkuntzaren eta sexuaren arabera aztertzen badira, desberdintasunak aurkitzen dira. Hasteko, euskara ama-hizkuntzatzat duten haurrek produkzio lexiko ugariagoa dute ama-hizkuntza gaztelania dutenek baino. Bigarrenik, mutilek hitz gehiago produzitzen zitzuten neskek baino.

Bestetik, badira elementu batzuk bereizten direnak beste ikerketetan aurkitutakoekin. Horrela, produkzio lexikoaren datuak 16 eta 30 hilabeteko adinean, bai galde tegietakoak bai behaketakoak, ez dato bat estatu espainoleko MacArthur-Bates gaztelaniazko bertsioarekin (López-Ornat et al., 2005) ez eta MacArthur-Bates euskarazko bertsioarekin (García et al., 2008). Ezberdintasun hauetan izan daitezke laginen ezberdintasunengatik, galde tegieei erentzuterakoan egar daitezkeen desberdintasun kulturalengatik, grabaketetan izandako jokabide aldaketengatik edo hauek elebidun bakoitzaren hizkuntzaren jabekuntzan eragina duten prozesuengatik. Euskara-gaztelania elebitasunaren kasurako, zenbait ikerlarik bai hizkuntzaren esposizio maila eta bai hizkuntza baten eta bestearen ezaugarri tipologikoak ere aipatu dituzte(Almgren y Barreña, 2001; Barreña, 1995; Ezeizaberrena, 1996; Idiazabal, 1988). Ondorioz, analisi gehiago egin beharko lirateke, luzetarako datuetatik abiatuz eta lagin handiagoa izanik, hauek elebidunetan hizkuntzaren jabekuntza zelan gertatzen den jakiteko. Hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko beste ikerketa batzuetan lortutako datuak kontuan

izanik, argumentatu daiteke haur hauen hiztegia askoz urriagoa dela haur elebakarrekin konparatuz (Pearson, Fernández y Oller, 1993).

Emaitza hauek kontuan izanik, importantea da azpimarratzea L1 euskara duten haurrek eta L1 gaztelania dutenek emaitza desberdinak dituztela, L1 ingelesa-gaztelania duten haurrek bezala. Bai galdelegien eta baita testuinguruan kokatutako behaketaren emaitzetan ere aztertu daiteke L1 euskara duten haurrek hizkuntzaren jabekuntza prozesu arinagoa dutela L1 gaztelania dutenek baino. Hori dela eta, ondoriozta daiteke adin goiztiarrean bi hizkuntza aldi berean ikasten dituzten adin bereko haurrek, hizkuntzaren esposizio denboraren arabera, patroi desberdinak garatu ditzaketela. Egoera hau gerta daiteke hizkuntza nagusia euskara den gune soziolinguistikoetan ere, ikerketa honetan bezala. Edozein kasutan, ikerketa honetan erregistratutako konputoa kikerketa antzekoetan azaldu direnekin konparatuz, batezbestekoak baino baxuagoak dira.

Azkenik, etorkizunean analizatzea interesgarria izan daitekeen eta aipatu ez den aspektu bat azpimarratu nahi genuke, honekin erreferentzia egiten diogu erreperitorio komunikatiboaren barrietatea kontuan izateari. Tasa komunikatibo desberdinak kontuan izateaz gain, haur bakoitzak, adin bakoitzean, zenbat elementu eta konbinazio desberdin erabiltzen dituen eta nola egoera hau erlazionatzen den etorkizuneko hitz kopuruarekin analizatzea interesgarria litzateke.

## Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketa honetan parte hartu duten familia eta haurrei, eta Bermeoko Eleizalde Ikastolari haren lagunza eta kolaborazioagatik.

## 5. Bibliografia

- Almgren, M. eta Barreña, A. (2001). Bilingual acquisition and separation of linguistic codes: Ergativity in Basque versus accusativity in Spanish. In K.E. Nelson, A. Aksukoc eta C.E. Jonson (Eds.), *Children's Language 11: Interactional Contribution to Language Development* (pp. 27-48). New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates.
- Baltes, P.B., Reese, H.W. eta Nesselroade, J.R. (1977). *Life-span developmental psychology*. Monterrey, CA: Brooks/Cole.
- Barreña, A. (1995). *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- Bosh, L. (2004). *Evaluación fonológica del habla infantil*. Barcelona: Masson.
- Cohen, J. (1960). A coefficient of agreement for nominal scales. *Educational and Psychological Measurement*, 20(1), 37-46.
- Ezeizabarrena, M.J. (1996). *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niñas/os bilingües*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- Fenson, L., Dale, P.S., Reznick, S., Thal, D., Bates, E., Hartung, J., Pethick, S. eta Reilly, J. (1993). *The MacArthur Communicative Development Inventories: user's guide and technical manual*. San Diego: Singular Publishing Group.
- Fernández López, I. (2009). *¿Cómo hablan los niños? El desarrollo del componente fonológico en el lenguaje infantil*. Madrid: Arco/Libros.
- García, I., Arratibel, N., Barreña, A. eta Ezeizabarrena, Mª.J., (2008). Adaptación de los inventarios MacArthur-Bates al euskara: desarrollo comunicativo entre los 8 y 30 meses. *Infancia y Aprendizaje*, 31(4), 411-424.

- Garfinkel, H. (1967). *Studies in ethnomethodology*. Englewood Cliffs, NJ: Prentice-Hall.
- Goffman, E. (1981). *Forms of Talk*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Halliday, M.A.K. eta Hasan, R. (1985). *Language, context and text: a social semiotic perspective*. Victoria: Deakin University Press.
- Hymes, D. eta Gumpertz, J.J. (1964). "The Ethnography of Communication". *American Anthropologist*, 66(6).
- Idiazabal, I. (1988). *Adquisición del lenguaje en niños/as bilingües y monolingües*. VII Curso de verano. San Sebastián: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- Kotliarenco, M. A.; Mendez, B. (1988). *Mirando hacia nosotros: El método de observación naturalista*. Santiago de Chile: Unesco, Oficina Regional de Educación para América Latina y el Caribe, Proyecto Principal de Educación en América Latina y el Caribe.
- Labov, W. (2001). "The anatomy of style-shifting". In P. Eckert y J.R. Rickford (Eds.), *Style and Sociolinguistic Variation* (pp. 85-108). Cambridge: Cambridge University Press.
- Lausberg, H. eta Sloetjes, H. (2009). Coding gestural behavior with the NEUROGES-ELAN system. *Behavior Research Methods*, 41(3), 841-849.
- López-Ornat, S., Gallego, C., Gallo, P., Karousou, S., Mariscal, S. eta Martínez, M. (2005). *Inventario de desarrollo comunicativo MacArthur*. Madrid: TEA ediciones.
- Pérez Pereira, M. eta García-Soto, X.R. (2003). El diagnóstico del desarrollo comunicativo en la primera infancia: adaptación de las escalas MacArthur al gallego. *Psicothema*, 15(3), 352-361.
- Pearson, B.Z., Fernández, S.V. eta Oller, D.K. (1993). *Lexical development in bilingual infants and toddlers: Comparison to monolingual norms*. *Language Learning*, 43(1), 93-120.
- Romero, A., De Pablo, I., Etxebarria, A., & Romero, A. (2017a). Teorización sobre la construcción de corpus orales en la adquisición del lenguaje: una propuesta metodológica para el procesamiento de lenguas con soporte tecnológico, *Analecta Malacitana*, 42, 123-155. [http://www.anmal.uma.es/AnMal42/Corpus\\_orales.pdf](http://www.anmal.uma.es/AnMal42/Corpus_orales.pdf)
- Romero, A., Etxebarria, A., De Pablo, I. & Romero, A. (2017b). Interrelación entre gestos y vocalizaciones en funciones comunicativas tempranas: evidencias desde la lengua vasca. *Signos*, 50(93), 96-123. doi:10.4067/S0718-09342017000100005

## EUSKALKIEN SAILKAPEN ZIENTIFIKOA: LEXIKOA<sup>21</sup>

**Gotzon Aurrekoetxea, Jose Luis Ormaetxea eta Xarles Videgain**

**Euskal Herriko Unibertsitatea eta Université de Pau et des Pays de l'Adour**

**[gotzonaurre@gmail.com](mailto:gotzonaurre@gmail.com), [txipirrin@gmail.com](mailto:txipirrin@gmail.com), [charles.videgain@unipau.fr](mailto:charles.videgain@unipau.fr)**

### **Laburpena**

Ekarpene honek ohiko euskalkien sailkapen zientifiko proposatzea du helburu. Horretarako, EHHA egitasmoan bildutako datuak erabiliko dira, zehazki lehen bi liburukietan biltzen den lexikoa. Horrek esan nahi du gaur egun 100 urte inguru dituen edo izango lituzkeen jendearen lexikoa duela langai. Bi liburuki horietako daturekin datu-basea sortzean irizpide zehatz batzuk erabili dira galderak eta erantzunak aukeratzeko orduan; lehenengoa, lexiko orokorra aukeratzea izan da; bigarrena, aukeratu den galderak gehienez ere erantzunik gabe bost herri edukitzea. Guztira 183 galdera aukeratu dira eta datuak datu-basean ezarri dira transkribaketa ortografikoa erabiliz. Datu-basea sortu ondoren, *Diatech* programara igo da eta programa hori erabiliz egin da analisi estatistikoa eta mapagintza. Analisian similaritate-mapa esanguratsu batzuk eskaintzen dira, herri batetik abiatuz sareko gainerako herrietara dagoen desberdintasun lexikala nolakoa den zehazteko; horretan mapez gain, hizkuntza-distantzien taula ere agerrazikoa da, hizkuntza-distantziak zenbakiz ere erakutsarazteko. Bigarren analisia clusterra izango da, zeinaren bidez hizkeren sailkapen hierarkikoa erakutsiko den. Sailkapen hau bi modutan erakutsiko da: batetik, dendrograma edo zuhaitz hierarkikoaren bidez, zeinetan aztertzen diren 145 hizkerak hizkuntza-hurbiltasunaren hierarkia baten barnean agertzen diren; eta bestetik, datuak mapa batean erakutsiko dira.

**Gako-hitzak:** bariazio geolinguistikoa, dialektometria, EHHA, lexikoa

### **1. Sarrera**

Euskalkien banaketa eta sailkapena aspaldiko kontua da gurean, euskaldunok betidanik izan dugu-eta gure hizkuntzaren bariazioa gogoan, sano deigarria delako guretzat ere. Alabaina, orain arteko sailkapen eta banaketa gehienak dialektoologia tradizionalaren prozedurak erabiliz egin izan dira. Honako ekarpene hau, aldiz, metodologia eta prozedura desberdinak erabiliz gauzatu da.

Izenburutik beretik abiatuz, “sailkapen zientifiko” terminoa erabili da. Zergatia eskatuko du batek baino gehiagok, eta arrazoiz. Eta guri dagokigu azaltzea: batetik, zientifikoa da ikerketa zientifikoetan, objektibotasun eta sinesgarritasunari begira, datu-kopuru handiak erabili ohi direlako; azterketa honetan 26.535 erregistro erabili dira. Ez da beharbada ikaragarritzko datu-kopurua eta handitu daiteke erregistro hori, zalantzarik gabe, eta etorkizunean egiteko asmoa ere badela jakinarazi gura dugu, baina orain artean sailkapen geolinguistikoak egiteko erabili den zabalena dela uste dugu. Bigarren, zientifikoa da zeinahi zientziatan ezer sailkatu behar denean erabiltzen diren teknikak erabili direlako azterketa honetan ere; hots, sailkapen hierarkikoa edo, bestela esanez, cluster analisia.

Datu-kopuru handiak eta sailkapen-teknikak erabiltzeak ematen dio ekarpene honi duen garrantzia, gure ustez ezohiko garrantzia. Horrek ez du esan nahi dena eginda dagoenik, ezta hurrik eman ere, baina bai bide egokian jarri garela eta bide ziurrean ipini ditugula gure oinatzak. Egia esan, zientzian ez da ezer finkoa, dena da aldagai; gaur ziurtzat ematen dena bihar agian zalantzatan jartzen da eta etzi beharbada baztertu.

<sup>21</sup> Lan hau GIU 22/16 eta IT 1028/16 erreferentziadun proiektueen barnean egin da.

Eta horretaz ere jabetzen gara. Horregatik, unean uneko teknika eta teknologia erabiliz egiten dugu ekarpen hau. Honetan gure egiten dugu gaur egun nazioartean jarraituenen eta aipatuuenen artean kokatzen den J. Nerbonnek dioena (2008: 7): “Good dialectological analysis need to adopt techniques of aggregation more extensively.”

## 2. Metodología

EHHAk datu-bilketaren metodologiaz ez da hemen ezer gehituko jada ezagutzen baita, gaian aditua denak aukera izan baitu orain arteko argitalpenetan (Aurrekoetxea 1986, 2002; Aurrekoetxea & Videgain 1987). Hemen EHHArren datuetatik datu-base berriaren sorrerako bidea nola eman den azalduko da.

### 2.1. EHHArren metodología eta emaitzak

Irakurlea ondo koka dadin, EHHAk emaitzak argitaratzean datuak bi moldetan ematen ditu: batetik, erantzunen zerrenda alfabeto fonetikoan, lurraldeka eta herrika antolaturik. Eta bestetik, mapetan, emaitzen lematizazio baten bidez, hitzen aldaerak lema berean bilduz. Adibidez, “sábado / samedi” kontzeptuari dagokion mapa (EHHA-II, 275. mapa) lau multzotan banatzen da: *zapatu* eta haren aldaerak mendebaldean, *larunbat* haren aldaerekin erdigunean, *ibiakoitz* nagusiki behe-nafarreraren eremuan eta *neskenegün* ekialdean. Oso mapa argia, banaketa dialektal simplea duena eta hitz bakoitzari dagokion eremua oso modu bisualean erakusten duena. Hala ere, ez dira mapa guztiak modu horretakoak; bigarren adibide bat emateko, “*peña / rocher*” kontzeptuari dagokion mapa (EHHA-II, 377. mapa) aurrekoa baino ñabarragoa da, erantzun mota gehiago ditu eta banaketa dialektala ez da hain argia. Batetik *atx* eta *aitz* ditugu mendebaldean; bestetik *arkaitz*, *burkaitz*, *malkor*, *peña*, *barga* eta *arkide* erdigunean; hirugarren eremu batean *harroka* da nagusi eta, azkenik, ekialdean *botxu* da forma zabalena. Aipatu gabe gelditzen dira, baina ez garrantzi txikiagoa dutelako, oso eremu txikietan erabiltzen diren berbak.

Lan hau egiteko ez dira batere kontuan izan mapak ezta mapak sortzeko egin zen lematizazio eta legenda. Abiapuntua erantzunen zerrenda izan da. EHHAk erantzunen zerrendako emaitzak alfabeto fonetikoan ematen dituen arren, proiektu honetan emaitzak zuzenean eraldatu egin ditugu eta erantzun ortografikoan idatzi dira gure datu-basean. Galderaz galdera eta herri datuak banan-banan idatzi dira sortu dugun datu-base berrian.

### 2.1. EHHAk datu-basera

Ikerketa honen abiapuntua EHHA proiektuko lehen eta bigarren liburukien paperezko bertsioak dira. Paperezko bertsioa esku artean, ondoko baldintzak betetzen zitzuten galderak aukeratu dira:

a) erantzun hutsik ez edo huts gutxi dituzten galderak bakarrik hartu dira kontuan. Galderaren erantzunen zerrendan bost herri edo gehiagotan erantzunik ez denean izan, galdera hori ez da kontuan hartu.

b) lexiko orokorra bakarrik aukeratu da, edozein gai dela kontzeptu orokorrak biltzen dituzten galderak bakarrik onartu dira. Hori dela eta, adibidez, baztertu egin dira intsektuei, arrainei e.a. dagozkien galderak.

Bi baldintza hauek kontuan izanik eratu da datu-base berria. Datuen kopuruari dagokionez, EHHako lehen bi liburukietan 509 galdera argitaratu diren arren, datu-base berrian lan honetarako 183 galdera baino ez dira lortu ahal izan; gainerako galdera guztieta edo erantzun hutsak direla-eta edo galderetan lexiko berezitua (edo berezitzat jotakoa) biltzen delako, bazter utzi dira.

Liburuetako emaitzak datu-base batean ezarri dira. Horretarako aurretik datu-base eredua zehaztu da. Hauek dira sortu den datu-basearen ezaugarriak:

- formatua: .csv formatuan eraiki da (*Openoffice-eko Calc* formatua erabili da).
- Unicode UTF-8an kodetu da formatu hori datuak gordetzean.
- 183 galdera ditu datu-base berriak.
- 145 herri biltzen dira datu-basean, EHHAn erabili diren herri guztiak.
- Guztira 26.535 erregistro biltzen ditu datu-baseak.

Lan hau guztia eskuz egin da, ekarria izenpetzen dugun hiruron artean, leku berean eta aldi berean hirurok langintza bera izan dugularik, galderak banandu ondoren eta bakoitzaren ordenagailuan datu-base eredua ezarri ondoren. Horretarako aste osoa behar izan da, bost egunetako jarduera latz eta gogorra, zeinetan aldean-aldean zalantzaren bat izan denetan elkarri galderak eginez erantzun egokiena bilatu izan den. Paperezko liburukietatik datu-basera pasatzear datuak alfabetoz ere aldatu egin dira, gorago esan bezala: liburukietan, ezaguna den legez, erantzunak alfabeto fonetikoz transkribatuta dauden bitartean datu-basean idaztean alfabeto ortografikora pasatu dira, horretarako euskaraz idazteko baliatzen den alfabetoa erabiliz.

Aipatu datuen eraldatze-lanean EHHAn agertzen diren erantzunak (lekuoek euren kasa emandako erantzunak) eta proposamen onartuak (inkestatzaileek proposatu eta lekuoek herriko forma edo berbatzat onartuak) maila berean ezarri dira. Uste dugu lekuoek bere kasa emandako erantzuna eta inkestagileak hitz bat iradokiz gero herrikotzat jotzen duenean, eta herriko edonork erabil lezakeela dioenean, herriko hitza dela, nahiz ez zaion hitzunari bere kasa atera inkestaren unean.

6236	44	1	kopo
6237	44	2	alpar,matasa
6238	44	3	matasa,txingor
6239	44	4	oja,txotor
6240	44	5	metxa
6241	44	6	edurtxotor
6242	44	7	edurmata,txingor
6243	44	8	edururtantakada,edurtxingor

6244	44	9	tantakada,matasa
6245	44	10	edurtxistil,edurmako
6246	44	11	matasa,edurlapatz
6247	44	12	edurgarrafa,edurmatas
6248	44	13	edursati,edurlume
6249	44	14	edurmatasa,edurtxingor

1. taula: datu-base berrian 44. galderari (EHHAKO 09090) dagokion datu-base zatia

Datu-base honen egitura honako hau da (1. taula): lehen zutabea datu-baseak automatikoki sortzen duen erregistro zenbakia da, bigarrena galdera-zenbakia (datu-base berrian 1-etik hasi da kontatzen), kasu honetan 44. galderaren zenbakia da. Hurrengo zutabea herriaren kodea da (1 lehen herria, Getxo..., mendebaldetik ekialderanzko norabidean). Beraz, taula honetan agertzen diren erantzunak Bizkaiko mendebaldeko herrietan jaso direnak dira.

### 2.3. Hizkeren arteko desberdintasunak neurteko sistema

Behin datu-basea sortu denean, *Diatech* tresnara igo dira datuak. Ezaguna da honezkerro analisi geolinguistiko kuantifikatuak egiten online tresna (<http://eudia.ehu.eus/diatech/index/>). *Diatech* EUDIA ikerketa-taldeak barazio geolinguistikoa ikertzeko analisi estatistikoak egin eta mapa kuantitatiboak lortzeko tresna da. Tresna hau doanekoa da eta edonork erabil lezakeena; horretarako behar duen gauza bakarra izena ematea da, besterik ez.

Datuak *Diatechera* igo ondoren, hizkeren arteko desberdintasunak zehazteko erabiliko den neurria erabaki behar da lehenik. Dialektometriaren neurri bat baino gehiago erabiltzen da: RIV neurria (*Relative Index Value*) Salzburgo-ko eskolak proposatu zuen eta haren jarraitzaileek erabiltzen dute, nagusiki (Goebl 1978). *Levenshtein algoritmoa* Groningen-go eskolakoek eta haren jarraitzaileek erabiltzen dute (ikus besteak beste, Nerbonne & Heeringa 2010). Aurrekoetxeak bi neurriak erabiltzea proposatzen du helburuen arabera, eta biak erabilgarri ditu *Diatech* programarekin analisi estatistikoak egin nahi dituenak. Neurriok desberdinak dira oso: lehena, RIV delakoa, neurri kategorikoa da eta konparatzen diren hitzak bere osotasunean hartzen ditu; nahikoa da zeinu edo hizki bat desberdin izatea hitzak desberdintzat hartzeko (neurri horren arabera eta adibide bat jartzeko, *ixar* eta *izar* %100ean desberdinak izango lirateke). Neurri hori egokia da distantzia fonologikoa neurteko, adibidez. Bigarren neurria, *Levenshtein algoritmoa*, ez da distantzia kategorikoa, eta hizkien galtzean, aldatzean edo sortzean oinarritzen da (neurri honen arabera, *ixar* eta *izar* hitzen arteko desberdintasuna %25 da, lau hizkitatik bat dute desberdin); neurri hau oso da egokia distantzia fonetikoak neurteko. Bata ala bestea erabiltzea ikertzaileari dagokio eta ikerketaren helburuen araberakoa izaten da (ikus zehatzago Aurrekoetxea 2016: 28-30).

Ekarpenean hau erantzunetan dago oinarrituta, lekuoengandik jasotako erantzunetan, hauek ahalik eta modu zehatzenean transkribatuta, baina alfabeto arauemailea erabiliz, ez transkripzio fonetikoa. Emaitza hauetan ez da lematizaziorik egin eta ez dira lemak

erabiliko ikerketa honetan. Beraz, distantziak neurtzeko datuak erantzunak direnez, distantzia fonetikoak lortuko direla diogu, nahiz erantzun ortografikoetan oinarritu; ikerketa honetan distantzia fonetikoak fonologikoei kontrajartzeko termino moduan erabiltzen da. Distantzia fonetikoak lortu nahi direnez, ikerketa honetan *Levenshtein algoritmoa* edo neurria erabiliko da.

#### 2.4. Erabiliko diren estatistika-teknikak

Bariazio geolinguistikoa aztertzeko garatu diren teknika kuantitatiboak askotarikoak dira. Ekarpen honetan horietatik aukera bat egin da, hain zuzen ere hizkeren sailkapen hierarkikoa aztertzeko erabiltzen direnak dira aztertuko direnak. Baino hori baino lehen eta jomuga hori izan arren, hizkeren arteko hizkuntza-distantzien taula eta similaritate-mapa bat aurkeztuko da. Hizkuntza desberdintasunak zenbakietara iraulgiz gero, hizkeren arteko desberdintasunak zenbakiz neur daitezke eta ondoren hizkeren arteko hizkuntza-desberdintasuna zenbakiz zehatz daiteke. Berrikuntza eta aurrerakuntza ikaragarria da hau, eta aurrerantzean hizkera batetik besterako desberdintasunaz hitz egitean ez da zertan “desberdintasun handia ala txikiaz” hitz egin behar, zehatz kuantifikatuta eman daitekeelako.

Ondoren, hizkeren sailkapenari begira, sailkapen hierarkikoa (cluster analisia) burutuko da. Cluster analisia teknika erabiltzen da ikerketa bateko datuak sailkatu nahi direnean; teknika unibertsala eta zientzia guztieta erabiltzen dena da. Azterketa honetan sailkapen honen bi emaitza azalduko dira: dendrogramak edo zuhaitz hierarkikoak lehenik; eta mapak bigarrenik. Mapetan balizko euskalkien eta azpieuskalkien mapak aurkezten dira.

### 3. Analisia

Gogora dezagun lehenik, analisi honetan hizkuntza-distantziatzat *Levenshtein algoritmoa* erabiltzea erabaki dela eta datuak lematizatu gabe erabili direla. Analisian lehen-lehenik hizkuntza-distantzien taula aurkeztuko da, ondoren similaritate-mapa bi (bata Getxori dagokiona, ezker muturrean kokatuta dagoen herria; bigarrena Eskiulari dagokiona, hau eskuin muturrean, ekialdean) eta hirugarren sailkapen hierarkikoari dagozkion dendrograma eta mapak.

#### 3.1. Hizkuntza-distantziak

Esan legez, jada hizkeren arteko desberdintasunak zenbatzeko aukera dugu egun dialektometriarako sortu diren programa informatikoen bidez. Kasu honetan hizkeren arteko distantzia-taula *Diatech* programaren bidez lortu da. Programa honek honelako taulak jaisteko aukera ematen du eta hori da oraingoan egin den eragiketa (ikus 2. taula).

	Abaurregaina	Ahetze	Aia	Aldude	Alkotz	Altzai	Altzürükü	Amezketa	Andoain	Aniz
Abaurregaina	0,00	47,52	51,73	44,87	46,73	61,12	62,93	50,70	53,56	41,09
Ahetze		0,00	51,09	36,41	50,98	57,02	57,65	51,71	51,39	42,66
Aia			0,00	53,93	50,13	66,02	66,18	37,06	39,46	47,84
Aldude				0,00	51,57	56,14	58,13	52,63	54,33	42,38
Alkotz					0,00	66,23	67,34	49,69	49,15	36,90
Altzai						0,00	31,26	65,92	66,11	61,65
Altzürükü							0,00	67,62	67,70	63,49
Amezketa								0,00	33,26	46,47
Andoain									0,00	47,61
Aniz										0,00

2. taula: hizkeren arteko distantzien taula (zatia)

Taulak erakusten duen bezalaxe, Abaurregaineotik Ahetzeko hizkerara datuen %47,52 desberdintasuna dago, Aiakora %51,73, Aldudekora %44,87, e.a. Hots, Abaurregaineko hizkeratik Ahetzekora baino Aldudekora desberdintasun txikiagoa dago, eta Ahetzekora baino Aiakora handiagoa. Beste konparaketa bat eginez, Amezketatik Aiako hizkerara dagoen desberdintasuna Altzürüküra (67,62) baino ia erdia txikiagoa da (37,06). Zenbaki hauek adierazten dutenez, aztertzen diren herriak binaka elkarrekin konparatuz, eta gure datu-basea oinarri izanik, lexikoan hizkeren artean aurkitzen den desberdintasun handiena %73,26 da (Altzürükü eta Getxoko hizkeren artean jasoa). Desberdintasun txikiena, aldiarazia, %22,87 da (Aniz eta Lekarozeko hizkeren artean jaso da).

Zenbaki hauek begi aurrean, berretsi egiten da datu zehatzik gabe beti esan izan den baieztapena: euskararen bariazioa handia dela oso; edo bestela esanda, euskararen dialektalizazioa gainerako inguruko hizkuntzetakoak baino handiagoa dela. Hizkera batetik besterako distantzia txikiena %22,87 izatea oso desberdintasun handia da; lexikoari dagokionez, bi hizkeren hizkuntza aldetik hurbilen direnen artean ia laurdena desberdina dela esan nahi du horrek. Kontuan hartu behar du irakurleak, berriro diogu, Levenshtein distantzia unitatea erabili dela estatistika hauetan.

Datuok zehaztasun handia ematen diote azterketari. Ikaragarrizko aurrerapena da hizkuntza-desberdintasunak xeheki aztertu nahi dituarentzat. Hizkuntza-datuak estatistikaren galbahetik iragaziz aitzinatze bortitza lortzen da, datuok erakusten duten bezala.

Behin zenbakizko datuen taula lortuz gero, distantzia handienak zein txikienak zein herrik dituen ere azter daiteke:


a) batetik, mendebaldeko muturretik abiatuz distantzia handienak biltzen dituzten mendebaldeko herriak zein diren jakin daiteke: Getxotik Altzürüküra dago hizkuntza-distantzia handiena (%73,26), ondoren Laukizetik Altzürüküra (%73,17), gero Getxotik Domintxainera (%72,21) eta Getxotik Montorira (%72,23). Hots, Getxo eta Altzürüküren artean lortzen da hizkuntza-distantzia handiena aztertzen diren datuekin, kontaketa mendebalde muturreko herrietatik abiatuz.

b) Ekialdeko muturretik abiatuz distantzia handiena Altzürükütik Getxora kontatzen da (%73,26), bigarren Altzürükütik Laukizeraren (%73,17), hirugarren Altzürükütik Lekeitiora (%72,61), laugarren Altzürükütik Etxebarriera (%72,29), ondoren Santa Grazitik Getxora (%71,85) eta Larrainetik Getxora (%71,66). Altzürükü da hizkuntza-kontuetan gainerako hizkeretatik desberdintasun handienak erakusten dituen herria: Getxorekin, Laukizekin, Etxebarrirekin eta Lekeitiorekin. Ondoren Getxo aurkitzen da: aipatu Altzürükü gain, Domintxainera, Montori, Larraia eta Santa Grazirekin lortzen ditu guarismo handienak.

Bestalde, basean aurkitzen diren desberdintasun txikienak edo, bestela esanda, hizkuntza-hurbiltasun handienak hauek dira: Aniz eta Lekaroz artean (%22,87), Ahetze eta Senpereren artean (%25,36), Erratzu eta Anizen artean (%26,44) eta Lemoiz eta Bakioeren artean (%27,40). Ikusten denez, desberdintasun txikienak edo hizkuntza-hurbiltasun handienak geografikoki oso hurbil diren herrien artean ematen dira.

### 3.2. Similaritate-mapak


Mapetara iraganez, ikus dezagun nolako similaritate-distribuzioa duten bi muturretako herriek: Getxo mendebaldeko muturrean eta Eskiula ekialderen kokatuta dagoen herria. Lehen herriari dagokionez (1. mapa), Getxok ikertzen diren gainerako herrietako hizkeraren aldean dituen desberdintasunak lau multzotan bananduz, lehen multzoan (urdinez) hurbilak diren herriak agertzen dira; guztia 26 herri, denak Bizkaian kokatutakoak. Bigarren multzoan (orlegiz) 31 herri aurkitzen dira, Bizkaia eta Gipuzkoan kokatuta. Hirugarren multzoan (horiz) 54 herri, Gipuzkoan, Nafarroan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean kokatua. Azkenik, laugarren multzoan 33 herri, denak Iparraldean kokatuta.



1. mapa: Getxo herriari dagokion similaritate-mapa

Ez da hemen sakonduko, baina etorkizunean mereziko luke sakontzea lehen multzoaren barnean kokatzen diren bigarren multzoko herrien (Etxebarri-62, Fika-68, Dima-44 eta Orozko-118 herriak) ezaugarrieta. Edo hirugarren multzoko herriz inguratuta aurkitzen diren Gipuzkoakoak (Andoain-9, Elduain-52, Hondarribia-79 eta Pasaia-121 herriak).

Ekialderen dagoen herria aukeratuz, Eskiulak gainerako herrikin dituen similaritateak agertuko dira (2. mapa). Eskiulak (mapan zuriz dagoen poligonoa dagokio) gainerakoekin dituen similaritateak lau multzotan bananduz lau multzo geografikoki aski koherenteak lortzen dira: lehen multzoan Zuberoako eta Amikuzeako 12 herri agertzen dira, bigarren multzoan (orlegiz) 37 herri kokatzen dira: gainerako Nafarroa Behereko, Lapurdiko guztiak eta Nafarroako ekialdeko herri batzuk. Hirugarren multzoan (horiz) 47 herri agertzen dira: Nafarroako eta Gipuzkoako herriak dira. Eta, azkenik, laugarren multzoan Gipuzkoako ekialdeko eta Bizkaikoak. Etorkizunean sakontzeko utziko da Eugi-64 herriko hizkeraren ezaugarriak beste multzo baten kokatuta dauden herrien artean egotearen arrazoiak aztertzea.



2. Mapa: Eskiulari dagokion similaritate-mapa.

Bi mapa hauek, bigarren honek garbiago, erakusten dute dialektologoen artean betidanik izan den axioma: zenbat eta geografian urrunago joan orduan eta hizkuntza-desberdintasuna handiagoa izango dela. Interesgarri oso eta aipagarri une honetan behinola Séguyk (1971) defendatu zuena, alegia, Europaren zehar herri batetik bestera joanez elkar ulertzen zela eta zenbat eta urrunago izan orduan eta jatorritik hizkuntza bestelakoagoa zela.

### 3.3. Sailkapen hierarkikoa


Hizkeren sailkapen hierarkikoa egiteko cluster analisia erabiliko da. Dialektologia modernoan hizkeren sailkapenaz eta banaketaz nazioartean ari diren ikertzaile gehien-gehierek erabiltzen duten teknika da hau. Teknika estatistiko honek bi emaitza ematen ditu ohiz: dendrograma edo zuhaitz hierarkikoa deitua eta honetatik ondorioztatzen diren mapak. Ekarpen honetan biak aurkeztuko dira.

#### 3.3.1. Dendrograma

Cluster analisiaren lehen emaitza dendrograma deitzten den zuhaitz hierarkikoa da. Zuhaitz honek hizkerak hierarkia baten barnean ezartzen ditu elkarren artean dituzten hizkuntza-ezaugarrien araberako hurbiltasuna erabiliz. Dendrograma eraikitzeko Ward metodoa erabili da ikerketa honetan, metodo hau delako aseptikoena eta distortsio gutxien sortzen duena. Gainerako zehaztasunak aurreko analisian erabilitako berak dira.

Dendrogramaren mozketarako bi irizpide erabiliko dira: Guiter-en irizpidea eta dendrogramaren besoen luzera. Guiterrek (1973) hizkeren arteko desberdintasunak mailakatzea proposatu zuen; haren arabera, %0-25 bitarteko desberdintasunek hizkerak bereizteko balio lezakete, %25-%50 bitarteko desberdintasunek azpidialekoak bereizteko, %50-%75 bitartekoak dialektoak bereizteko, eta hortik aurrera hizkuntzak bereizteko. Aurrekoetxeak (2012) hizkeren arteko hizkuntza-mugen beharrezko mailakatzeaz jardutean, berrartu zuen ideia eta hiru maila proposatu zituen. Ikerketa honetan sortutako dendrogramaren eskalak orotara 5.800 maila ditu: Guiterren arabera jokatuz, eskalako %25erainoko tartean barietateak edo hizkerak bereizten dira, %50erainokoan azpidialekoak eta %75erainokoan dialektoak. Gorago aipatu dendrogramara itzuliz eta %25ean moztuz, eskalako 1.450 mailan, lau dialekto genituzke; %50ean eginik, 5.800 eskalako 2.900 mailan, hiru dialekto izango genituzke; eta azkenik, %75ean eginik, eskalako 4.350 mailan, bi dialekto edo euskalki lortuko lirateke. Gure kasuan eta aurreko arlo honetako literatura kontuan izanik, ez dirudi sistema egokiena denik.

Bigarren irizpidea estatistikaren cluster analisia egiten dutenen artean oso ezaguna da: dendrograma bat izanik (ikus 1. irudia), hizkeretatik (irudiaren ezkerraldean koloreetan) edo hizkera multzoetatik sortzen diren adarren luzera hartzen da kontuan.



1. irudia: cluster analisiaren bidez lortutako dendrograma

Adar horien luzetasunak hizkuntza-desberdintasuna edo hizkuntza-disimilaritatea adierazten du. Hizkuntza-desberdintasun edo disimilaritatearekin hizkuntza-distantzia esan nahi da, beste molde batez. Zenbat eta adarra luzeagoa izan, orduan eta hizkuntza-distantzia handiagoa da adar-muturrean biltzen diren bi multzoen artean.

Dendrograman agertzen den sailkapena mapa batean islatu behar denean, dendrograma hori nonbait moztu behar izaten da; mozketa horretan sortzen diren multzoen kopurua mapan koloreetan bereizten diren eremuetan islatuko da. Beraz, garrantzi handia du dendrograma non moztu behar den zehazteak, edo zein den mozteko lekurik egokiena zehaztea, banaketa dialektal egokia lortzeko.


Funtsean honek zera esan nahi du: muga dialektal guztiak ez dutela garrantzi bera, muga batzuk garrantzitsuagoak direla, hizkuntza-desberdintasun handiagoa erakusten dutelako, eta alderantziz. Gauzak horrela, dendrograma moztu nahi denean garrantzi handia dauka mozketa-leku edo maila ondo aukeratzea. Badira mota honetako estatistika ikertzen dutenen artean tresna automatizatuak dendrogramaren mozketa-maila egokiena egiten laguntzen dutenak. Denek bat egiten dute mozketa adarraren luzetasunarekin lotzean. Gure kasura etorri, eskalako 900 maila inguruan 5 adar aski esanguratsu agertzen dira: bat, oso luzea, gorriz idatzita agertzen diren herriek osatzen

dutena, beste bi ere aski luzeak, hori eta orlegiz idatzita agertzen diren herriek osatuak, eta azkenik, beste bi adar, laburragoak urdinez idatzitako herriek sortuak.

Dendrogramak osotara 5.700 maila ditu bere eskalan; horren %25a 1.425 maila da, %50a 2.820 eta %75a 4.275 maila. Desberdintasuna %25 delarik, lau multzo agertzen dira: horia, gorria, orlegia eta urdina; desberdintasuna %50 bada (dialektoak bereiziko lirateke Guiterren esanetan), hiru multzo (Iparraldeko herriak, mendebaldeko gorria eta gainerako guztiak: Gipuzkoa gehiena eta Nafarroako guztiak), eta %75ean multzo bi: Iparraldeko herriak batetik, eta Hegoaldekoak bestetik.

### 3.3.2. Mapa

Demagun dendrograma 1.425 mailan mozten dela (hizkuntza-desberdintasunen %25a). Arestian esan bezala, lau multzo agertu dira dendrograman mozketak maila honetan eginez gero. Lau multzo horiek mapan kokatuz ondokoak lortzen da (ikus 3. mapa).




3. mapa: cluster analisiaren bidez lortutako mapa (ward, 4 multzo, Levenshtein).

Mapan lau multzo azaltzen dira: mendebaldekoa gorriz margotutakoa, erdialdekoa urdinez, ipar-ekialdekoa orlegiz eta ekialdekoa horiz. Lehen aldia da datu lexikalekin euskararen eremu osoko datuetan oinarrituz eta prozedura kuantitatiboak erabiliz mapa bat egiten dena. Garrantzi handiko emaitza da, zalantzak gabe, orain arte egin izan diren euskalkien mapak prozedura tradizionalekin eginak izan direlako, eta hau oso bestelako metodología eta prozedurak erabiliz. Laburbilduz, mapa hau lortzeko Euskal Herri osoan barreiatutako 145 herrian lortutako lexiko orokorreko 183 galderaren erantzunak erabili dira, gorago esan bezala. Guztira 26.535 datu bildu dira sortu den datu-basean. Datu horiek erabili dira ondoren, *Diatech* programarekin mapa hau egiteko. Mapa sortzean cluster analisia egin da; cluster analisia hizkeren arteko sailkapen hierarkikoa egiteko erabiltzen da. Kasu honetan Ward algoritmoa erabili da, Levenshtein hizkuntza-distantziarekin batera.

Mapa hau sortzeko, dendrograma eskalaren %25 mailan moztu da. Honek esan nahi duena honako hau da: multzo bakoitzaren barneko hizkuntza-desberdintasuna %25 baino txikiagoa dela eta multzoen arteko desberdintasuna %25 baino handiagoa dela.

Aldiz, lau multzotan banandu ordez hirutan egingo balitz, hiru eremu dialektaletako mapa lortuko litzateke (ikus 4. mapa). Mozketa hau dendrogramaren eskalako 1.750 maila inguruan legoke (desberdintasunen %30,70).



4. mapa: cluster analisia dendrograma 3 multzotan banandu osteko mapa

Eta azkenik, 5 multzoko mapa egin gura izanez gero, dendrogramaren eskanan 850 mailaraino (desberdintasunen %14,9) jaitsi beharko litzateke. Maila honetan orain arteko mapetan urdinez agertzen den erdiguneko eremua bitan banatzen da: batetik multzo batean Gipuzkoako herriak biltzen dira, bestetik Nafarroakoak. Ondorioz, bost eremuak hauek lirateke (3. mapan oinarrituz): mendebaldean gorriaz margotutako eremua; eremu urdina bitan bananduz, Gipuzkoako herriek eta Nafarroakoek osatzen dituzten eremuak; laugarren eremu orlegiz margotutakoa da, eta bosgarrena horiz margotua.

### 3.3.3. Euskalkien mapa

Metodologia hau hizkeren sailkapena egiteko baliabide eskuragarria dugu. *Diatech* tresnak, gainera, erabiltzailearen esku uzten du eremu-kopurua zehaztea. Ikertzaileak baliabide handiak ditu eskura gaur egun hizkerak sailkatzen orduan. Kontua, ostera, bestelakoa da: sortzen diren eremu horien mailakatzea; hots, zer den azpidialektoa, dialektoa, eta abar. Nola zehaztu eremu dialektal bat dialektoa den ala beste zerbait? Marraztu diren mapa biak kontuan izanik, eta Guiterrek planteatu zuena aintzat hartuz, euskarak hiru dialektu baino ez lituzke. Honek, ostera, ez du aintzat hartzen euskal dialektologiaren historian egindako euskalkien mapetan egin den banaketa.

Guiterren proposamenaren aurka esan behar da berea, zehaztu ez zuen arren itxura guztien arabera, hizkuntza erromanikoetarako dela baliagarri. Edonola ere, ez da aplikagarri edozein kasutan, hizkuntza batzuetan bariazioa oso handia izaten delako, eta besteetan, aldiz, askoz ere urriagoa. Egia da berea izan dela saio bakarra muga eta eremu dialektalen hierarkiak planteatzten. Bere proposamena aho betekoa ez bada ere, lehen saiakeratzat egokia dela esan behar da. Zelan aurreratu teorikoki arlo honetan?

Aurrez aurre dialektologia tradizionaleko banaketa dialektalak ditugu. Arlo honetan ere hizkuntza bakoitzean eta ikertzaile bakoitzak bere kasa asmatu ditu mugak eta eremuak. Horren ondorio zuzenena honako hau da: hizkuntza batean egin den banaketa dialektalean sortu diren eremu dialektalen (dialektoen) arteko


desberdintasunak oso handiak izan daitezkeela; hizkuntza batean %25 inguruko desberdintasunean koka daitekeen bitartean, beste batean %50ean izan litekeela. Eta, gainera, ezinezkoa da zehaztea zein ehunekotan eman izan den. Gure dialektologiari etorri, nola zehatz daiteke L. L. Bonaparteren edo berrikiago egindako euskalkien banaketan zein den bizkaiera eta gipuzkeraren arteko mugako desberdintasunen kopurua? Dialektologia tradizionala ez da horretaraino heltzen, mugak zehaztu eta eremu dialektalak bereiztea zuen helburu eta ezinezko zitzaison zehaztasun gehiagotara heltzea. Hala ere, ez zuen arazorik izan sortzen diren eremuei “dialekto” izendapena emateko, dialektoen arteko mugak oso desberdinak izan arren.

Aurreko hori guztia kontuan izanik, eta aurrerapen edo lehen hurbilketa gisa, desberdintasunen %25eko mailari dagokion mapa hurbilago dago ohiko euskal dialektologian egin izan diren euskalkien banaketarekin, %50eko mailari dagokiona baino. Hau ontzat emango balitz, benetako euskalkien mapa 3. mapa izango genuke: lau euskalki genituzke, mendebaldean bat (aurreko sailkapenetan bizkaiera edo mendebaldekoa deitua izan dena), erdigunean bigarrena (aurreko banaketetan gipuzkera eta goi-nafarrera, edo erdialdeko eta nafarrera bezala izendatuak), hirugarrena orlegiz margotua (ohiko banaketetan lapurtera eta behe-nafarrera, edo nafar-lapurtera izendatuak) eta horiz margotua ekialdean (aurreko banaketetan zuberera deitua).

Euskalkien sailkapen hau ez dator bat ez L. L. Bonaparteren banaketarekin, ezta K. Zuazorenarekin (1998). Desberdintasunak alde guztietaurik dira: batetik, datuak desberdinak dira oso: lexikoaz bestelakoak (nagusiki) Bonaparte eta Zuazorenak, lexiko hutsak hemengoak. Bestetik, prozedurak ere oso bestelakoak dira: Bonaparte-Zuazoren kasuan eremuak definitzietik abiatu ziren, hemen hizkuntza-datuuen desberdintasunetik. Lehenengoek eremuuen hizkuntza-ezaugarriak bereizten zitzuten, hemen eremuak ondorio hutsa dira. Hirugarren, kuantifikazioa, haien eskuz eta oraingo honetan metodo sailkatzaile-konputerizatuak erabiliz. Laugarren, emaitzak: Bonapartek 8 euskalki banandu zituen bitartean, Zuazok 5etan utzi zuen, eta hemen 4tara ekarri dira.

### 3.3.4. Azpieuskalkien mapa

Dendrograma eskalaren 275 mailan (desberdintasunen %4,82 biltzen da maila honetan) zatituz gero, gorago definitu diren lau euskalkiak bitan zatituko lirateke (5. mapa), Zuberoakoa salbu. Mendebaldeko euskalkiak bi azpieuskalki lituzke maila honetan: mendebaldekoa (gorriztatua) eta ekialdekoa (laranja kolorekoa); erdigunekoak beste bi: Gipuzkoakoa (orlegiz) eta Nafarroakoa (urdin indartsuz); nafar-lapurterak ere bi: mendebaldekoa (urdin argiz) eta ekialdekoa (laranja ilunez); eta Ekialdeko euskalkiak bakarra (horiz).



5. mapa: cluster analisian 7 multzoz egindako mapa

Mapak erakusten digu nafar-lapurtera euskalkiaren multzoa lasterrago zatitzen dela mendebaldeko euskalkia baino; eta euskalkietan azkena zatitzen erdigurenkoa dela (Gipuzkoako eta Nafarroako sortzen dutena). Mapan eremuak oso zehatz irudikatzen dira, salbuespen bakarrarekin, mendebaldeko nafar-lapurteran kokatuta dagoen baina ekialdeko nafar-lapurterari dagokion Baigorriko hizkera (mapan “27” zenbakiarekin identifikatua).

Ohiko banaketa dialektalarekin erkatuz, esan behar da azpieuskalkietako mugen hor dirautela nagusiki, leku berean edo oso gutxi aldatuta: ohiko bizkaieraren Gipuzkoako azpieuskalkiaren muga eta procedura sailkatzaileekin lortutakoa bera da, ez da batere aldatu. Ohiko gipuzkeraren barneko banaketa ez da procedura berriekin maila honetako banaketa, oraindik maila apalago batean kokatuta agertzen da; gune dialektal hau oso trinkoa da eta horren erakusgarri dendrograma dugu: oso maila apalean, behealdean, biltzen da eremu honetako hizkera guztietai cluster edo multzoa.

Badira muga batzuk mugitzen ez direnak eta horien artean kokatzen da Nafarroako hizkerena. Hizkera guztiak biltzen dira erdigurenko euskalkiaren Nafarroako azpieuskalkian. Eremuaren ekialdean, ohiko zubererak Amikuzeko hizkerak ere bereganatu ditu, baina ez denak: Garrüze (71 mapan) ez da eremu dialektal horretan kokatzen, ekialdeko nafar-lapurteran baizik. Aldiz, Bardozeraino (29) heltzen den eremua da.

#### 4. Eztabaida

Euskalkien sailkapen hierarkikoa egitea izan da helburu ekarpen honetan, gaur egun dialektometrian erabiltzen diren prozedura estatistikoak erabiliz, horretarako datu lexikalak erabiliz. Ohiko euskal dialekto logian, aldiz, banaketa dialektala egiteko nagusiki datu gramatikalak erabili dira batetik, eta bestetik, eskuzko prozedurak, ez automatizatuak. Erabilitako datuak eta prozedurak oso bestelakoak izan dira, guztiz.

Emaitzak ere guztiz desberdinak direla egiaztatzen da; ohiko euskalkien mapa eta ikerketa honetako ondorio bezala lortu den euskalkien mapa desberdinak dira. Ez dute bat egiten ez euskalki kopuruan, ezta batuetan euskalkien arteko mugetan ere. Euskalkietatik azpieuskalkietara pasatzen bagara, desberdintasunak handitu egiten dira.

Ikerketa honetan erabili den metodoaren abantaila handiena lortzen diren mugak mailakatzeko edo hierarkia batean kokatzeko gaitasuna da. Eta horretan konpontzen du ohiko dialektologiak zuen gabezia handiena. Muga guztiak ez dira maila eta pisu edo garrantzi berekoak, eta hori nabarmen argi gelditzen da azpieuskalkien izaera kontuan hartzean: ez da maila bereko muga ohiko bizkaieraren ekialde eta mendebaldekoa banatzen duena eta, adibidez, ohiko gipuzkeraren ipar eta hegoaldeko azpidialektoak banatzen dituena. Horrek erakusten du sailkapen hierarkikoa egiteak ikaragarrizko garrantzia daukala, argi erakusten baitu mugen maila edo garrantzia.

Ohiko dialektologia gai izan da mugak non diren zehazteko, baina inola ere ez mugak horien desberdintasuna zehazteko. Horretarako sailkapen hierarkikoa ezinbesteko teknika da, eta dialektologoak behar-beharrezko du erabiltzea bere lana zehatz egin behar badu.

## 5. Ondorioak

Lexikoa erabiliz, euskalkien sailkapen hierarkiko automatizatuen lehen emaitzak dira hemen aurkezten direnak. Eta agian euskal dialektologian datu lexikalak erabiliz burutzen den lehen euskalkien sailkapena dugu. Hala ere, azaldu behar da datu lexikalak erabili direla, hots, EHHAko emaitzetan oinarritutako datuak erabiliz eta datuoi inolako ukiturik eman gabe. Datu lexikalak alfabeto ortografikoan emanak (beraz, alfabeto fonetikotik ortografikora iragaziz), baina bestelako doitzerik jasan gabe.

Abiapuntutzat hartzen den ekarri honek etorkizunean izango du segida, eta gramatikari dagozkion datuak erabiliz eta prozedura sailkatzaile berak erabiliz sortuko dira mapa berriak. Mapa hauek berriro erkatuko dira ohiko dialektologian lortutakoekin eta erkatzean lortzen diren berdintasun-ezberdintasunak aztertuko dira.

## 6. Erreferentzia bibliografikoak

- Aurrekoetxea, G. (1986). Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA): inuesta metodología eta ezezko datuak. *Euskeria*, 31, 413-424.
- Aurrekoetxea, G. (2002). Algunas consideraciones sobre la contrapregunta en las encuestas lingüísticas. In L. Rabassa (ed.). *Mélanges offerts à Jean-Louis Fossat* (57-65 orr.), Université de Toulouse II-Le Mirail, CerCLid 11/2. [http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/07/14/00/PDF/Contrapregunta\\_encuestas\\_ling.pdf](http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/07/14/00/PDF/Contrapregunta_encuestas_ling.pdf)
- Aurrekoetxea, G. & Videgain, X. (1987). Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren ezaugarri nagusiak. In askoren artean, II. *Euskal Mundu Biltzarra*, 2, II, 57-462.
- Aurrekoetxea, G. (2012). Towards a scientific measurement of linguistics boundaries. In Á. Pérez, X. Alfonso, E. Carrilho & C. Magro (Eds.), *Proceedings of the International Symposium on Limits and Areas in Dialectology (LimiAr)*. Lisbon, 2011, (23-34). Lisboa: Centro de Lingüística da Universidade de Lisboa. [http://limiar.clul.ul.pt/proceedings\\_en.html](http://limiar.clul.ul.pt/proceedings_en.html)
- Aurrekoetxea, G. (2016). Analysis of the morphological variation of Basque. *DIG*, 24, 21-41
- EHHA: Euskaltzaindia, 2010-2017, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*, I-VIII, Bilbo: Euskaltzaindia.
- DIATECH: <http://eudia.ehu.eus/diatech/index/>

- Guiter, H. (1973). Atlas et frontières linguistiques. In G. Straka & P. Gardette (eds.) *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux* (61-109). (col. de Strasbourg, 1971). Paris.
- Goebl, H. (1978). Analyse dialectométrique de quelques points de l'AIS (italien standard valdotain provençal alpin turinois milanais). In G.E. Clivio & G. Gasca Queiraza (arg.), *Lingue e dialetti nell'arco alpino occidentale. Atti del Convegno Internazionale di Torino (1976)*, (282-294). Turin.
- Nerbonne, J. (2008). Variation in the Aggregate: An Alternative Perspective for Variationist Linguistics. In K. Dekker, A. MacDonald, & H. Niebaum (Eds.), *Northern Voices: Essays on Old Germanic and Related Topics offered to Professor Tette Hofstra*, (365-383 orr.). Leuven: Peeters.
- Nerbonne, J., & Heeringa, W. (2010). Measuring dialect differences. In J. Erich Schmidt & P. Auer (arg.) *Language and Space: An International Handbook of Linguistic Variation, Volumen 1*, (550-565). Berlin: Mouton De Gruyter.
- Séguy, J. (1971). La relation entre la distance spatiale et la distance lexicale. *Revue de Linguistique Romane*, 35, 335-357.
- Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *FLV*, 78, 191-233.

**1. Jardunaldietako kartela:**



## 2. Jardunaldietako programa

### Antolatzaileak / Organizadores



UPV-EHUko EUDIA Ikerketa-taldea

### Laguntzaileak / Colaboradores




UPV EHU Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola



UPV EHU Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila



UPV EHU Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza



# EUDIA-6 WORKSHOP

## Linguistic variation in the Basque language and Education

## Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza

2017ko ekainaren 9a  
9 de junio de 2017

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola  
Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao  
(UPV-EHU)

**EUDIA-6 WORKSHOP****Linguistic variation in the Basque language and Education  
Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza****Egitaraua / Programa****Tokia / Lugar**

UPV-EHUko Bilboko Irakasle Eskolan (Bilera gelan /Sala de reuniones)

9:00-9:15	Harrera eta kreditzialak hartzea / Recepción y entrega de credenciales
9:15-9:30	Irekiera / Acto de inauguración
9:30-10:30	Ponentzia (1) / Ponencia (1) (mahaiburua A. Etxebarria) Borràs-Comes, J. (Universitat Pompeu Fabra & U. Autònoma de Barcelona): <b>Metodología experimental y tratamiento estadístico: aplicación al estudio de la prosodia del catalán</b>
10:30-11:30	Txostenak / Comunicaciones (mahaiburua I. De Pablo) Orbegozo, I., Berro, A. & Fernandez, B. (UPV-EHU): Euskal aldakortasun morfosintaktikoa erakusten duen sareko datu basea. Gaminde, I., Eguskiza, N., Romero, A. & Etxebarria, A. (UPV-EHU): Informatzaileen sailkapenerako arazo metodologiko batzuen gainean. Etxebarria, A., Eguskiza, N., Gaminde, I., Romero, A. (UPV-EHU): Ahots seduzitzairen ezaugarriak generoaren ikuspegitik.
11:30-12:00	Eztabaida / Discusión Atsedenaldia / Descanso
12:00-13:00	Txostenak / Comunicaciones (mahaiburua X. Etchebest) Beristain, A. (University of Illinois): The Acoustic Realization of /s/ and /ts/ by L1 and L2 Basque Speakers. Iglesias, A., Eguskiza, N., Gaminde, I. & Unamuno, L. (UPV-EHU): Igorreko azentuaren korrelatuakustikoez. Atutxa, U., Ansa, O., Iruskieta, M. & Molina, A. (UPV-EHU): Compress-EUS: i(r)akasleen laburpenak lortzeko tresna. Eztabaida / Discusión
13:00-15:00	Bazkaria / Comida
15:00-16:00	Ponentzia (2) / Ponencia (2) (mahaiburu A. Romero) Murillo, E. (Universidad Autónoma de Madrid): <b>Acciones, gestos y palabras: el desarrollo multimodal del lenguaje en la etapa infantil.</b>
16:00-17:00	Txostenak / Comunicaciones (mahaiburua A. Iglesias) Etchebest, X. (UPV-EHU & UPPA): Zubererazko Dardarkarien azterketa sozio-fonetikoa. Eguskiza, N., Gaminde, I., Olalde, A., Etxebarria, A. & Gaminde, U. (UPV-EHU): Larrabetzuko euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharren ezaugarri prosodikoez. de Pablo, I., Romero, A., Etxebarria, A. & Gaminde, I. (UPV-EHU): Metodologia ezberdinak haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzeko.
	Eztabaida / Discusión
17:00-17:30	Atsedenaldia / Descanso
17:30-19:00	Txostenak / Comunicaciones (mahaiburua N. Eguskiza) Videgain, X., Aurrekoetxea, G. & Ormaetxea, J.L. (UPV-EHU & UPPA): Euskalkien sailkapen zientifikoa: lexikoa. Khattib, S. (University of Oran 2): Metacognition in enhancing students' productive skills. Eztabaida / Discusión
19:15	Mintegiaren amaiera / Acto de clausura



EUDIA Ikerketa-taldea

### 3. Argazkiak:

#### Irekiera / Acto de inauguración

Jon Zarate (UPV/EHU Euskararen arloko errektoreordea), Gurutze Ezkurdia (Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendaria), Kepa Larrea (Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailako koordinatzailea) eta Iñaki Gaminde (EUDIA ikerketa taldeko ikertzaile nagusia)



**Argazki orokorrak**



**PONENTEAK:**

Borràs-Comes, J. (Universitat Pompeu Fabra & U. Autònoma de Barcelona): Metodología experimental y tratamiento estadístico: aplicación al estudio de la prosodia del catalán.



Orbegozo, I., Berro, A. & Fernandez, B. (UPV-EHU): Euskal aldakortasun morfosintaktikoa erakusten duen sareko datu basea.



Gaminde, I., Eguskiza, N., Romero, A. & Etxebarria, A. (UPV-EHU): Informatzaileen sailkapenerako arazo metodologiko batzuen gainean.azentuaren korrelatu akustikoez.



Etxebarria, A., Eguskiza, N., Gaminde, I., Romero, A. (UPV-EHU): Ahots seduzitzailen ezaugarriak generoaren ikuspegitik.



Beristain, A. (University of Illinois): The Acoustic Realization of /s/ and /ts/ by L1 and L2 Basque Speakers.




Iglesias, A., Eguskiza, N., Gaminde, I. & Unamuno, L. (UPV-EHU): Igorreko azentuaren korrelatuakustikoez.



Ansa, O., Atutxa, U., Iruskieta, M. & Molina, A. (UPV-EHU): Compress-EUS: i(ra)kasleen laburpenak lortzeko tresna.



Murillo, E. (Universidad Autónoma de Madrid): Acciones, gestos y palabras: el desarrollo multimodal del lenguaje en la etapa infantil.



Etchebest, X. (UPV-EHU & UPPA): Zubererazko Dardarkarien azterketa soziofonetikoa.



Eguskiza, N., Gaminde, I., Olalde, A., Etxebarria, A. & Gaminde, U. (UPV-EHU): Larrabetzuko euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharren ezaugarri prosodikoez.



de Pablo, I., Romero, A., Etxebarria, A. & Gaminde, I. (UPV-EHU): Metodologia ezberdinak haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzeko.



Videgain, X., Aurrekoetxea, G. & Ormaetxea, J.L. (UPV-EHU & UPPA): Euskalkien sailkapen zientifikoak: lexikoa.

